


EAEko
ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN
**KIROL-AURREKONTUEN
AZTERKETA**
2023



Siadeco^x
ikerketa aplikatua


Berio pasealekua 11, 20018 Donostia
943 31 00 34
siadeco@siadeco.eus



Aurkibidea

AURKEZPENA.....	3.
A. METODOLOGIA	4.
A.1 Fitxa teknikoa	5.
A.2 Azterketa-eremua	6.
A.3 Aztertutako kontzeptuak	9.
A.4 Gastuaren kontsolidazioa.....	12.
B. KIROL-GASTU LIKIDATUA.....	15.
B.1 Kirol-gastu likidatua erakunde-motaren arabera	16.
B.2 Kirol-gastuaren pisu erlatiboa	18.
B.3 Biztanleko kirol-gastua.....	23.
B.4 Kirol-gastu handiena duten erakundeak	26.
B.5 Kirol-gastuaren sailkapen ekonomikoa	28.
B.6 Pertsonal gastua.....	33.
B.7 Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastua	35.
B.8 Kirol-gastuaren azterketa, helburuaren arabera	38.
B.9 Kirol-gastuaren azterketa, kirol-eremuen arabera	41.
C. ADMINISTRAZIO-MAILEN ARABERAKO KIROL-GASTUA	47.
C.1 Transferentzia-fluxuak administrazio-mailen arabera	48.
C.2 Kirol-gastua kapitulua ekonomikoaren eta administrazio-mailaren arabera	50.
C.3 Kirol-gastua, helburuaren eta administrazio-mailaren arabera	58.
C.4 Kirol-gastua, kirol-eremuen eta administrazio-mailaren arabera.....	64.
D. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN MULTZOAREN KIROL-GASTUA	73.
D.1 Transferentzien fluxuak administrazio-mailen artean	75.
D.2 Jatorrian kontsolidatutako kirol-gastua	77.
D.3 Helmugan kontsolidatutako kirol-gastua	80.
D.4 Kirol-eremukako emaitza nagusiak	84.
E. KIROL ARLOKO DIRU-SARRERAK	97.
F. KIROL ARLOKO ENPLEGUA	100.
G. KIROLDEGIEN KUDEAKETA	108.
H. GENERO IKUSPEGIA.....	112.
H.1 Genero-berdintasuna sustatzera bideratutako gastua.....	113.
H.2 Genero-ikuspegiari buruzko prestakuntza	114.
H.3 Genero-klausulak enpresen kontratazioan eta diru-laguntzetan	116.
H.4 Berdintasun-planak erakunde publikoek kontratatutako edo diruz lagundutako enpresetan	118.
I. HIZKUNTZA IRIZPIDEAK.....	120.
J. EMAITZA NAGUSIAK.....	123.

Aurkezpena




Txosten honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen kirol-aurrekontuen 2023ko estatistikari dagozkion emaitzak jaso ditu Siadeco Ikerketa Elkartek.

Azterlan honen helburua da EAEko administrazio publikoak kirol-esparruan egindako gastu publikoaren izaera eta finantzaketa-modua ezagutzea. Horretarako, administrazioaren eta haren menpeko erakunde autonomoen, sozietate publikoen eta fundazioen kirol-aurrekontuen azterketa xehatua egin da, kirol-baliabideen izaera ekonomikoa eta helburu zehatza ezagutzeko.

Azterlanaren aurreko edizioa 2018ko datuekin egin zen, eta datu orokorren bilakaeraren ikuspegia ere txertatu da txostenean.

A

METODOLOGIA



A.1 Fitxa teknikoa

Eragiketaren izena

EAEko administrazio publikoen 2023ko kirol-aurrekontuen azterketa.

Aztertutako gaia

EAEko administrazio publikoaren eta haren menpeko organismo autonomo, sozietate publiko eta fundazioen kirol-aurrekontuak.

Informazioaren erreferentzia urtea

2023

Informazioa biltzeko aldia

2024ko azaroa – 2025eko maiatza

Informazioa biltzea

Informazioa zuzenean bildu da fitxa egituratuaren bidez (euskarri informatikoan eta paperean) hainbat erakundetan: Eusko Jurlaritzak, aldundiak, udalak, organismo autonomoak, sozietate publikoak eta fundazioak. Erakunde bakoitzeko informatzaileen ezaugarrietara eta beharretara egokitutako aholkularitza eta laguntza espezifikoak ere eskaini da Siadecotik, tekniken mix baten bidez.

A.2 Azterketa-eremua

Estatistika honen azterketa-eremua honako hauek osatzen dute:

- ☐ Zentsu-izaerako landa-lana, Eusko Jaurlaritza, hiru foru aldundiak eta 5.000 biztanletik gorako udalerrietako udal guztiak barne hartzen dituena (73 udal). Azterketa errazteko, udalak 5.000 eta 20.000 biztanle arteko udaletan, 20.000 biztanletik gorako udaletan eta hiru hiriburuetan geruzatu dira.
- ☐ 5.000 biztanletik beherako udalerrietako toki-administrazioen lagin adierazgarri bati egindako landa-lana (lagina 100 udalek osatzen dute). Hori 5.000 biztanletik beherako udalerrietako udalen % 56,2 da, eta geruza horretako udalerrietako biztanleen % 53,9 bertan bizi da.
- ☐ Errola-izaerako landa-lana, administrazio baten edo batzuen menpeko edo % 100eko partaidetza duten organismo autonomo, sozietate publiko eta fundazioei egindako (guztira 23 erakunde).

1. taula.

Unibertsoa eta laginaren irismena.

Erakunde-mota	Unibertsoa		Lagina		Laginaren irismena	
	Erakunde kopurua	Biztanleria	Erakunde kopurua	Biztanleria	Erakunde kopuruaren %	Biztanleriaren %
Eusko Jaurlaritza eta foru aldundiak	4	2.196.745	4	2.196.745	100,0	100,0
Udalak	251	2.196.745	173	2.095.501	68,9	95,4
< 5.000 biztanle	178	219.387	100	118.143	56,2	53,9
5.000-20.000 biztanle	54	561.997	54	561.997	100,0	100,0
> 20.000 biztanle	16	640.136	16	640.136	100,0	100,0
Hiriburuak	3	775.225	3	775.225	100,0	100,0
Organismo autonomoak, sozietate publikoak eta fundazioak	23	-	23	-	100,0	-
GUZTIRA	278	2.196.745	200	-	71,9	-

Iturria: Siadeco. INE, 2023.

A.2.1. Laginketa-sistema

5.000 biztanletik beherako udalerrien lagina lortzeko, laginketa geruzatua aplikatu da, lurralde historikoaren (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) eta habitataren edo biztanle-tamainaren (1.000 biztanletik beherako udalerriak, 1.000-2.000 biztanletik beherakoak eta 2.000-5.000 biztanletik beherakoak) arabera esleipen proportzionalarekin. Ausazko zenbakien bidez hautatu dira geruza bakoitzean parte hartzen duten udalerriak. Laginketa-sistema horren bidez, parte hartu duten 100 udalak hautatu dira. Azterlanean parte hartu duten erakunde guztien zerrendari buruzko eranskinaren lehen atalean daude zehaztuta, lurralde historikoaren arabera.

Zehazki, ondorengoak dira azterketan parte hartu duten organismo autonomoak, sozietate publikoak eta fundazioak¹:

ARABA

88013	Euskadiko Kirol Portua, S.A. (Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco)
88019	Kirolaraba Fundazioa (Diputación Foral de Álava)

GIPUZKOA

88002	Anoeta Kiroldegia (Donostia)
88011	Donostia Kirola (Donostia-San Sebastián)
88020	Kirolgi Fundazioa (Diputación Foral de Gipuzkoa)
88021	Majori Kiroldegia (Ordizia)
88023	Patronato de Deportes de Zumaia – Lubaki Kiroldegia (Zumaia)
88026	Udal Kirol Patronatua (Azpeitia)
88028	Udaleko Kirol Patronatua (Elgoibar)
88030	Zubiaurre Elkargune Instituta (Azkoitia)
88031	Zumaia Kirol Portua, S.A. (Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco)

BIZKAIA

88003	Azkuna Zentroa SA (Bilbao)
88004	Basauri Kirolak (Basauri)
88007	Bilbao Kirolak SA (Bilbao)
88008	Bizkaialde Fundazioa (Diputación Foral de Bizkaia)
88009	Deportiva Municipal de Portugalete, S.A. (DEMUPORSA) (Portugalete)
88012	Durango Kirolak (Durango)
88014	Fundación BASQUE TEAM Fundazioa (Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco)
88015	Getxo Kirolak (Getxo)
88018	Instituto Municipal de Deportes (I.M.D.) - Udal Kirol Erakundea (U.K.E) (Barakaldo)
88024	Puerto Deportivo Abra-Getxo S.A. (Getxo)
88027	Udalaren Kirol Patronatua (Gernika-Lumo)
88029	Zierbena Portua, S.A. (Zierbena)

¹ 2018ko estatistikan parte hartu zuten ondorengo organismo autonomoak eta sozietate publikoak landa-lanean ez dute parte hartu beraiei jardura etenda eta dagokion udalean txertatuta zeudelako dagoeneko 2023an: Bermeoko Udal Kirol Patronatua, Ermuko UKE, Derioko Udal Kiroldegia, Eibarko Kirol Patronatua eta Tolosa Lantzen SA.

A.2.2. Datuen estrapolazioa

5.000 biztanletik beherako udalerrietako 100 toki-administrazioen lagineko datuak EAEko 5.000 biztanletik beherako udalerrien unibertso osora estrapolatu dira (178 udalerri guztira), honako prozesu honen bidez:



A.3 Aztertutako kontzeptuak

A.3.1. Kirol-gastuaren izaera ekonomikoa

2023ko kirol-gastuari buruzko azterlan hau aurrekontu publikoen gastuaren egitura ekonomikoa oinarritu da. Egitura horri jarraituz, aurrekontu publikoak kapitulu hauetan banatu dira:

- I. KAPITULUA:** Pertsonal gastuak
- II. KAPITULUA:** Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak
- III. KAPITULUA:** Finantza gastuak
- IV. KAPITULUA:** Transferentzia arruntak
- VI. KAPITULUA:** Inbertsio errealak
- VII. KAPITULUA:** Kapital transferentziak
- VIII. KAPITULUA:** Finantza aktiboak
- IX. KAPITULUA:** Finantza pasiboak

Gainera, I. eta II. kapituluetakoa gastuak azpikapitulu hauetan sailkatu dira:

I. Kapituluak. Pertsonal gastuaren sailkapena:

I.1. KIROL JARDUERAKO PERTSONAL PROPIOA: kirol arloko pertsonalaren gastuak sartuko dira hemen: zuzendariak, teknikariak eta kudeaketa eta administrazioeko pertsonalaren gastuak.

I.2. ZEHARKAKO PERTSONALA ETA PERTSONAL LAGUNTZAILEA: pertsonal laguntzailea eta zeharkakoaren gastuak sartuko dira hemen: garbiketarako pertsonala, mantentze-lanetarako teknikariak (muntatzaileak, argiketariak, garraiolariak, etab.), segurtasuna...

II. Kapituluak. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuen sailkapena:

II.1. KIROL ZERBITZU ESTRUKTURALAK: erakundearen kirol zerbitzu egonkorak garatzeko administrazioak edo erakunde autonomoak kontratatutako enpresa zerbitzuak (kiroldegien kudeaketa, kirol jarduera zehatzetarako pertsonalaren kontratazioa, kirol arloaren zuzendaritza eta kudeaketa...)

II.2. KIROL AZPIEGITURETARAKO PERTSONAL LAGUNTZAILE ETA ZEHARKAKO PERTSONALAREN AZPIKONTRATAZIOA: administrazioaren edo organismo autonomoaren kirol zerbitzuei laguntzeko erakundez kanpoko enpresek azpikontratazioz egindako lanak sartzen dira hemen (adibidez, garbiketa-lanak, kirol ekipamenduen mantentze-lanak eta segurtasuna...).

II.3. NOIZBEHINKAKO KIROL ZERBITZU ETA JARDUEREN KONTRATAZIOA: noizbehinkakoak diren eta kirol zerbitzuen eguneroko funtzionamendutik kanpokoak diren zerbitzu eta jardueren azpikontratazioari dagozkion gastuak sartuko dira hemen: II. kapitulutik finantzatutako kirol programazioko gastuak, hain zuzen ere.

II.4. HORNIDURA ETA MANTENTZE GASTUAK: barne hartzen ditu langileei lotuta ez dauden kirol-zerbitzuen ohiko funtzionamenduari lotutako gastu materialak: hornidurak, bulegoko materiala, garraioa, konponketak, errentamenduak eta kanonak...

II.5. BESTELAKO ZERBITZUAK ETA GASTUAK: publizitatea eta propaganda, ikerketa eta lan teknikoak, kalte-ordainak, osasun laguntzarako gastuak eta kirol jarduerari lotutako bestelako gastuak.

A.3.2. Kirol-gastuaren helburuen eta kirol-eremuen arabera sailkapena

Gastuaren helburuaren arabera sailkapena ondorengo kategorien arabera egin da:

ESKOLA-KIROLA: haurrak kirola egiten hastea helburu duten jarduerak.

KIROL EGOKITUA: desgaitasunen bat duten pertsonentzako kirol-jarduerak.

GOI-MAILAKO LEHIAKETAK: goi-mailako kirol-jarduerak.

KIROL EKITALDIAK: noizean behin antolatzen diren eta eragin handia duten kirol-jarduerak.

BESTELAKO KIROL JARDUERAK: aurreko sailkapenean sartzen ez diren kirol-jarduerak.

Kirol-eremuen arabera kirol-gastuaren sailkapena, berriz, ondorengo eremuen arabera egin da:

ATLETISMO KIROLAK: atletismoa

BORROKA-KIROLAK: boxeoa, judoa, karatea, borroka, taekwondo, eskrima...

HERRI KIROLAK

IRRISTAKETA KIROLAK: eskia, snowboarda, irristaketa...

MOTOR KIROLAK: automobilismoa, motoziklismoa...

NABIGAZIO-KIROLAK: bela...

PILOTA KIROLAK: futbola, eskubaloia, saskibaloia, errugbia, boleibola, beisbola, euskal pilota, tenisa, squash, padela, golfa...

UR-KIROLAK: igeriketa, arraunketa, surfa, piraguismoa, urpeko jarduerak...

TXIRRINDULARITZA

MENDIKO KIROLAK

MULTIKIROLA: eskola-kiroleko programak, triatlota...

BESTELAKO KIROLAK

A.3.3. Kirol arloko diru-sarrerak

Kirol arloko diru-sarreraren jatorria aztertu da:

JATORRI PUBLIKOA DUTEN DIRU-SARRERAK: EAEko zein estatuko administrazio publikotik jasotako diru-sarrerak dira.

IZAERA PRIBATUKO DIRU-SARRERAK: erakundeen diru-sarrera propioak dira.

A.3.4. Kirol arloko enplegua

Enplegua enplegu-motaren eta profilaren edo funtzio profesionalaren arabera aztertu da.

Enplegu-motaren arabera, ondorengo sailkapena erabili da:

PROPIOA: I. kapituluaren bidez finantzatutako enplegua da.

AZPIKONTRATATUA: erakundearen funtzionamendurako gainontzeko kapituluetatik finantzatutako azpikontratutako pertsona da (II. eta IV. kapituluetatik)

Profilaren edo funtzio profesionalaren arabera ondorengo kategoriak bereiztu dira:

KIROL KUDEAKETA ETA JARDUERA KO PERTSONALA: kirol arloko pertsona: zuzendariak, teknikariak eta kudeaketa eta administrazioarako pertsona.

PERTSONAL LAGUNTZAILEA ETA ZEHARKAKO PERTSONALA: kirol arlotik kudeatutako aurrekontu partidetatik finantzatutako pertsonal laguntzailea eta zeharkakoa: garbiketa, mantentze-lanetarako teknikariak, segurtasuna...

A.4 Gastuaren kontsolidazioa


Azterlanak eskaintzen duen informazioa 2023ko aurrekontu likidatutik abiatuta lortu da, zehazki obligazio aitortuen faseko informaziotik. Lehen informazio-maila horri gastu likidatua esaten zaio, eta aukera ematen du azterketa-unibertsoa osatzen duten erakundeek kirolari eskaini dioten gastu «gordina» ezagutzeko.

Informazio horretatik abiatuta, gastua kontsolidatu da. Arazketa-prozesu horren bidez, azterlanean parte hartzen duten erakundeen arteko transferentzia ekonomikoen ondoriozko kontabilitate bikoitza neutralizatzen da (gastuei eta diru-sarrerei buruzko IV. eta VII. kapituluak). Horren ondorioz, azterlanak kiroleko gastu «garbiaren» (gastu kontsolidatuaren) datuak eskaintzen ditu.

EAEko kultura-gastu publikoaren ikuspegi osoa eta orokorra emateko, honako kontsolidazio-prozesu hau egin da:

Administrazio-mailako kontsolidazioa: Eusko Jaurlaritzaren, foro aldundien eta udalen gastuari buruzko datuak izateko, horietako bakoitzaren menpeko organismo autonomoak, sozietate publikoak eta fundazioak kontsolidatzeko prozesu bat egin da, eskema honi jarraituz:

Administrazio-mailako kontsolidazioa



Azaldutako prozedura aplikatuta, administrazio-mailako kirol-gastu kontsolidatua lortzen da.

EAEko administrazio arteko kontsolidazioa: Eusko Jaurlaritzaren, foru aldundien eta udalen arteko transferentziak identifikatu ondoren egiten da. Bigarren prozesu horren emaitzak EAEko administrazio publiko guztien kirol-gastu kontsolidatua ezagutzea ahalbidetzen du; jatorrian eta helmugan kontsolidatutako gastua, zehazki.

Jatorrian kontsolidatutako gastua

Kontsolidazio-mota honek diru-partiden jatorria zein den erakusten du. Transferentzia entitate finantzatzaileari lotuta mantentzen da eta bikoiztutako kopurua erakunde hartzaileari kentzen zaio.




Helmugan kontsolidatutako gastua

Kontsolidazio-mota honek transferentzien helmuga zein den erakusten du. Transferentzia entitate hartzaileari lotuta mantentzen da eta bikoiztutako kopurua erakunde finantzatzaileari kentzen zaio.



B

KIROL-GASTU LIKIDATUA




B.1 Kirol-gastu likidatua erakunde-motaren arabera

2023. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoak kirolera bideratutako aurrekontu likidatuaren batura 408.809.389 eurokoa izan da –2018an 280.985.328 eurokoa izan zela estimatu zen–. Zenbateko horren erdia baino gehiago udalei dagokie: 236.718.222 euro (% 57,9). Organismo autonomoek, sozietate publikoek eta fundazioek kudeatzen dute laurden bat (109.270.371 euro, % 26,7); foru aldundiek % 11,2 (45.777.854 euro); eta Eusko Jaurlaritzak % 4,2 (17.042.942 euro).

1. grafikoa.

Gastu likidatua kirolean, erakunde-motaren arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2025.

2. taula.

Gastu likidatua, erakunde-motaren arabera (€).

	€	%
Eusko Jaurlaritza	17.042.942	4,17
Foru aldundiak	45.777.854	11,20
Udalak	236.718.222	57,90
Organismo autonomoak, sozietate publikoak eta fundazioak	109.270.371	26,73
Guztira	408.809.389	100,00

Iturria: Siadeco, 2025.

2018-2023 bilakaera²

Bilakaerari dagokionez, 2018ko eta 2025eko kirol-gastu likidatu osoaren banaketan alde txikiak daude: udalen pisua igo egin da, % 45,0tik % 56,8ra, eta organismo autonomoena, sozietate publikoena eta fundazioena, aldiz, jaitsi, % 39,9tik % 27,4ra.

Kopuru absolututan, udaletako gastua igo da gehien, % 79,1; foru aldundietakoa % 59,6 hazi da; eta Eusko Jaurlaritzakoa, aldiz, % 24,4. Erakunde autonomoek kirolera bideratutako diru-kopurua % 2,5 jaitsi da.

3. taula.

Gastu likidatuaren 2018-2023 bilakaera, erakunde-motaren arabera (€).

	2018		2023		Bilakaera 2018-2023 (%)
	€	%	€	%	
Eusko Jaurlaritza	13.702.927	4,9	17.042.942	4,3	24,4
Foru aldundiak	28.676.646	10,2	45.777.854	11,5	59,6
Udalak	126.536.980	45,0	226.597.075	56,8	79,1
Organismo autonomoak, sozietate publikoak eta fundazioak	112.068.775	39,9	109.270.371	27,4	-2,5
Guztira	280.985.328	100,0	398.688.242	100,0	41,9

Iturria: Siadeco, 2025.


² Kirol-aurrekontuen 2018-2025 bilakaeraren azterketa lagin, 2018ko eragiketan laginaren datuak aztertu baitziren. Hau da, 5.000 biztanlez azpiko udalerrietako datuak unibertso osora estrapolatu gabe ematen dira bilakaera aztertzen denean. Hori dela eta, erakunde-motaren arabera txostenean ematen diren udaletako datuak ez datoz bat bilakaeraren azterketan ematen diren udaletako datuekin.

B.2 Kirol-gastuaren pisu erlatiboa

Erakunde-maila bakoitzean gastu osoarekiko kirolari bideratutakoak duen pisu erlatiboa aztertu da, jarraian. Horren arabera, alde nabarmena dago udalen eta gainontzeko bi erakunde-moten artean. Hain zuzen, EAEko udalek 2023an egin duten gastu osoaren % 6,26 bideratu dute kirol kontuetara. Aldiz, foru aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak egindako kirol-gastua ez da gastu osoaren % 1era ere iristen: foru aldundien kasuan % 0,24, eta Eusko Jaurlaritzarenean, % 0,12.

2. grafikoa.

Erakundearen gastu osoarekiko kirol-gastuak duen pisu erlatiboa (%), erakunde-motaren arabera.



Iturria: Siadeco, 2025.

4. taula.

Erakundearen gastu osoarekiko kirol-gastuak duen pisu erlatiboa (%), erakunde-motaren arabera.

Erakunde-mota	Kirol gastua (€)	Udaleko gastu osoa (€)	Kirol-gastuaren pisu erlatiboa (%)
Eusko Jaurlaritza	17.042.942	14.407.806.902	0,12
Foru aldundiak	45.777.854	19.383.459.166	0,24
Udalak	236.718.222	3.783.593.301	6,26

Iturria: Siadeco, 2025.

2018-2023 bilakaera

2018ko datuekiko, joera berbera da: kirol-gastuak udalen aurrekontuetan du pisu erlatiborik altuena, baina 2023an zertxobait handiagoa da ehuneko hori (2018an % 4,63koa zen).

Foru aldundien kasuan zertxobait igo da, % 0,19tik % 0,24ra. Eta Eusko Jaurlaritzarenean, berriz, % 0,12an mantendu da.

5. taula.

Erakundearen gastu osoarekiko kirol-gastuak duen pisu erlatiboaren
2018-2023 bilakaera (%)

Erakunde-mota	Kirol-gastuaren pisu erlatiboa (%) 2018	Kirol-gastuaren pisu erlatiboa (%) 2023	Bilakaera 2018-2023 (%)
Eusko Jaurlaritza	0,12	0,12	0,0
Foru aldundiak	0,19	0,24	26,3
Udalak	4,63	5,99	29,4

Iturria: Siadeco, 2025.


Hiru foru aldundiak alderatuz gero, Gipuzkoan du pisurik handiena kirol-gastuak: 26,1 milioi euroko kirol-gastua du Foru Aldundiak, erakunde osoko gastu osoaren % 0,42. Bizkaiko Foru Aldundia dago ondoren: 16,5 milioi euroko kirol-gastua du, gastu osoaren % 0,16. Arabakoa, hirugarren: gastu osoaren % 0,10 bideratzen du kirolera, 3,1 milioi euro.

Gipuzkoako Foru Aldundiak kirolean egiten duen gastua gainerako aldundiek egindako gastutik nabarmentzen da, beste erakunde, elkarte edo norbanakoei egindako transferentziengatik, bai IV. kapitulutik (11,7 milioi euroko transferentzia arruntak egin ditu), zein VII. kapitulutik (10,8 milioi euroko kapital transferentziak egin ditu). Ondorengoak dira azpimarragarrienak, kopuruari dagokionean:

- Kirolgi Fundazioari egindako transferentzia arrunta (4,3 milioi euro).
- “Gipuzkoako kirol ekipamenduen plana 2023-2025” dirulaguntza lerroaren baitan, inbertsioetarako egindako transferentziak (8,2 milioi euro).

3. grafikoa.

Foru aldundien gastu osoarekiko udaletako kirol-gastuak duen pisu erlatiboa (%), erakunde-motaren arabera.



Iturria: Siadeco, 2025.

6. taula.

Foru aldundien gastu osoarekiko udaletako kirol-gastuak duen pisu erlatiboa (%), udal-motaren arabera.


Erakunde-mota	Kirol gastua (€)	Udaleko gastu osoa (€)	Kirol-gastuaren pisu erlatiboa (%)
Arabako Foru Aldundia	3.152.944	3.082.480.198	0,10
Gipuzkoako Foru Aldundia	26.084.787	6.188.185.005	0,42
Bizkaiko Foru Aldundia	16.540.123	10.112.793.963	0,16
Foru aldundiak guztira	45.777.854	19.383.459.166	0,24

Iturria: Siadeco, 2025.

Udalak dira haien gastu osoarekiko kirol-gaietan gastu handiena egiten dutenak, baina udalen tamainaren arabera badira aldeak. 5.000 eta 20.000 biztanle artean dituzten udalerrietan du kirol aurrekontuak pisurik handiena (% 8,54). Zertxobait baxuagoa da hiriburuak ez diren 20.000 biztanlez gaindiko udalerriek bideratzen dutena (% 6,79), eta 5.000 biztanlez azpiko udalerrien datutik oso gertu dago (% 6,37). Hiriburuak kirolera bideratzen duten gastuak du pisu txikiena haien gastu osoarekiko: % 4,44.

4. grafikoa.

Erakundearen gastu osoarekiko udaletako kirol-gastuak duen pisu erlatiboa (%), udal-motaren arabera.



Iturria: Siadeco, 2025.

7. taula.

Erakundearen gastu osoarekiko udaletako kirol-gastuak duen pisu erlatiboa (%), udal-motaren arabera.

Erakunde-mota	Kirol gastua (€)	Udaleko gastu osoa (€)	Kirol-gastuaren pisu erlatiboa (%)
< 5.000 biztanle	24.901.927	390.810.696	6,37
5.000-20.000 biztanle	79.243.583	928.176.321	8,54
> 20.000 biztanle	66.886.187	984.437.190	6,79
Hiriburuak	65.686.525	1.480.169.094	4,44
Udalak guztira	236.718.222	3.783.593.301	6,26

Iturria: Siadeco, 2025.

2018-2023 bilakaera

Udalak tamainaren arabera alderatuz gero, 2018tik 2023ra 20.000 biztanlez azpiko udalerrietan igo egin da kirol-gastuak gastu osoarekiko duen pisua: 5.000 biztanletik beherakoetan, % 2,4tik % 7,13ra; eta 5.000 eta 20.000 biztanle artekoetan, % 5,2tik % 8,54ra. 20.000 biztanletik gorako udalerrietan, aldiz, kirolak pisu txikiagoa du 2023an: % 7,7tik % 6,79ra jaitsi da 20.000 biztanlez gaindikoetan, eta % 6,9tik % 4,44ra, hiriburuetan.

8. taula.

Udalen gastu osoarekiko kirol-gastuak duen pisu erlatiboaren 2018-2023 bilakaera (%)


Erakunde-mota	Kirol-gastuaren pisu erlatiboa (%) 2018	Kirol-gastuaren pisu erlatiboa (%) 2023	Bilakaera 2018-2023
< 5.000 biztanle	2,4	7,13	197,0
5.000-20.000 biztanle	5,2	8,54	64,2
> 20.000 biztanle	7,7	6,79	-11,8
Hiriburuak	6,9	4,44	-35,7
Udalak guztira	4,63	5,99	29,4

Iturria: Siadeco, 2025.

Hiri hiriburuak kirolera bideratzen duten gastu osoaren zatia aztertuta, badago aldea: Gasteizko Udalak % 8,18 gastatzen du kirol-gaietan; eta nabarmen txikiagoa da beste bi hiriburuak gastatzen dutena, % 2,76 Donostiakoak eta % 2,85, Bilbokoak.

5. grafikoa.

Hiriburuaren gastu osoarekiko udaletako kirol-gastuak duen pisu erlatiboa (%), erakunde-motaren arabera.



Iturria: Siadeco, 2025.

9. taula.

Hiriburuaren gastu osoarekiko udaletako kirol-gastuak duen pisu erlatiboa (%), udal-motaren arabera.

Erakunde-mota	Kirol gastua (€)	Udaleko gastu osoa (€)	Kirol-gastuaren pisu erlatiboa (%)
Gasteiz	36.577.647	447.178.841	8,18
Donostia	10.393.262	377.175.168	2,76
Bilbo	18.715.615	655.815.085	2,85
Hiriburuak guztira	65.686.525	1.480.169.094	4,44


Iturria: Siadeco, 2025.

B.3 Biztanleko kirol-gastua

Ildo beretik, udalek egiten dute kirol-gasturik handiena biztanleko: 107,8 euro batez beste. Biztanleko 20,8 euro jartzen dituzte foru aldundiek batez beste, eta Eusko Jaurlaritzaren kopurua da txikiena, 7,8 euro biztanleko.

6. grafikoa.

Biztanleko gastu likidatua kirolean, erakunde-motaren arabera (€/biztanle).



Iturria: Siadeco, 2025.

10. taula.

Biztanleko gastu likidatua kirolean, erakunde-motaren arabera.


Erakunde-mota	Gastu likidatu kirolean (€)	Biztanleria	€/biztanle
Eusko Jaurlaritza	17.042.942	2.196.745	7,8
Foru aldundiak	45.777.854	2.196.745	20,8
Udalak	236.718.222	2.196.745	107,8

Iturria: Siadeco, 2025.

Foru aldundien kasuan, Gipuzkoakoak bideratzen du biztanleko diru-kopururik handiena, alde nabarmenarekin: 36,20 euro biztanleko. Batez bestekotik behera daude, berriz, Bizkaikoa (14,50 euro biztanleko) eta Arabakoa (9,50 euro biztanleko).

7. grafikoa.

Foru aldundien biztanleko gastu likidatua kirolean, erakunde-motaren arabera (€/biztanle).



Iturria: Siadeco, 2025.

11. taula.

Foru aldundien biztanleko gastu likidatua kirolean, erakunde-motaren arabera.


Erakunde-mota	Gastu likidatu kirolean (€)	Biztanleria	€/biztanle
Arabako Foru Aldundia	3.152.944	332.851	9,5
Gipuzkoako Foru Aldundia	26.084.787	719.875	36,2
Bizkaiko Foru Aldundia	16.540.123	1.144.019	14,5
Foru aldundiak guztira	45.777.854	2.196.745	20,8

Iturria: Siadeco, 2025.

Udalaren tamainaren arabera, 5.000 eta 20.000 biztanle arteko udalerriek bideratzen dute biztanleko kopururik handiena (141 euro biztanleko), eta hiriburuak, berriz, kopururik txikiena (84,7 euro biztanleko). Tartean daude udalerri txikiak, 113,5 euro biztanleko ratioarekin, eta hiriburuak ez diren 20.000 biztanlez gaindiko udalerriak, biztanleko 104,5 euroko ratioarekin.

8. grafikoa.

Udalen biztanleko gastu likidatua kirolean, udal-motaren arabera (€/biztanle).



Iturria: Siadeco, 2025.

12. taula.

Udalen biztanleko gastu likidatua kirolean, udal-motaren arabera.


Erakunde-mota	Gastu likidatu kirolean (€)	Biztanleria	€/biztanle
< 5.000 biztanle	24.901.927	219.387	113,5
5.000-20.000 biztanle	79.243.583	561.997	141,0
> 20.000 biztanle	66.886.187	640.136	104,5
Hiriburuak	65.686.525	775.225	84,7
Udalak guztira	236.718.222	2.196.745	107,8

Iturria: Siadeco, 2025.

Hiriburuen kasuan, Gasteizko Udalak egiten du gasturik handiena biztanleko: 146,30 euro. Donostia eta Bilbo batez bestekoaren azpitik daude: biztanleko 56,90 euro eta 54,70 euro jartzen dituzte, hurrenez hurren.

9. grafikoa.

Hiriburuen biztanleko gastu likidatua, erakunde-motaren arabera.



Iturria: Siadeco, 2025.

13. taula.

Hiriburuen biztanleko gastu likidatua, udal-motaren arabera.

Erakunde-mota	Gastu likidatu kirolean (€)	Biztanleria	€/biztanle
Gasteiz	36.577.647	250.100	146,3
Donostia	10.393.262	182.641	56,9
Bilbo	18.715.615	342.484	54,7
Hiriburuak guztira	65.686.525	775.225	84,7

Iturria: Siadeco, 2025.


B.4 Kirol-gastu handiena duten erakundeak

Aurrekontu likidatu osoa erakundez erakunde aztertuta, ikusi daiteke nola kirol-gasturik handiena kudeatzen duten EAEko 20 erakundek (unibertso osoaren % 7,2) gastu likidatu osoaren % 60,7 egiten duten. Bizkaiko udalerri handietako erakundeek presentzia nabarmenagoa dute zerrenda horretan: hiriburuaz gain, Getxo, Barakaldo, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Basauri, Leioa eta Galdakao daude.

Bestela, lehenengo bost erakundeen artean daude hiriburuak edo horien menpeko erakunde autonomoak, eta Gipuzkoako Foru Aldundia, eta kirol-gastu likidatu osoaren ia heren bat dagokie: Vitoria-Gasteizko Udala (36,6 milioi euro), Bilbao Kirolak SA (26,5 milioi euro), Gipuzkoako Foru Aldundia (26,1 milioi), Donostia Kirola (19,9 milioi euro) eta Bilboko Udala (18,7 milioi euro).

10. grafikoa.

Kirol-gasturik handiena kudeatzen duten EAEko 20 erakundeek erakundeen unibertsoan duten pisua eta 2023an kudeatu duten kirol-gastuaren pisua (%)



Iturria: Siadeco, 2025.

14. taula.

2023an kirol-gasturik handiena kudeatzen duten EAEko 20 erakunde publikoak.

Zenbakia	Erakundea	Gastu likidatu kirolean (€)	Gastu likidatu osoarekiko %
1	Vitoria-Gasteiz	36.577.647	8,95
2	Bilbao Kirolak SA (Bilbao)	26.493.662	6,48
3	Gipuzkoako Foru Aldundia	26.084.787	6,38
4	Donostia Kirola (Donostia-San Sebastián)	19.890.438	4,87
5	Bilbao	18.715.615	4,58
6	Eusko Jaurlaritza	17.042.942	4,17
7	Bizkaiko Foru Aldundia	16.540.123	4,05
8	Getxo Kirolak (Getxo)	11.934.097	2,92
9	Donostia / San Sebastián	10.393.262	2,54
10	Barakaldo	8.506.428	2,08
11	Getxo	8.241.603	2,02
12	Instituto Municipal de Deportes (I.M.D.) – Udal Kirol Erakundea (U.K.E) (Barakaldo)	7.415.608	1,81
13	Euskadiko Kirol Portua, S.A. (Eusko Jaurlaritza – Gobierno Vasco)	7.369.110	1,80
14	Deportiva Municipal de Portugalete, S.A. (DEMUPORSA) (Portugalete)	6.233.767	1,52
15	Santurtzi	5.075.822	1,24
16	Sestao	5.026.268	1,23
17	Kirolgi Fundazioa (Diputación Foral de Gipuzkoa)	4.606.416	1,13
18	Basauri	4.066.517	0,99
19	Leioa	4.014.387	0,98
20	Galdakao	3.816.223	0,93
		248.044.724	60,67

Iturria: Siadeco, 2025.

B.5 Kirol-gastuaren sailkapen ekonomikoa

Erakunde-mota guztietan 2023ko kirol-gastu likidatu osoaren proportziorik handiena gastu arruntak hartu du, eta zati txikiagoa da kapital gastuari dagokiona. Hain zuzen, EAEko erakundeetako kirol-gastuaren hamar eurotik 6 eta 8 artean bideratzen da gastu arruntera.

Erakundeen artean, organismo autonomoen, sozietate publikoen eta fundazioen kirol-gastu likidatua izan du gastu arruntak pisurik handiena: % 86,4 bideratu da eguneroko funtzionamendurako gastuetara (soldatak, materiala, zerbitzu-kontratuak, hornidura...). Oso gertu daude udalak, gastu osoaren % 82,0 dagokie mota horretako gastuei. Hala ere, kopuru absolututan udalek bikoitza baino gehiago gastatzen dute: 194,2 milioi euroko gastu arrunta dute udalek, eta 94,4 milioi eurokoa organismo autonomoek, sozietate publikoek eta fundazioek. Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien gastu arruntaren proportzioa, aldiz, txikiagoa da: % 68,7 (11,7 milioi euro) eta % 64,6 (29,6 milioi euro).

Gastu arruntaren proportziorik handiena II. kapitulura (ondasun arruntak eta zerbitzuak) bideratzen dute udalek zein organismo autonomoek, sozietate publikoek eta fundazioek: lehenengoen kopuru horren erdia baino gehiago (100,9 milioi euro), eta bigarrenak, ia bi heren (61,1 milioi euro); gastu horren zati handi bat udal-esparruko kiroldegien mantentze-lanetara bideratzen da (energia-gastuak, ur-kontsumoak, kirol-materialak, etab.), baita kirol zerbitzu estrukturalen edo udal kiroldegien kudeaketarako zerbitzu-enpresen kontrataziora ere.

Udalen kasuan, transferentzia arruntak daude gero (IV. kapitulua), ia heren bat hartzen dute (65,1 milioi euro). Transferentzia horietan sartuta daude udalek beraien menpeko kirol esparruko erakundeetara egiten dituzten transferentziak, horien artean, transferentziaren zenbatekoari dagokionez, nabarmenenak ondorengoak dira, besteak beste:

- Bilboko Udalak Bilbao Kirolak SAr emandako dirulaguntza (10,3 milioi euro)
- Donostiako Udalak Donostia Kirolari emandakoa (8,5 milioi euro)
- Getxoko Udalak Getxo Kirolari emandakoa (7,4 milioi euro)
- Barakaldoko Udalak Udal Kirol Erakundeari emandakoa (6,8 milioi euro)
- Portugaleteko Udalak Deportiva Municipal de Portugaleta, SA – Demuporsari emandako (3,3 milioi euro)

Horiez gain, aipagarriak dira, baita ere, zenbait udalek kiroldegien kudeaketaz arduratzen diren zerbitzu-enpresei edo elkarteei egindako transferentziak. Adibidez:

- Villabonako Udalak Kirolzer enpresari (511 mila euroko transferentzia)
- Lezoko Udalak BPXport XXI SLU enpresari (414 mila euro)
- Azkoitiko Udalak Masquatro enpresari (403 mila euro)
- Astigarragako Udalak Mundarro FKeri (314 mila euro)
- Orioko Udalak BPXport enpresari (283 mila euro)

Erakunde autonomoen kasuan, pertsonal gastuak (I. kapitulua) nagusitzen dira ondasun arrunten ondoren, ia laurden bat hartzen dute (21,8 milioi euro).

Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien gastu arrunta, aldiz, dirulaguntzetara bideratzen da, batez ere, erakunde-mota horien izaera finantzatzailearen adierazle. Jaurlaritzaren gastu arruntaren ia hiru laurden (8,5 milioi euro), eta aldundien kasuan gastu-arruntaren bi heren pasatxo (20,2 milioi euro). Eusko Jaurlaritzak emandako dirulaguntzetan ondorengo hartzaileak nabarmentzen dira jasotako zenbatekoagatik, besteak beste:

- Basque Team Fundazioa (1,9 milioi euro)
- Euskal Kirol Federazioen Batasuna (EKFB) (870 mila euro)
- Bilbao Ekintza E.P.E.L. (600 mila euro, Frantziako Tourraren Irteera Handia antolatzeke)

Foru aldundietan berriz, ondorengo dirulaguntzak nagusitzen dira:

- Gipuzkoako Foru Aldundiak Kirolgi Fundazioari egindako transferentzia (4,3 milioi euro)
- Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaia frontoiari egindako (2 milioi euro)
- Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko Kirol Federazioei egindakoa (1,4 milioi euro)
- Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaia Bizkaialde Fundazioari emandako (1,1 milioi euro)

Bi kasutan II. kapitulua dago gero (ondasun arruntak eta zerbitzuak): gastu arruntaren % 21,0 diputazioek (6,2 milioi euro) eta % 15 Eusko Jaurlaritzak (1,8 milioi euro).

Kapital gastuei edo inbertsioei dagokienez, zati txikiagoa hartzen dute erakunde hauen 2023ko kirol-gastu osoan: foru aldundien kirol-gastu osoaren % 35,4 dagokio kapital gastuari (16,2 milioi euro); Eusko Jaurlaritzan % 31,3 (5,3 milioi euro); organismo autonomoen, sozietate publikoen eta fundazioen kasuan, % 12,4 (13,6 milioi euro); eta udaletan, % 18,0 (42,5 milioi euro). Foru aldundiek izan ezik, gainontzeko erakundeek inbertsio errealak egitera (VI. Kapituluak) bideratzen dute kapital gastuen zatirik handiena: erakunde autonomoek ia kapital gastu osoa, % 98,9 (13,4 milioi euro); udalek hiru laurden (31,7 milioi euro); eta Eusko Jaurlaritzak ia bi heren (3,4 milioi euro). Kirol arloko 2023ko inbertsio-partida nagusiak, zenbatekoari dagokionean, ondorengoak izan dira:


- Bilbao Kirol SAK kiroldegietan egindako inbertsioak (7,2 milioi euro)
- Eusko Jaurlaritzak goi-mailako Basque Team (BAT) zentroa birgaitzeko egindako obrak (2,6 milioi euro)
- Lazkaoko Udalak kiroldegia berritzeko egindako inbertsioa (2,5 milioi euro)
- Gasteizko Udalak CD Mendizorrotzako eraikin soziala berritzeko egindako lanak (1,8 milioi euro)
- Gortizko Udalak kiroldegia berritzeko egindako inbertsioa (1,5 milioi euro)
- Basauriko Udalak Artunduagako kirol instalakuntzak hobetzeko egindako lanak (1,5 milioi euro)
- Berangoko Udalak padeleko pistak (1,4 milioi euro)
- Euskadiko Kirol Portuak S.A.k egindako inbertsioak (1,4 milioi euro)
- Urdulizko frontoiaren itxiera lanak (1,1 milioi euro)
- Getxo Kirolakek egindako inbertsioak (1,1 milioi euro)

Foru aldundien kapital gastu ia osoa VII. kapituluak hartzen du, hau da, inbertsioak egiteko dirulaguntzak ematera bideratzen du (15,8 milioi euro).

Organismo autonomoen, sozietate publikoen eta fundazioen kirol-gastuen barnean besterik ez daude finantza-aktiboak eta pasiboak eta oso zati txikia hartzen dute: % 1,2 (1,3 milioi euro).

11. grafikoa.

Gastu likidatua kirolean gastuaren izaera ekonomikoaren eta erakunde-motaren arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2025.

15. taula.

Gastu likidatua kirolean gastuaren izaera ekonomikoaren eta erakunde-motaren arabera.

Izaera ekonomikoa	Eusko Jaurlaritza		Foru Aldundiak		Udalak		Organismo autonomoak, sozietate publikoak eta fundazioak	
	€	%	€	%	€	%	€	%
Gastu arrunta	11.702.372	68,7	29.562.531	64,6	194.191.814	82,0	94.425.651	86,4
Kapital gastua	5.340.570	31,3	16.215.323	35,4	42.526.408	18,0	13.551.186	12,4
Finantza-aktiboak eta pasiboak	0	0,0	0	0,0	0	0,0	1.293.534	1,2
Guztira	17.042.942	100,0	45.777.854	100,0	236.718.222	100,0	109.270.371	100,0

Iturria: Siadeco, 2025.

16. taula.

Gastu likidatua kirolean kapitulu ekonomikoaren eta erakunde-motaren arabera.

Izaera ekonomikoa	Eusko Jaurlaritza		Foru Aldundiak		Udalak		Organismo autonomoak, sozietate publikoak eta fundazioak	
	€	%	€	%	€	%	€	%
I. Pertsonal gastuak	1.481.073	8,7	3.185.546	7,0	28.191.845	11,9	21.813.896	20,0
II. Ondasun arruntak eta zerbitzuak	1.760.102	10,3	6.204.132	13,6	100.915.232	42,6	61.116.240	55,9
III. Finantza gastuak	0	0,0	0	0,0	1.242	0,0	79.732	0,1
IV. Transferentzia arruntak	8.461.198	49,6	20.172.853	44,1	65.083.494	27,5	11.415.782	10,4
VI. Inbertsio errealak	3.404.963	20,0	427.229	0,9	31.650.138	13,4	13.396.287	12,3
VII. Kapital transferentziak	1.935.607	11,4	15.788.094	34,5	10.876.270	4,6	154.900	0,1
VIII. Finantza aktiboak	0	0,0	0	0,0	0	0,0	1.293.534	1,2
Guztira	17.042.942	100,0	45.777.854	100,0	236.718.222	100,0	109.270.371	100,0

Iturria: Siadeco, 2025.

2018-2023 bilakaera

2018ko kirol-aurrekontuetan ere gastu arruntak hartzen zuen kirol-gastuaren zatirik handiena erakunde-mota guztietan. Proportzioa nahiko antzekoa da udalen kasuan –% 80, 5 zen 2018an, eta % 81,5 da 2023an–; baina gaintzeko erakunde-motatan zertxobait aldatzen da: Eusko Jaurlaritzaren kasuan, 2018an % 75,3 zen gastu arrunta, eta 2023an, % 68,7; foru aldundietan jaitsi egin da gastu arruntaren pisua, % 81,3tik % 64,6ra; eta erakunde autonomoen kasuan, ordea, igo, % 62,0 izatetik % 86,4 izatera.

Kopuru absolututan, erakunde-mota guztietan igo egin da gastu arruntera bideratu duten zenbatekoa, batez ere, udaletan –100,8 milioi eurotik 184,7 milioi eurora–.

Kapital gastuari dagokionez, foru aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak bideratu dute zatirik handiena gastu-mota horretara: % 35,4 eta % 31,3, hurrenez hurren. Bereziki foru aldundiek inbertsioetara edo horiek finantziaztera bideratutako diru-kopurua igo da: 5,4 milioi eurotik 16,2 milioi eurora. Beste aldean, erakunde autonomoetako kapital gastua nabarmen jaitsi da, 42,3 milioi eurotik 13,6 milioi eurora, eta ondorioz, kirol-gastu osoan gastu-mota honek duen pisua jaitsi egin da, % 37,7tik % 12,4ra.

17. taula.

Gastu likidatuaren bilakaera gastuaren izaera ekonomikoaren eta erakunde-motaren arabera.

Izaera ekonomikoa	Urtea	Eusko Jaurlaritza		Foru Aldundiak		Udalak		Organismo autonomoak, sozietate publikoak eta fundazioak	
		€	%	€	%	€	%	€	%
Gastu arrunta	2018	10.324.001	75,3	23.304.245	81,3	101.851.995	80,5	69.526.227	62,0
	2023	11.702.372	68,7	29.562.531	64,6	184.713.071	81,5	94.425.651	86,4
	Bilakaera %	13,4		26,9		81,4		35,8	
Kapital gastua	2018	3.378.926	24,7	5.372.401	18,7	24.224.240	19,1	42.280.877	37,7
	2023	5.340.570	31,3	16.215.323	35,4	41.884.004	18,5	13.551.186	12,4
	Bilakaera %	58,1		201,8		72,9		-67,9	
Finantza-aktiboak eta pasiboak	2018	0	0,0	0	0,0	460.745	0,4	261.671	0,2
	2023	0	0,0	0	0,0	0	0,0	1.293.534	1,2
	Bilakaera %	-		-		-100,0		394,3	
Guztira	2018	13.702.927	100,0	28.676.646	100,0	126.536.980	100,0	112.068.775	100,0
	2023	17.042.942	100,0	45.777.854	100,0	226.597.075	100,0	109.270.371	100,0
	Bilakaera %	24,4		59,6		79,1		-2,5	

Iturria: Siadeco, 2025.

B.6 Pertsonal gastua

EAEko administrazio publikoaren 2023ko kirol-gastu likidatu osoaren % 13,4 pertsonal gastuak dira; guztira, 54,7 milioi euro. Gastu horren erdia pasatxo udalek egiten dute (28,2 milioi euro), eta % 39,9 organismo autonomoek, sozietate publikoek eta fundazioek (21,8 milioi euro).

Gastu-motari dagokionez, zenbateko horren zatirik handiena, hiru laurden pasatxo (% 79,7), kirol jarduerako pertsonal propioaren gastuak dira. Hain zuzen, kirol arloko zuzendarien, teknikarien eta kudeaketa eta administrazio pertsonalaren gastuetara 43,6 milioi euro bideratu dira 2023an. Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien kasuan, pertsonal gastuen % 100 dira mota honetakoak: 1,5 milioi euro eta 3,2 milioi euro, hurrenez hurren. Organismo autonomoetan, sozietate publikoetan eta fundazioetan % 99,9 da (21,8 milioi euro); eta udaletan, berriz, % 60,7 (17,1 milioi euro).

Gainontzeko % 20,3 zeharkako pertsonala eta pertsonal laguntzailea (garbiketarako pertsonala, mantentze-lanetarako teknikariak, segurtasuna...) ordaintzera bideratu da: 11,1 milioi euro dira, guztira. Udalen kasuan besterik ez du gastu-mota honek pisu nabarmena: pertsonal gastuaren % 39,3 da (11,1 milioi euro). Erakunde autonomoen pertsonal gastuen % 0,1 besterik ez da zeharkako pertsonalari eta laguntzaileei dagokiena: 26,5 mila euro.

18. taula.


Kirol arloko pertsonal gastuak, gastu-motaren arabera.

Gastu-mota	€	%
Kirol jarduerako pertsonala	43.569.888	79,7
Zeharkako pertsonala	11.102.472	20,3
Pertsonal gastuak guztira	54.672.360	100,0

Iturria: Siadeco, 2025.

12. grafikoa.

Kirol jarduerako pertsonalaren eta zeharkako pertsonalaren gastua, entitate-motaren arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2025.

19. taula.

Kirol jarduerako pertsonalaren eta zeharkako pertsonalaren gastua, entitate-motaren arabera.

Pertsonal-mota	Eusko Jaurlaritza		Foru aldundiak		Udalak		Organismo autonomoak, sozietate publikoak eta fundazioak	
	€	%	€	%	€	%	€	%
Kirol jarduerako pertsonala	1.481.073	100,0	3.185.546	100,0	17.115.873	60,7	21.787.396	99,9
Zeharkako pertsonala	0	0,0	0	0,0	11.075.972	39,3	26.500	0,1
Pertsonal gastuak guztira	1.481.073	100,0	3.185.546	100,0	28.191.845	100,0	21.813.896	100,0

Iturria: Siadeco, 2025.

B.7 Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastua

2023an EAEko administrazio publikoaren gastu likidatu osoaren % 41,6 ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak dira; guztira, 170 milioi euro. Helburu horrekin EAEn gastatzen diren hamar eurotik ia sei udalek gastatzen dituzte (100,9 milioi euro); aldiz, gastu likidatu osoaren heren bat egiten dute organismo autonomoek, sozietate publikoek eta fundazioek (61,1 milioi euro).

Gastu-motari dagokionez, zenbateko horren herena baino gehiago (% 37,7) hornidura- eta mantentze-gastuek hartzen dute: 64,1 milioi euro jartzen dituzte EAEko erakundeek kirol-zerbitzuen ohiko funtzionamenduko gastu materialetarako (energia-hornidura, ur-hornidura, materiala, konponketak...). Gastu-mota hau udaletan eta erakunde autonomoetan nabarmentzen da: udaletako ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuaren % 40,4 da (40,7 milioi euro), eta organismo autonomoetan, sozietate publikoetan eta fundazioetan zertxobait gutxiago, % 36,1 (22,1 milioi euro).

Gastuaren laurden bat (% 25,4) noizbehinkako kirol zerbitzuak eta jarduerak kontratatzeke erabiltzen dute EAEko erakundeek; guztira, 43,2 milioi euro izan dira 2023an. Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien II. kapituluko gastuen zati handiena hartzen dute: Jaurlaritzaren kasuan, % 44,6 (784,7 mila euro), eta diputazioen kasuan, % 43,7 (2,7 milioi euro). Udalen eta erakunde autonomoen gastuetan, ordea, laurden bat inguru hartzen dute halakoek, baina kopuru absolututan, nabarmen gehiago jartzen dute: 26,3 milioi euro eta 13,4 milioi euro, hurrenez hurren. Azpikapitulu honetatik egiten diren zerbitzu-kontratazio nagusiak kirol ikastaro edo programak aurrera eramateko kontratuekin dute lotura. Ondorengoak dira partidaren zenbatekoari dagokionean nagusitzen diren partidak kirol zerbitzu eta jardueren contratazioari dagokion azpikapituluan:

- Bilbao Kirolak SA – Kirol ikastaroak (3,8 milioi euro)
- Gasteizko Udalean jarduera fisikoko programak garatzeko zerbitzuaren contratazioa (3,6 milioi euro)
- Galdakaoko Udalean kirol jarduerako programen contratazioa (1,8 milioi euro)
- Bizkaiko Foru Aldundian eskola kirola jarduerak garatzeko zerbitzuaren contratazioa (1,4 milioi euro)
- Deportiva Municipal de Portugalete, SA – Demuporsak egindako kirol zerbitzuen contratazioa (1,4 milioi euro)

Pertsonal laguntzailearen azpikontratazioa bideratu da II. kapituluaren % 17,5, 29,8 milioi euro. Batez ere, organismo autonomoek, sozietate publikoek eta fundazioek egiten dute gastu-mota hori: ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuaren laurdena baino gehiago hartzen du kasu honetan; guztira, 17,3 milioi euro. Udalek 12,3 milioi euro bideratzen dituzte, nahiz eta haien gastuaren barruan partida honek pisu txikiagoa izan (% 12,2). Jaurlaritzaren eta foru aldundien kasuan, haien gastuaren % 3ra ere ez da iristen pertsonal laguntzailearen azpikontratazioarena.

II. kapituluko hamar eurotik bat besterik ez da bideratzen kirol zerbitzu estrukturaletarako giza baliabideetara, eta ia gehiena udalek jarritakoa da: 20,2 milioi eurotik 18,7 milioi euro. Gainera, udalen gastu osoan du pisurik handiena: % 18,5 eta kiroldegien kudeaketa-zerbitzuen kontratazio-gastuak nagusitzen dira. Ondorengo udalak nabarmentzen dira gastuaren zenbatekoagatik:

- Gasteizko Udala (3,7 milioi euro)
- Leioako Udala (1,6 milioi euro)
- Muskizko Udala (1,5 milioi euro)
- Beasaingo Udala (1,3 milioi euro)

Eusko Jaurlaritzaren gastuan ez dago halakorik, eta beste bi erakundeetan % 3aren azpitik dago –hala ere, kopuru absolututan aldea dago: erakunde autonomoetatik 1,3 milioi euro bideratzen dira, eta diputazioetatik, aldiz, 170 mila euro besterik ez–.

Azkenik, bestelako gastuak egiteko 12,7 milioi euro jartzen dira (gastu osoaren % 7,5), eta batez ere, Eusko Jaurlaritzaren (% 42,3) eta foru aldundien (% 32,9) gastuan nabarmentzen dira. Gastu-mota honen barruan sartzen dira, besteak beste: publizitatea, ikerketak eta lan teknikoak, kalte-ordainak...

20. taula.


Kirol arloko ondasun arrunten eta zerbitzuen gastua, gastu-motaren arabera.

Gastu-mota	€	%
Kirol zerbitzu estrukturaletarako giza baliabideak	20.193.299	11,9
Pertsonal laguntzailearen azpikontratazioa	29.761.882	17,5
Kirol zerbitzu eta jarduerak	43.216.499	25,4
Hornidura eta mantentze gastuak	64.133.755	37,7
Bestelako gastuak	12.690.271	7,5
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	169.995.705	100,0

Iturria: Siadeco, 2025.

13. grafikoa.

Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuen sailkapena, entitate-motaren arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2025.

21. taula.

Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuen sailkapena, entitate-motaren arabera.

Pertsonal-mota	Eusko Jurlaritzza		Foru Aldundiak		Udalak		Organismo autonomoak, sozietate publikoak eta fundazioak	
	€	%	€	%	€	%	€	%
Kirol zerbitzu estrukturaletarako giza baliabideak	0	0,0	169.636	2,7	18.676.341	18,5	1.347.322	2,2
Pertsonal laguntzailearen azpikontratazioa	45.373	2,6	135.087	2,2	12.296.477	12,2	17.284.944	28,3
Kirol zerbitzu eta jarduerak	784.712	44,6	2.709.711	43,7	26.346.358	26,1	13.375.718	21,9
Hornidura eta mantentze gastuak	185.934	10,6	1.146.534	18,5	40.722.561	40,4	22.078.726	36,1
Bestelako gastuak	744.082	42,3	2.043.164	32,9	2.873.494	2,8	7.029.530	11,5
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	1.760.102	100,0	6.204.132	100,0	100.915.232	100,0	61.116.240	100,0

Iturria: Siadeco, 2025.

B.8 Kirol-gastuaren azterketa, helburuaren arabera

Gastuaren helburuari erreparatuta, hamar eurotik bederatzi baino gehiago bestelako kirol jardueretara bideratu dute EAEko erakundeek 2023an: 408,8 milioi eurotik ia 371,5 milioi euro (% 90,9). Gainontzeko helburuek gastuaren % 10 baino gutxiago hartzen dute: goi-mailako lehiaketek % 4,4 (17,9 milioi euro), kirol ekitaldiek % 2,1 (8,8 milioi euro), eskola-kirolak % 2,3 (9,5 milioi euro) eta kirol egokituak % 0,3 (1,1 milioi euro).

Bestelako gastuen diru-kopuru handi horren atzean zer dagoen aztertuta, honakoa ikusten da:

- Gastuaren % 32 bestelako helburuak dituzten kirolak finantzatzeko gastua da. Helburu gisa eskola-kirola, kirol egokitua, goi-mailako lehiaketak edo kirol ekitaldiak ez dituzten transferentzia arruntei edo kapital transferentziei dagokie kopuru hori.
- Gastuaren % 29 gainontzeko kategoriatan sailkatu ez den hornidura eta mantenurako gastua da.
- Gastuaren % 27 kirolaren kudeaketa orokorrari dagozkion gastuak dira: pertsonal gastuak (zuzeneko pertsonalarenak zein pertsonal laguntzailearena), zein azpikontrataturako pertsonalarenak (zuzeneko pertsonala zein laguntzailea).
- Gastuaren % 9 alde zuzenetik zehaztuta zeuden helburuak ez dituzten kirolen programaziorako gastua da.
- Gastuaren % 3,5 bestelako helburutarako da.

Esan bezala, bestelako kirol jarduerak hartu dute gastuaren proportziorik handiena lau erakunde-motetan, baina helburuaren araberrako banaketan badaude aldeak haien artean.

Udalen kasuan bestelako kirol jardueretara bideratzen da ia gastu osoa: % 95,6, 226,3 milioi euro. Eta gainontzeko 10,4 milioi euroak beste helburuetarako erabiltzen dira (gastuaren % 4,4): kirol ekitaldietarako 4,6 milioi euro (% 1,9), eskola-kirolerako 3,5 milioi euro (% 1,5), goi-mailako lehiaketetarako 1,9 milioi euro (% 0,8), eta kirol egokiturako 488 mila euro (% 0,2). Udalek 2023an kirol ekitaldietara bideratu dituzten diru-partida nagusiak ondorengoak dira:

- Donostiako Udalak Bilbao Ekintza E.P.E.L. erakundeari egindako transferentzia Frantziako Tourraren Irteera Handia antolatzeko (750 mila euro)
- Donostiako Udalak Rugby Top 14 antolatzera bideratutako gastua (120 mila euro)
- Sopelako Udalak Sopela Kosta Fest antolatzera bideratutako gastua (101 mila euro)
- Villabonako Udalak Euskal Herriko Itzuliaren etapa amaiera ekitaldira bideratutako gastua (50 mila euro)

Bestelako kirol jarduerak pisu oso handia hartzen duen beste erakunde-mota organismo autonomoena, sozietate publikoena eta fundazioena da: gastuaren % 89,3 da; guztira, 97,6 milioi euro. Kasu honetan, goi-mailako lehiaketetako gastua dago bigarren lekuan (% 6,9, 7,5 milioi euro eta bertan Kirolgi Fundazioak goi-mailako klubei egindako transferentziak nabarmentzen dira, 3,5 milioi eurekin), eta kirol ekitaldiak, ondoren (% 3,2, 3,5 milioi euro). Zati txikiena eskola-kirolak (% 0,5) eta kirol egokituak (% 0,2) hartzen dute.

Foru aldundietan, bestelako jardueratarako gastuaren % 83,7 erabiltzen da (38,3 milioi euro), eta pisu handiagoa hartzen du eskola-kirolak, programa horretara bideratzen baita diputazioen gastuaren % 11,5 (5,3 milioi euro). Gipuzkoako Foru Aldundiak eskola-kirolera bideratzen duen gastua beste foru aldundietakoa baino baxuagoa da (2,6 milioi euro bideratzen ditu eskola-kirolera Bizkaikoak, 1,6 milioi euroko Arabakoak eta 1,1 milioi euro Gipuzkoakoak)³. Goi-mailako lehiaketetara doa % 2,6 (1,2 milioi euro), kirol ekitaldietara % 1,4 (639 mila euro) eta kirol egokitura % 0,9 (398 mila euro).

Azkenik, Eusko Jaurlaritzaren gastuari dagokionean, banaketa zertxobait gehiago aldatzen da. Erdia baino zertxobait gehiago gastatzen dute bestelako kirol jardueratan (% 54,6, 9,3 milioi euro), baina handia da baita ere goi-mailako lehiaketek duten pisua (% 43,3, 7,4 milioi euro). Gainontzeko helburuekin egiten dituzten gastuek oso pisu txikia dute: eskola-kirolera % 1,3 bideratzen dute, kirol ekitaldietara % 0,6, eta kirol egokitura % 0,2.

22. taula.

Gastu likidatua kirolean gastuaren helburuaren arabera.


Kirol-eremua	€	%
Eskola-kirola	9.490.847	2,3
Kirol egokitua	1.120.259	0,3
Goi-mailako lehiaketak	17.930.811	4,4
Kirol ekitaldiak	8.779.020	2,1
Bestelako kirol jarduerak	371.488.452	90,9
Guztira	408.809.389	100,0

Iturria: Siadeco, 2025.

³ Araban eta Bizkaian eskola-kirola kudeatzen duten kirol-klubek, guraso-elkartek edota ikastetxeek zuzenean jasotzen dute programa hori kudeatzeko dirua foru aldundietatik; aldiz, Gipuzkoan, Gipuzkoako Foru Aldundiak udalei transferitzen die diru hori eta ondoren, udal bakoitzak bere udalerrian eskola-kirolaz arduratzen den elkarteari edo klubari egiten dio transferentzia.

14. grafikoa.

Gastu likidatua kirolean gastuaren helburua eta erakunde-motaren arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2025.

23. taula.

Gastu likidatua kirolean gastuaren helburua eta erakunde-motaren arabera.

Kirol-eremua	Eusko Jaurlaritza		Foru Aldundiak		Udalak		Organismo autonomoak, sozietate publikoak eta fundazioak	
	€	%	€	%	€	%	€	%
Eskola-kirola	214.259	1,3	5.258.341	11,5	3.508.884	1,5	509.363	0,5
Kirol egokitua	38.331	0,2	398.451	0,9	488.140	0,2	195.336	0,2
Goi-mailako lehiaketak	7.379.596	43,3	1.172.862	2,6	1.857.349	0,8	7.521.004	6,9
Kirol ekitaldiak	109.518	0,6	639.173	1,4	4.568.285	1,9	3.462.044	3,2
Bestelako kirol jarduerak	9.301.238	54,6	38.309.026	83,7	226.295.563	95,6	97.582.625	89,3
Guztira	17.042.942	100,0	45.777.854	100,0	236.718.222	100,0	109.270.371	100,0

Iturria: Siadeco, 2025.

B.9 Kirol-gastuaren azterketa, kirol-eremuen arabera

Kirol-eremuen arabera, 2023ko kirol-gastu osoaren % 82,6 bi eremuk hartzen dute: multikirolak (% 58,7) eta bestelako kirolek (% 23,9). Guztira ia 337,6 milioi euro bideratzen dituzte haietara; 239,9 milioi euro multikiroletara eta 97,6 milioi euro bestelako kiroletara.

Multikirolaren kasuan, neurri handi batean eskola-kirolari eta kiroldegiei loturiko gastuak hartzen ditu. Bestelako kirolen gastuaren barruan, honakoak daude⁴:

- Gastuaren % 53 bestelako kirol-eremuetan sartuta ez dauden zuzendaritza- eta kudeaketa-gastuak dira.
- Gastuaren % 28 bestelako kirol-eremuetan sartuta ez dauden hornidura- eta mantenu-gastuak dira.
- Gastuaren % 10 inbertsioetara bideratutako diru-kopurua da.
- Gastuaren % 5,5 beste kirol batzuei dagokien gastua da: jarduera fisikoa, gimnasia, kirol egokitua, xakea, hipika, ehiza, arrantza, arkua, tiroa, halterofilia, aireko kirolak, neguko kirolak, , etab.
- Azkenik, gastuaren % 4 zehaztu gabekoa da.

Gainontzeko kirol-eremuei dagokienez, 2023an, batez ere, pilota kiroletarako jarri dute dirua EAEko erakundeek: ia 35,1 milioi euro (gastu osoaren % 8,6). Ur-kiroletarako ia 12,8 milioi euro (% 3,1) eta kirol portuetarako beste 10,7 milioi euro (% 2,6).

Kirol-gastu osoaren % 1 baino gutxiago bideratu dituzte beste kiroletara. Horien artean, 1 eta 4 milioi euro artean txirindularitzara (3,5 milioi euro), irristaketa-kiroletara (3 milioi euro), atletismo-kiroletara (ia 2,1 milioi euro), nabigazio-kiroletara (ia 1,4 milioi euro) eta mendiko kiroletara (1,1 euro). Eta gutxiago herri kiroletara (824 mila euro), borroka-kiroletara (536 mila euro) eta motor-kiroletara (197 mila euro).

Hauek dira EAEko administrazio publikoek baliabide gehien bideratu dituzten kirol-modalitateetan nabarmentzen diren aurrekontu-partidak:

Pilota kiroletan:

- Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaia Frontoiari egindako transferentzia arrunta (2 milioi euro)
- Gasteizko Udalak San Martin futbol zelaian egindako inbertsioa (669 mila euro)

Ur-kiroletan:

- Gasteizko Udalaren menpekoak diren igerilekuen mantenu-gastua (1,4 milioi euro)
- Abadiñoko igerilekuaren kudeaketa (808 mila euro)
- Abanto-Zierbenako igerilekuaren kudeaketa (795 mila euro)
- Derioko igerilekuaren sorospen-zerbitzua (565 mila euro)

⁴ Kontuan hartu behar da bestelako kiroletan pertsonal edo funtzionamendu gastuak egoteak ez duela esan nahi gainontzeko kirol-eremu bakoitzari dagokiona kirol-eremu horretan sartuta ez dagoenik.

Kirol-portuak:

- Euskadiko Kirol Portua, S.A. sozietate publikoaren hainbat partida nabarmentzen dira: material eta hornigaiari loturiko 1,4 milioi euroko partida bat, 1,4 milioi euroko inbertsioa materialetan edota marineltza zerbitzuaren kontratazioa, 1,1 milioi eurogatik.
- Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Kirol Portua, S.A. sozietate publikoari egindako transferentzia (1,4 milioi euro)
- Puerto Deportivo Abra-Getxo S.A. sozietate publikoaren 778,2 milioi euroko inbertsioa (ibilgetuaren amortizazioari dagokiona).

Txirrindularitza:


- Donostiako Udalak Bilbao Ekintza E.P.E.L. erakundeari egindako transferentzia Frantziako Tourraren Irteera Handia antolatzeko (750 mila euro)
- Eusko Jaurlaritzak Bilbao Ekintza E.P.E.L. erakundeari egindako transferentzia Frantziako Tourraren Irteera Handia antolatzeko (600 mila euro)

Irristaketa-kirolak:

- Gasteizko Udalaren izotz-pistaren alokatze-kontratua (872 mila euro)

15. grafikoa.

Gastu likidatua kirolean gastuaren kirol-eremuen arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2025.

24. taula.

Gastu likidatua kirolean kirol-eremuaren arabera.

Kirol-eremua	€	%
Atletismo kirolak	2.069.953	0,5
Borroka-kirolak	536.334	0,1
Herri kirolak	824.448	0,2
Irristaketa kirolak	3.033.332	0,7
Kirol portuak	10.719.707	2,6
Mendiko kirolak	1.144.589	0,3
Motor kirolak	197.109	0,0
Multikirola	239.948.856	58,7
Nabigazio-kirolak	1.388.821	0,3
Pilota kirolak	35.060.893	8,6
Txirrindularitza	3.505.298	0,9
Ur-kirolak	12.758.860	3,1
Bestelako kirolak	97.621.189	23,9
Guztira	408.809.389	100,0

Iturria: Siadeco, 2025.

25. taula.

Gastu likidatua kirolean kirol-eremuaren eta erakunde-motaren arabera (% bertikalak).

Kirol-eremua	Eusko Jaurlaritza		Foru Aldundiak		Udalak		Organismo autonomoak, Sozietate Publikoak eta Fundazioak		Guztira	
	€	%	€	%	€	%	€	%	€	%
Atletismo kirolak	87.614	0,5	396.927	0,9	803.950	0,3	781.461	0,7	2.069.953	0,5
Borroka-kirolak	0	0,0	201.040	0,4	204.746	0,1	130.548	0,1	536.334	0,1
Herri kirolak	383.310	2,2	145.247	0,3	217.552	0,1	78.339	0,1	824.448	0,2
Irristaketa kirolak	679.009	4,0	84.211	0,2	1.792.509	0,8	477.603	0,4	3.033.332	0,7
Kirol portuak	1.478.480	8,7	0	0,0	5.514	0,0	9.235.712	8,5	10.719.707	2,6
Mendiko kirolak	0	0,0	427.394	0,9	670.798	0,3	46.396	0,0	1.144.589	0,3
Motor kirolak	0	0,0	42.488	0,1	106.192	0,0	48.429	0,0	197.109	0,0
Multikirola	11.357.387	66,6	35.241.756	77,0	137.371.219	58,0	55.978.495	51,2	239.948.856	58,7
Nabigazio-kirolak	15.332	0,1	109.047	0,2	1.061.710	0,4	202.732	0,2	1.388.821	0,3
Pilota kirolak	600.711	3,5	5.364.973	11,7	21.774.306	9,2	7.320.903	6,7	35.060.893	8,6
Txirrindularitza	419.286	2,5	750.400	1,6	1.977.684	0,8	357.928	0,3	3.505.298	0,9
Ur-kirolak	218.049	1,3	1.332.769	2,9	9.506.245	4,0	1.701.796	1,6	12.758.860	3,1
Bestelako kirolak	1.803.764	10,6	1.681.601	3,7	61.225.796	25,9	32.910.029	30,1	97.621.189	23,9
Guztira	17.042.942	100,0	45.777.854	100,0	236.718.222	100,0	109.270.371	100,0	408.809.389	100,0

Iturria: Siadeco, 2025.

Kirol-eremu bakoitzerako dirua zer erakundek jarri duen ere aztertu da. 2023an, kirol horretara bideratutako gastu osoaren erdia baino gehiago udalek jarria da nabigazio-kiroletan (% 76,4), ur-kiroletan (% 74,5), bestelako kiroletan (% 62,7), pilota kiroletan (% 62,1), irristaketa-kiroletan (% 59,1), mendiko kiroletan (% 58,6); multikiroletan (% 57,3), txirrindularitzan (% 56,4) eta motor kiroletan (% 53,9).


2023an EAEko administrazio publikotik borroka-kiroletara eta mendiko-kiroletara bideratutako gastu osoaren heren bat baino gehiago jartzen dute foru aldundiek: kirol bakoitzaren gastu osoaren % 37,5. Bost eurotik bat pasatxo jarri du foru aldundiak motor-kirolen eta txirrindularitzaren kasuan; gastuaren % 21,6 eta % 21,4 finantziatu ditu, hurrenez hurren.

Eusko Jaurlaritzaren ekarpena bereziki esanguratsua da herri kirolen gastuan: % 46,5 hartzen du. Eta irristaketa-kiroletan ere pisu nabarmena du, gastuaren ia laurden bat jartzen baitu (% 22,4).

Organismo autonomoak, sozietate publikoak eta fundazioak kirol portuen gastuari ekarpen handiena egiten dien erakunde-mota da; hain zuzen, ia hamar eurotik bederatzi jartzen dituzte (10,7 milioi eurotik 9,2 milioi euro), kirol-portuak kudeatzen dituzten lau menpeko organismoen gastu-aurrekontuari dagokie eremuko gastu guztia (eta horietatik 7,4 milioi euro Euskadiko Kirol Portua, S.A.ri dagozkio, gainera). Atletismo-kiroletan eta bestelako kiroletan jartzen duten portzentajea ere esanguratsua da –gastuaren heren bat haiek jarritakoa da–.

16. grafikoa.

Gastu likidatua kirolean gastuaren helburua eta erakunde-motaren arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2025.

26. taula.

Gastu likidatua kirolean kirol-eremuaren eta erakunde-motaren arabera (% horizontalak).

Kirol-eremua	Eusko Jaurlaritza		Foru Aldundiak		Udalak		Organismo autonomoak, Sozietate Publikoak eta Fundazioak		Guztira	
	€	%	€	%	€	%	€	%	€	%
Atletismo kirolak	87.614	4,2	396.927	19,2	803.950	38,8	781.461	37,8	2.069.953	100,0
Borroka-kirolak	0	0,0	201.040	37,5	204.746	38,2	130.548	24,3	536.334	100,0
Herri kirolak	383.310	46,5	145.247	17,6	217.552	26,4	78.339	9,5	824.448	100,0
Irristaketa kirolak	679.009	22,4	84.211	2,8	1.792.509	59,1	477.603	15,7	3.033.332	100,0
Kirol portuak	1.478.480	13,8	0	0,0	5.514	0,1	9.235.712	86,2	10.719.707	100,0
Mendiko kirolak	0	0,0	427.394	37,3	670.798	58,6	46.396	4,1	1.144.589	100,0
Motor kirolak	0	0,0	42.488	21,6	106.192	53,9	48.429	24,6	197.109	100,0
Multikirola	11.357.387	4,7	35.241.756	14,7	137.371.219	57,3	55.978.495	23,3	239.948.856	100,0
Nabigazio-kirolak	15.332	1,1	109.047	7,9	1.061.710	76,4	202.732	14,6	1.388.821	100,0
Pilota kirolak	600.711	1,7	5.364.973	15,3	21.774.306	62,1	7.320.903	20,9	35.060.893	100,0
Txirrindularitza	419.286	12,0	750.400	21,4	1.977.684	56,4	357.928	10,2	3.505.298	100,0
Ur-kirolak	218.049	1,7	1.332.769	10,4	9.506.245	74,5	1.701.796	13,3	12.758.860	100,0
Bestelako kirolak	1.803.764	1,8	1.681.601	1,7	61.225.796	62,7	32.910.029	33,7	97.621.189	100,0
Guztira	17.042.942	4,2	45.777.854	11,2	236.718.222	57,9	109.270.371	26,7	408.809.389	100,0

Iturria: Siadeco, 2025.

2018-2023 bilakaera

Bilakaerari dagokionez, multikirolak kirol-gastuaren zatirik handiena hartzen jarraitzen du, nahiz eta erakundeen artean joera ezberdina izan duen diru-kopuru horrek. Foru aldundien kasuan pisua irabazi du kirol-eremu horrek –kirol-gastuaren % 40,2 izatetik % 77,0 izatera–; kopuru absolututan ere igoera nabarmena izan du 11,5 milioi eurotik 35,2 milioi eurora. Gainontzeko hiru kasutan pisua galdu du multikirolak, udalen eta Eusko Jaurlaritzaren kasuan diru-kopurua igoz, baina erakunde autonomoen kasuan, aldiz, gastua ia laurden bat murriztuz –72,4 milioi eurotik 56 milioi eurora–.

Bigarren multzorik handiena bestelako kirol jarduerena da 2023an, batez ere udalen eta erakunde autonomoen kasuan: udaletan, gastuaren % 8,7 izatetik % 25,9 izatera pasa dira; eta erakunde autonomoetan, aldiz, % 5,3tik % 30,1era. Kopuru absolututan, gainera, bi erakundeek kirol-eremu honetan egindako gastuak igoera handia izan du: 49 milioi eurokoa udaletan, eta 27 milioi eurokoa erakunde autonomoetan. Foru aldundietan, ordea, % 30,2ko pisua izatetik % 3,7koa izatera pasa da 2023an eta ia 7 milioi euro gutxiago jaso ditu.

Gainontzean, nabarmentzekoa da pilota kirolek bideratutako gastua jaitsi egin dela Eusko Jaurlaritzaren eta erakunde autonomoen kasuan –baita horietara bideratutako gastuaren pisua ere–, eta nabarmen igo da udalen kasuan –15 milioi euro inguru gehiago jaso dute udaletatik–.

27. taula.


Gastu likidatuaren bilakaera kirolean kirol-eremuaren eta erakunde-motaren arabera.

Kirol-eremua	Urtea	Eusko Jaurlaritza		Foru Aldundiak		Udalak		Organismo autonomoak, Sozietate Publikoak eta Fundazioak	
		€	%	€	%	€	%	€	%
Atletismo kirolak	2018	405.404	3,0	1.505.440	5,2	3.776.068	3,0	106.697	0,1
	2023	87.614	0,5	396.927	0,9	752.091	0,3	781.461	0,7
	Bilakaera %	-78,4		-73,6		-80,1		632,4	
Borroka-kirolak	2018	0	0,0	211.391	0,7	82.310	0,1	0	0,0
	2023	0	0,0	201.040	0,4	165.806	0,1	130.548	0,1
	Bilakaera %	-		-4,9		101,4		-	
Herri kirolak	2018	401.970	2,9	752.803	2,6	815.975	0,6	19.030	0,0
	2023	383.310	2,2	145.247	0,3	164.076	0,1	78.339	0,1
	Bilakaera %	-4,6		-80,7		-79,9		311,7	
Irristaketa kirolak	2018	0	0,0	241.796	0,8	216.551	0,2	55.611	0,0
	2023	679.009	4,0	84.211	0,2	1.774.502	0,8	477.603	0,4
	Bilakaera %	-		-65,2		719,4		758,8	
Kirol portuak	2018	-	-	-	-	-	-	-	-
	2023	1.478.480	8,7	0	0,0	5.514	0,0	9.235.712	8,5
	Bilakaera %	-		-		-		-	
Mendiko kirolak	2018	-	-	-	-	-	-	-	-
	2023	0	0,0	427.394	0,9	568.009	0,3	46.396	0,0
	Bilakaera %	-		-		-		-	
Motor kirolak	2018	0	0,0	95.081	0,3	66.610	0,1	0	0,0
	2023	0	0,0	42.488	0,1	91.363	0,0	48.429	0,0
	Bilakaera %	-		-55,3		37,2		-	
Multikirola	2018	9.969.584	72,8	11.533.130	40,2	102.347.549	81,2	72.380.876	64,6
	2023	11.357.387	66,6	35.241.756	77,0	131.182.406	58,0	55.978.495	51,2
	Bilakaera %	13,9		205,6		28,2		-22,7	
Nabigazio-kirolak	2018	0	0,0	1.129.842	3,9	174.003	0,1	363.364	0,3
	2023	15.332	0,1	109.047	0,2	740.139	0,4	202.732	0,2
	Bilakaera %	-		-90,3		325,4		-44,2	
Pilota kirolak	2018	2.533.390	18,5	3.931.039	13,7	4.369.094	3,5	33.031.564	29,5
	2023	600.711	3,5	5.364.973	11,7	20.562.314	9,2	7.320.903	6,7
	Bilakaera %	-76,3		36,5		370,6		-77,8	
Txirrindularitza	2018	-	-	-	-	-	-	-	-
	2023	419.286	2,5	750.400	1,6	1.831.935	0,8	357.928	0,3
	Bilakaera %	-		-		-		-	
Ur-kirolak	2018	84.140	0,6	624.657	2,2	3.198.800	2,5	143.928	0,1
	2023	218.049	1,3	1.332.769	2,9	9.193.299	4,0	1.701.796	1,6
	Bilakaera %	159,2		113,4		187,4		1.082,4	
Bestelako kirolak	2018	308.440	2,3	8.651.469	30,2	10.932.497	8,7	5.967.706	5,3
	2023	1.803.764	10,6	1.681.601	3,7	59.565.621	25,9	32.910.029	30,1
	Bilakaera %	484,8		-80,6		444,8		451,5	
Guztira	2018	13.702.927	100,0	28.676.646	100,0	125.979.455	100,0	112.068.775	100,0
	2023	17.042.942	100,0	45.777.854	100,0	226.597.075	100,0	109.270.371	100,0
	Bilakaera %	24,4		59,6		79,9		-2,5	

Iturria: Siadeco, 2025.

C

ADMINISTRAZIO-MAILEN ARABERAKO KIROL-GASTUA



C.1 Transferentzia-fluxuak administrazio-mailen arabera


Kirol-gastua administrazio-mailen arabera aztertzerakoan, administrazio bakoitzaren (kasu honetan, Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak eta udalak) eta haien menpeko organismo autonomoen, sozietate publikoen eta fundazioen gastu zuzenak hartzen dira kontuan.

Atal honetan, partiden bikoizketa saiheste aldera, administrazio-maila bakoitzeko gastuaren kontsolidazioa egin da, eta horri esker, administrazio-maila bakoitzak kirolean egiten duen gastuaren deskribapen zehatzago bat izango dugu, maila bakoitzaren deszentralizazio-maila edozein dela ere.

2023an EAEko administrazioek haien menpeko erakundeei egindako transferentzien batura 66,1 milioi eurokoa izan da. Transferentzia guztien baturaren % 86,2 udalek eginak dira (56,9 milioi euro); 5,9 milioi transferitu dituzte foru aldundiek; eta Eusko Jaurlaritzak, aldiz, 3,3 milioi euro.

17. grafikoa.

EAEko erakunde publikoek kirol arloko menpeko erakundeetara egindako transferentziak (€)



Iturria: Siadeco, 2025.

28. taula.

EAEko erakunde publikoek kirol arloko menpeko erakundeetara egindako administrazio-mailako transferentziak (€)

Erakunde-mota	€	%
Eusko Jaurlaritza	3.281.855	5,0
Foru aldundiak	5.853.170	8,9
Udalak	56.925.818	86,2
Guztira	66.060.843	100,0


Iturria: Siadeco, 2025.

Behin administrazio-mailako kontsolidazioa eginda, 342,7 milioi euroko kirol-gastu kontsolidatua egin dute EAEko erakundeek 2023an: % 79,5 udalei dagokie (272,5 milioi euro), % 13,5 foru aldundiei (46,4 milioi euro) eta % 7,0 Eusko Jaurlaritzari (23,9 milioi euro).

Biztanleko kirol-gastu kontsolidatua 156 eurokoa da, eta ratorik altuena udalek dute: 124 euro/biztanleko. Beste erakundeekiko aldea nabarmena da, gainera: foru aldundietan 21,1 euro gastatzen dituzte biztanleko, eta Eusko Jaurlaritzan, berriz, 10,9 euro/biztanleko.

18. grafikoa.


Administrazio-mailako gastu kontsolidatua kirolean, erakunde-motaren arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2025.

19. grafikoa.

Administrazio-mailako biztanleko gastu kontsolidatua kirolean, erakunde-motaren arabera (€/biztanle).



Iturria: Siadeco, 2025.

29. taula.

Administrazio-mailako gastu kontsolidatua kirolean, erakunde-motaren arabera.

Erakunde-mota	€	%	€/biztanle
Eusko Jaurlaritza	23.869.645	6,96	10,9
Foru Aldundiak	46.394.299	13,54	21,1
Udalak	272.484.602	79,50	124,0
Guztira	342.748.546	100,00	156,0

Iturria: Siadeco, 2025.

C.2 Kirol-gastua kapitulu ekonomikoaren eta administrazio-mailaren arabera

C.2.1. Erakunde-motaren arabera

2023ko kirol-gastu kontsolidatuan zatirik handiena gastu arruntak hartzen du administrazio-maila guztietan: udalen kasuan % 83,5 da, % 65,0 foru aldundietan eta % 72,1, Eusko Jaurlaritzan. Kopuru absolututan, aldiz, alde nabarmenak daude: udalek 227,4 milioi euro bideratu dituzte 2023an (103,5 euro/biztanle); foru aldundiek 30,2 milioi euro (13,7 euro/biztanle); eta Eusko Jaurlaritzak 17,2 milioi euro (7,8 euro/biztanle).

Gastu hori xehetasun handiagoarekin aztertuz gero, udalek gastu arruntera bideratutako 227,4 milioi horietatik bi heren baino gehiago hartzen du II. kapituluak, hau da, ondasun arruntek eta zerbitzuek (156,4 milioi euro) eta ia laurden bat pertsonal gastuek (48,9 milioi euro). Foru aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren gastu arruntean pisu handiena duen kapitulu ekonomikoa laugarrena da, transferentzia arruntei dagokiena: diputazioek 20,2 milioi euro jartzen dituzte (gastu osoaren % 43,5) eta Jaurlaritzak, 7,8 milioi euro (% 32,7). Eta bi erakundetan jarraian daude ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak: Jaurlaritzan du pisurik handiena (% 28,6, 6,8 milioi euro); eta foru aldundietan gutxiago, antzeko zenbatekoarekin (% 14,7, 6,8 milioi euro).


Kapital gastuari dagokionez, alderantziz: foru aldundien kirol-gastuan du pisu gehien, % 35,0; Eusko Jaurlaritzakoan % 22,5 da; eta udaletako gastuan % 16,5. Hala ere, kopuru absolututan udalek bideratzen dute kopururik handiena –orotara eta biztanleko–: guztira 45,1 milioi euro eta 20,5 euro biztanleko. Foru aldundiek, gero: guztira 16,2 milioi euro eta 7,4 euro biztanleko. Eta Jaurlaritzak jartzen du kopururik txikiena: guztira 5,4 milioi euro eta 2,4 euro biztanleko.

Kasu honetan, inbertsio errealetarako erabiltzen dute kapital gastu ia osoa udalek (48,9 milioi euro) eta Jaurlaritzako gastuaren zati oso handi bat (4,8 milioi euro). Foru aldundiek, berriz, dirulaguntzak ematen dituzte inbertsio horiek egin daitezen: kapital gastuaren % 97,3 dagokio VII. kapituluari (15,8 milioi euro).

Finantza-aktiboek eta pasiboek % 5,4ko pisua dute Eusko Jaurlaritzaren kirol-gastuan: guztira 1,3 milioi euro eta 0,6 euro biztanleko. Udaletan ere badago halako gasturik, baina ez da % 0,1era ere iristen (5 mila euro inguru).

20. grafikoa.

Administrazio-mailako kirol-gastu kontsolidatua izaera ekonomikoaren eta erakunde-motaren arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2025.

30. taula.

Administrazio-mailako kirol-gastu kontsolidatua izaera ekonomikoaren eta erakunde-motaren arabera.

Izaera ekonomikoa	Eusko Jaurlaritza		Foru Aldundiak		Udalak	
	€	%	€	%	€	%
Gastu arrunta	17.219.111	72,1	30.170.649	65,0	227.413.159	83,5
Kapital gastua	5.362.409	22,5	16.223.650	35,0	45.066.034	16,5
Finantza-aktiboak eta pasiboak	1.288.125	5,4	0	0,0	5.409	0,0
Guztira	23.869.645	100,0	46.394.299	100,0	272.484.602	100,0

Iturria: Siadeco, 2025.

31. taula.

Administrazio-mailako kirol-gastu kontsolidatua biztanleko, izaera ekonomikoaren eta erakunde-motaren arabera (€/biztanle)

Izaera ekonomikoa	Eusko Jaurlaritza	Foru Aldundiak	Udalak
Gastu arrunta	7,8	13,7	103,5
Kapital gastua	2,4	7,4	20,5
Finantza-aktiboak eta pasiboak	0,6	0,0	0,0
Guztira	10,9	21,1	124,0

Iturria: Siadeco, 2025.

32. taula.

Administrazio-mailako kirol-gastu kontsolidatua kapitulu ekonomikoaren eta erakunde-motaren arabera.

Izaera ekonomikoa	Eusko Jaurlaritza		Foru Aldundiak		Udalak	
	€	%	€	%	€	%
I. Pertsonal gastuak	2.590.502	10,9	3.185.546	6,9	48.896.313	17,9
II. Ondasun arruntak eta zerbitzuak	6.818.169	28,6	6.818.571	14,7	156.358.965	57,4
III. Finantza gastuak	6.049	0,0	32	0,0	74.894	0,0
IV. Transferentzia arruntak	7.804.392	32,7	20.166.500	43,5	22.082.987	8,1
VI. Inbertsio errealak	4.796.802	20,1	435.556	0,9	43.646.258	16,0
VII. Kapital transferentziak	565.607	2,4	15.788.094	34,0	1.419.776	0,5
VIII. Finantza aktiboak	1.288.125	5,4	0	0,0	5.409	0,0
Guztira	23.869.645	100,0	46.394.299	100,0	272.484.602	100,0

Iturria: Siadeco, 2025.

33. taula.

Administrazio-mailako kirol-gastu kontsolidatua biztanleko, kapitulu ekonomikoaren eta erakunde-motaren arabera (€/biztanle).

Izaera ekonomikoa	Eusko Jaurlaritza	Foru Aldundiak	Udalak
I. Pertsonal gastuak	1,2	1,5	22,3
II. Ondasun arruntak eta zerbitzuak	3,1	3,1	71,2
III. Finantza gastuak	0,0	0,0	0,0
IV. Transferentzia arruntak	3,6	9,2	10,1
VI. Inbertsio errealak	2,2	0,2	19,9
VII. Kapital transferentziak	0,3	7,2	0,6
VIII. Finantza aktiboak	0,6	0,0	0,0
Guztira	10,9	21,1	124,0

Iturria: Siadeco, 2025.

C.2.2. Udalerrien lurraldearen arabera

Udalak lurraldearen arabera banatuz gero, Arabako udaletan du pisurik handiena gastu arruntak (% 90,6). Gipuzkoa bigarren lekuan dago (% 85,5), eta Bizkaia, gero (% 79,6). Gainontzekoa kapital gastura bideratzen dute; proportzioan, Bizkaian inbertitzen da gehien: kirol-gastu kontsolidatuaren bost eurotik bat.

Kopuru absolututan, baina, Bizkaiak du gasturik altuena, bai gastu arruntari dagokionez, baita kapital gastuan ere: 107,7 milioi euro eta 27,6 milioi euro, hurrenez hurren. Gainera, finantza-aktiboetara eta pasiboetara diru-kopuru txiki bat bideratzen duen lurralde bakarra da: 5 mila euro inguru. Gipuzkoako udalek 76,2 milioi euro jartzen dituzte gastu arrunterako eta 12,9 milioi euro kapital gasturako; eta Arabakoek, 43,5 milioi euro eta 4,5 milioi euro, hurrenez hurren.


Eta biztanleko ratioa kontuan hartuz gero, Arabako udalek jartzen dute diru gehien biztanleko: 144,3 euro, horietatik 130,8 euro gastu arrunterako eta 13,5 kapital gasturako. Gipuzkoako udalek 123,8 euro/biztanle (105,8 euro gastu arrunterako eta 17,9 kapital gasturako), eta Bizkaikoek, berriz, 118,3 euro/biztanle (94,1 euro eta 24,2 euro).

Gastu arruntak kapituluka aztertuta, II. kapituluak hartzen du gastu osoaren ehunekorik altuena lurralde guztietan; udaletako kirol-gastu kontsolidatuaren erdia baino gehiago doa ondasun arruntak eta zerbitzuak ordaintzera: Araban % 59,5 (28,6 milioi euro), Bizkaian % 57,1 (77,3 milioi euro) eta Gipuzkoan % 56,7 (50,5 milioi euro). Proportzioan diru gehien jasotzen duen bigarren partida pertsonal gastuena da Araban (% 27,5, 13,2 milioi euro) eta Gipuzkoan (% 16,7, 14,8 milioi euro). Bizkaiaren kasuan hirugarren kokatzen da pertsonal gastua (% 15,4), nahiz eta jarritako diru-kopurua handiagoa izan (20,9 milioi euro).

Izan ere, udal bizkaitarretan kapital gastuei dagokio bigarren partidarik handiena; inbertsio errealetara doa kirol-gastuaren % 20,3 (27,5 milioi euro). Hiru lurraldeetan inbertsio errealek hartzen dute kapital gastuaren % 90etik gora.

21. grafikoa.

Udaletako kirol-gastu kontsolidatua izaera ekonomikoaren eta lurraldearen arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2025.

34. taula.

Udaletako kirol-gastu kontsolidatua izaera ekonomikoaren eta lurraldearen arabera.

Izaera ekonomikoa	Araba		Gipuzkoa		Bizkaia		Guztira	
	€	%	€	%	€	%	€	%
Gastu arrunta	43.549.836	90,6	76.171.614	85,5	107.691.710	79,6	227.413.159	83,5
Kapital gastua	4.496.919	9,4	12.918.841	14,5	27.650.274	20,4	45.066.034	16,5
Finantza-aktiboak eta pasiboak	0	0,0	0	0,0	5.409	0,0	5.409	0,0
Guztira	48.046.755	100,0	89.090.454	100,0	135.347.393	100,0	272.484.602	100,0

Iturria: Siadeco, 2025.

35. taula.

Udaletako kirol-gastu kontsolidatua biztanleko, izaera ekonomikoaren eta erakunde-motaren arabera (€/biztanle)

Izaera ekonomikoa	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Guztira
Gastu arrunta	130,8	105,8	94,1	103,5
Kapital gastua	13,5	17,9	24,2	20,5
Finantza-aktiboak eta pasiboak	0,0	0,0	0,0	0,0
Guztira	144,3	123,8	118,3	124,0

Iturria: Siadeco, 2025.

36. taula.

Udaletako kirol-gastu kontsolidatua izaera ekonomikoaren eta lurraldearen arabera.

Izaera ekonomikoa	Araba		Gipuzkoa		Bizkaia		Guztira	
	€	%	€	%	€	%	€	%
I. Pertsonal gastuak	13.190.199	27,5	14.834.390	16,7	20.871.724	15,4	48.896.313	17,9
II. Ondasun arruntak eta zerbitzuak	28.598.882	59,5	50.495.114	56,7	77.264.969	57,1	156.358.965	57,4
III. Finantza gastuak		0,0	42.828	0,0	32.066	0,0	74.894	0,0
IV. Transferentzia arruntak	1.760.755	3,7	10.799.282	12,1	9.522.950	7,0	22.082.987	8,1
VI. Inbertsio errealak	4.496.919	9,4	11.685.124	13,1	27.464.214	20,3	43.646.258	16,0
VII. Kapital transferentziak		0,0	1.233.716	1,4	186.060	0,1	1.419.776	0,5
VIII. Finantza aktiboak		0,0		0,0	5.409	0,0	5.409	0,0
Guztira	48.046.755	100,0	89.090.454	100,0	135.347.393	100,0	272.484.602	100,0

Iturria: Siadeco, 2025.

37. taula.

Udaletako kirol-gastu kontsolidatua biztanleko, kapitulu ekonomikoaren eta erakunde-motaren arabera (€/biztanle).

Izaera ekonomikoa	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Guztira
I. Pertsonal gastuak	39,6	20,6	18,2	22,3
II. Ondasun arruntak eta zerbitzuak	85,9	70,1	67,5	71,2
III. Finantza gastuak	0,0	0,1	0,0	0,0
IV. Transferentzia arruntak	5,3	15,0	8,3	10,1
VI. Inbertsio errealak	13,5	16,2	24,0	19,9
VII. Kapital transferentziak	0,0	1,7	0,2	0,6
VIII. Finantza aktiboak	0,0	0,0	0,0	0,0
Guztira	144,3	123,8	118,3	124,0

Iturria: Siadeco, 2025.

C.2.3. Udalerri-tamainaren arabera

Udalerriaren tamainaren arabera, 5.000 biztanlez gaindiko udalerrietako gastua da 2023ko udaletako kirol-gastuaren % 90 baino gehiago.

Gastu kontsolidatu horretan, gastu arruntak % 87,1 eta % 77,8 arteko pisua du: hiriburuak ez diren 20.000 biztanletik gorako udalerrien kirol-gastuan du gastu arruntak pisurik altuena, eta 5.000 eta 20.000 arteko udalerrietan, berriz, baxuena. Tartean daude hiriburuak (% 86,1) eta 5.000 biztanletik beherako udalerriak (% 82,4). Gainontzekoa kapital gastua da: 5.000 biztanlez azpiko udaletan % 17,6; 5.000 eta 20.000 biztanle artekoetan % 22,2; 20.000 biztanlez gaindikoetan % 12,9; eta hiriburuetan, % 13,9.

Kopuru absolututan hiriburuak dute gastu arruntik altuena, 75 milioi euro. Ondoren, oso gertu daude 20.000 biztanlez gaindiko udalerriak eta hortik behera 5.000 artekoak: 66,3 milioi euro eta 65,5 milioi euro, hurrenez hurren. Nabarmen gutxiago da 5.000 biztanlez azpikoek bideratzen duten kopurua: 20,6 milioi euro. Aldiz, kapital gastuaren zenbatekorik handiena 5.000 eta 20.000 biztanle arteko udalek dute: 18,7 milioi euro. Hiriburuak daude gero 12,2 milioi euroekin; 20.000 biztanletik gorakoak hirugarren 9,8 milioi euroekin; eta 5.000 biztanletik beherakoak laugarren 4,4 milioi euroekin.


Biztanleko ratioei dagokienez, 5.000 eta 20.000 biztanle artekoek jartzen dute diru-kopururik handiena biztanleko (149,8 euro); altuena da bai gastu arruntarena (116,6 euro), baita kapital gastuarena ere (33,2 euro). 20.000 biztanletik gorakoek 118,9 euro jartzen dituzte biztanleko (103,6 euro gastu arrunterako eta 15,3 kapital gasturako); 5.000 biztanlez azpikoek 113,8 euro/biztanle (93,7 euro eta 20,1 euro); eta azkenik, hiriburuak 112,5 euro/biztanle (96,8 euro eta 15,7 euro).

Kapituluka aztertuta, bigarrenak, hau da, ondasun arruntek eta zerbitzuek hartzen dute gastu osoaren % 54tik gora –gastu arruntaren bi heren baino gehiago–: 5.000 biztanlez azpiko udaletan % 62,4 (15,6 milioi euro), 20.000 biztanletik gorakoetan % 59,3 (45,1 milioi euro); hiriburuetan % 57,1 (49,8 milioi euro) eta 20.000 biztanle arteko udalerrietan % 54,4 (45,8 milioi euro). 20.000 biztanletik gorako udalerrietan –hiriburuak, barne– gastuaren bigarren zatirik handiena pertsonal gastuek hartzen dute, hau da, I. Kapitulua: % 25,7 hiriburuaren kasuan (22,4 milioi euro) eta % 18,9 20.000 biztanletik gorako udalerrietan (14,4 milioi euro). Hortik beherako udalerrietan, berriz, pisu txikiagoa dute: % 11,7 5.000 eta 20.000 artekoetan (9,9 milioi euro) eta % 8,8 5.000 biztanlez azpikoetan (2,2 milioi euro).

Bi kasu hauetan proportzioan diru gehiago jartzen dute inbertsio errealetarako: gastu osoaren % 21,7 5.000 eta 20.000 biztanle arteko udaletan; eta % 17,6 5.000 biztanlez azpikoetan. Hiriburuetan % 13 da (11,3 milioi euro) eta 20.000 biztanletik gorako udaletan % 12,6 (9,6 milioi euro). Edozein kasutan, inbertsio errealek hartzen dute kapital gastuaren % 93tik gora.

22. grafikoa.

Udaletako kirol-gastu kontsolidatua izaera ekonomikoaren eta udalerri-tamainaren arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2025.

38. taula.

Udaletako kirol-gastu kontsolidatua izaera ekonomikoaren eta udalerri-tamainaren arabera.

Izaera ekonomikoa	< 5.000 biztanle		5.000 - 20.000 biztanle		> 20.000 biztanle		Hiriburuak		Guztira	
	€	%	€	%	€	%	€	%	€	%
Gastu arrunta	20.562.760	82,4	65.516.286	77,8	66.307.757	87,1	75.026.355	86,1	227.413.159	83,5
Kapital gastua	4.404.167	17,6	18.682.238	22,2	9.820.149	12,9	12.159.481	13,9	45.066.034	16,5
Finantza-aktiboak eta pasiboak	0	0,0	5.409	0,0	0	0,0	0	0,0	5.409	0,0
Guztira	24.966.927	100,0	84.203.933	100,0	76.127.906	100,0	87.185.836	100,0	272.484.602	100,0

Iturria: Siadeco, 2025.

39. taula.

Udaletako kirol-gastu kontsolidatua biztanleko, izaera ekonomikoaren eta udalerri-tamainaren arabera (€/biztanle)

Izaera ekonomikoa	< 5.000 biztanle	5.000 - 20.000 biztanle	> 20.000 biztanle	Hiriburuak	Guztira
Gastu arrunta	93,7	116,6	103,6	96,8	103,5
Kapital gastua	20,1	33,2	15,3	15,7	20,5
Finantza-aktiboak eta pasiboak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Guztira	113,8	149,8	118,9	112,5	124,0

Iturria: Siadeco, 2025.

40. taula.

Udaletako kirol-gastu kontsolidatua kapitulu ekonomikoaren eta udalerri-tamainaren arabera.

Izaera ekonomikoa	< 5.000 biztanle		5.000 - 20.000 biztanle		> 20.000 biztanle		Hiriburuak		Guztira	
	€	%	€	%	€	%	€	%	€	%
I. Pertsonal gastuak	2.208.344	8,8	9.867.405	11,7	14.402.705	18,9	22.417.858	25,7	48.896.313	17,9
II. Ondasun arruntak eta zerbitzuak	15.589.497	62,4	45.830.790	54,4	45.129.274	59,3	49.809.404	57,1	156.358.965	57,4
III. Finantza gastuak	0	0,0	24.833	0,0	4.710	0,0	45.351	0,1	74.894	0,0
IV. Transferentzia arruntak	2.764.919	11,1	9.793.258	11,6	6.771.068	8,9	2.753.742	3,2	22.082.987	8,1
VI. Inbertsio errealak		17,6	18.266.069	21,7	9.630.149	12,6	11.351.021	13,0	43.646.258	16,0
VII. Kapital transferentziak	5.147	0,0	416.169	0,5	190.000	0,2	808.460	0,9	1.419.776	0,5
VIII. Finantza aktiboak	0	0,0	5.409	0,0	0	0,0	0	0,0	5.409	0,0
Guztira	24.966.927	100,0	84.203.933	100,0	76.127.906	100,0	87.185.836	100,0	272.484.602	100,0

Iturria: Siadeco, 2025.

41. taula.

Udaletako kirol-gastu kontsolidatua biztanleko, kapitulu ekonomikoaren eta udalerri-tamainaren arabera (€/biztanle).

Izaera ekonomikoa	< 5.000 biztanle	5.000 - 20.000 biztanle	> 20.000 biztanle	Hiriburuak	Guztira
I. Pertsonal gastuak	10,1	17,6	22,5	28,9	22,3
II. Ondasun arruntak eta zerbitzuak	71,1	81,5	70,5	64,3	71,2
III. Finantza gastuak	0,0	0,0	0,0	0,1	0,0
IV. Transferentzia arruntak	12,6	17,4	10,6	3,6	10,1
VI. Inbertsio errealak	20,1	32,5	15,0	14,6	19,9
VII. Kapital transferentziak	0,0	0,7	0,3	1,0	0,6
VIII. Finantza aktiboak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Guztira	113,8	149,8	118,9	112,5	124,0

Iturria: Siadeco, 2025.

C.3 Kirol-gastua, helburuaren eta administrazio-mailaren arabera

C.3.1. Erakunde-motaren arabera

Helburuaren arabera, bestelako jardueretara joan da 2023ko kirol-gastu kontsolidatuaren hamarretik ia bederatzia euro (% 89,8). Udaletako gastu kontsolidatuan du pisu gehien helburu horrek (% 94,7); guztira, 258 milioi euro eta 117,5 euro biztanleko. Foru aldundietako gastu kontsolidatuaren hiru laurden bideratu dute horretara (34,1 milioi euro), eta Eusko Jaurlaritzak, aldiz, bi heren (15,6 milioi euro) –15,5 euro eta 7,1 euro biztanleko, hurrenez hurren–.


Nahiz eta txikia izan, udalen gastu kontsolidatuan pisu handixeagoa hartzen dute kirol ekitaldiek (% 2,9): denera, 8 milioi euro eta 3,6 euro biztanleko. Foru aldundien kasuan, ehuneko handiago bat goi-mailako lehiaketak (% 12,6) eta eskola-kirola (% 11,5) finantzatzeko erabiltzen dute, eta kopuru absolututan ere zertxobait gehiago da: lehiaketetara 5,9 milioi euro, 2,7 euro biztanleko; eta eskola-kirolerako 5,3 milioi euro, 2,4 euro biztanleko. Eta Jaurlaritzaren kasuan, gastuaren heren bat hartzen dute goi-mailako lehiaketek: guztira 7,9 milioi euro, 3,6 euro biztanleko.

42. taula.
Administrazio-mailako gastu kontsolidatua kirolean, gastuaren helburuaren arabera.

Erakunde-mota	€	%
Eskola-kirola	9.490.847	2,8
Kirol egokitua	1.120.259	0,3
Goi-mailako lehiaketak	15.554.955	4,5
Kirol ekitaldiak	8.779.020	2,6
Bestelako kirol jarduerak	307.658.634	89,8
Guztira	342.748.546	100,0

Iturria: Siadeco, 2025.

23. grafikoa.
Administrazio-mailako gastu kontsolidatua kirolean, gastuaren helburuaren arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2025.

43. taula.

Administrazio-mailako gastu kontsolidatua kirolean, gastuaren helburuaren eta entitate-motaren arabera.

Izaera ekonomikoa	Eusko Jaurlaritza		Foru Aldundiak		Udalak	
	€	%	€	%	€	%
Eskola-kirola	214.259	0,9	5.315.352	11,5	3.961.236	1,5
Kirol egokitua	118.420	0,5	476.607	1,0	525.232	0,2
Goi-mailako lehiaketak	7.872.127	33,0	5.855.940	12,6	1.971.719	0,7
Kirol ekitaldiak	109.518	0,5	676.426	1,5	7.993.077	2,9
Bestelako kirol jarduerak	15.555.321	65,2	34.069.974	73,4	258.033.339	94,7
Guztira	23.869.645	100,0	46.394.299	100,0	272.484.602	100,0

Iturria: Siadeco, 2025.

44. taula.

Administrazio-mailako gastu kontsolidatua kirolean, gastuaren helburuaren eta entitate-motaren arabera.

Izaera ekonomikoa	Eusko Jaurlaritza	Foru Aldundiak	Udalak
Eskola-kirola	0,1	2,4	1,8
Kirol egokitua	0,1	0,2	0,2
Goi-mailako lehiaketak	3,6	2,7	0,9
Kirol ekitaldiak	0,0	0,3	3,6
Bestelako kirol jarduerak	7,1	15,5	117,5
Guztira	10,9	21,1	124,0


Iturria: Siadeco, 2025.

C.3.2. Udalerrien lurraldearen arabera

Udalerriak lurraldearen arabera banatuta, hiru lurraldeetan bestelako jardueretara bideratu da 2023ko kirol-gastu kontsolidatu ia osoa: Bizkaian % 95,6, Araban % 95,3 eta Gipuzkoan % 92,9. Kopuru absolututan Bizkaiak jartzen du kopururik handiena, 129,5 milioi euro; Gipuzkoak 82,8 milioi euro jartzen ditu; eta Arabak, aldiz, 45,8 milioi euro. Eta biztanleko Arabak bideratzen du diru gehien bestelako jardueretara (137,5), Gipuzkoak 115 euro/biztanle eta Bizkaiak gutxien, 113,2 euro/biztanle.

Gainontzeko helburuek oso pisu txikia dute hiru lurraldeetako udalen gastu kontsolidatu osoan, % 3,5etik beherakoa, hain justu: Bizkaian % 3,5 bideratzen dute kirol ekitaldietara (4,8 milioi euro eta 4,2 euro biztanleko); Gipuzkoan % 3,3 jartzen dute eskola-kirolerako (2,9 milioi euro eta 4 euro biztanleko) eta % 3 kirol ekitaldietarako (2,6 milioi euro eta 3,7 euro biztanleko); eta Araban % 1,9ko gastua goi-mailako lehiaketatarako da (930 mila euro eta 2,8 euro biztanleko).

24. grafikoa. Udaletako kirol-gastu kontsolidatua, gastuaren helburuaren eta lurraldearen arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2025.

45. taula. Udaletako kirol-gastu kontsolidatua, gastuaren helburuaren eta lurraldearen arabera.

Izaera ekonomikoa	Araba		Gipuzkoa		Bizkaia		Guztira	
	€	%	€	%	€	%	€	%
Eskola-kirola	380.697	0,8	2.902.964	3,3	677.575	0,5	3.961.236	1,5
Kirol egokitua	360.975	0,8	108.410	0,1	55.847	0,0	525.232	0,2
Goi-mailako lehiaketak	930.496	1,9	651.454	0,7	389.770	0,3	1.971.719	0,7
Kirol ekitaldiak	593.402	1,2	2.632.846	3,0	4.766.828	3,5	7.993.077	2,9
Bestelako kirol jarduerak	45.781.185	95,3	82.794.781	92,9	129.457.372	95,6	258.033.339	94,7
Guztira	48.046.755	100,0	89.090.454	100,0	135.347.393	100,0	272.484.602	100,0

Iturria: Siadeco, 2025.

46. taula.

Administrazio-mailako gastu kontsolidatua kirolean, gastuaren helburuaren eta entitate-motaren arabera (€/biztanle)

Izaera ekonomikoa	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Guztira
Eskola-kirola	1,1	4,0	0,6	1,8
Kirol egokitua	1,1	0,2	0,0	0,2
Goi-mailako lehiaketak	2,8	0,9	0,3	0,9
Kirol ekitaldiak	1,8	3,7	4,2	3,6
Bestelako kirol jarduerak	137,5	115,0	113,2	117,5
Guztira	144,3	123,8	118,3	124,0

Iturria: Siadeco, 2025.

C.3.3. Udaljerri-tamainaren arabera

Udaljerrien tamainaren arabera joera ez da aldatzen: biztanle-kopurua edozein dela ere, 2023ko kirol-gastu kontsolidatuaren % 92tik gora bestelako kirol jardueretara bideratzen dute. Hain zuzen, 20.000 biztanletik gorakoek % 97,1 (73,9 milioi euro); 5.000 eta 20.000 biztanle arteko udaljerriek % 94,5 (79,5 milioi euro); hiriburuak % 93,3 (81,4 milioi euro); eta 5.000 azpikoak, % 92,8 (23,2 milioi euro). Biztanleko, 5.000 eta 20.000 biztanle arteko udalek jartzen dute kopururik handiena, 141,5 euro; 115,5 euro jartzen dituzte 20.000 biztanletik gorakoak; 105,6 euro biztanleko txikiak; eta 105 euro, hiriburuak.

Gainontzeko helburuetarako kirol-gastu kontsolidatuaren % 5 baino gutxiago erabiltzen dute. Udaljerri txikiak zein handienek kirol ekitalditara bideratzen dute gastuaren % 4-5 artean: 5.000 biztanlez azpikoak % 4,9 (1,2 milioi euro eta 5,6 euro biztanleko), eta hiriburuak % 4,7 (4,1 milioi euro eta 5,3 euro biztanleko). 5.000 eta 20.000 biztanle artekoetan ere bigarren ehunetik handiena dute kirol-ekitaldiek, kasu honetan, gastu osoaren % 2,6 (2,2 milioi euro eta 3,8 euro biztanleko). Eta 20.000 biztanletik gorakoetan, eskola-kirolak bigarren ehunetik altuena du: gastu osoaren % 2,1 (1,6 milioi euro eta 2,5 euro biztanleko).

25. grafikoa.

Udaletako kirol-gastu kontsolidatua, gastuaren helburuaren eta udaljerri-tamainaren arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2025.

47. taula.

Udaletako kirol-gastu kontsolidatua, gastuaren helburuaren eta udalerri-tamainaren arabera.

Izaera ekonomikoa	< 5.000 biztanle		5.000 - 20.000 biztanle		> 20.000 biztanle		Hiriburuak		Guztira	
	€	%	€	%	€	%	€	%	€	%
Eskola-kirola	500.037	2,0	1.452.590	1,7	1.602.866	2,1	405.742	0,5	3.961.236	1,5
Kirol egokitua	26.029	0,1	79.662	0,1	58.567	0,1	360.975	0,4	525.232	0,2
Goi-mailako lehiaketak	47.124	0,2	980.283	1,2	29.844	0,0	914.468	1,0	1.971.719	0,7
Kirol ekitaldiak	1.221.693	4,9	2.155.735	2,6	491.311	0,6	4.124.338	4,7	7.993.077	2,9
Bestelako kirol jarduerak	23.172.044	92,8	79.535.663	94,5	73.945.318	97,1	81.380.314	93,3	258.033.339	94,7
Guztira	24.966.927	100,0	84.203.933	100,0	76.127.906	100,0	87.185.836	100,0	272.484.602	100,0

Iturria: Siadeco, 2025.

48. taula.

Administrazio-mailako gastu kontsolidatua kirolean, gastuaren helburuaren eta udalerri-tamainaren arabera (€/biztanle)

Izaera ekonomikoa	< 5.000 biztanle	5.000 - 20.000 biztanle	> 20.000 biztanle	Hiriburuak	Guztira
Eskola-kirola	2,3	2,6	2,5	0,5	1,8
Kirol egokitua	0,1	0,1	0,1	0,5	0,2
Goi-mailako lehiaketak	0,2	1,7	0,0	1,2	0,9
Kirol ekitaldiak	5,6	3,8	0,8	5,3	3,6
Bestelako kirol jarduerak	105,6	141,5	115,5	105,0	117,5
Guztira	113,8	149,8	118,9	112,5	124,0

Iturria: Siadeco, 2025.

C.4 Kirol-gastua, kirol-eremuen eta administrazio-mailaren arabera

C.4.1. Erakunde-motaren arabera


2023ko kirol-gastu kontsolidatuaren erdia multikirolera bideratzen du EAEko administrazio publikoak (178,3 milioi euro), eta laurden bat bestelako kirolek (95 milioi euro). Multikirolak gastuaren bi heren hartzen ditu foru aldundien kasuan (30,3 milioi euro), udaletan erdia da (137,3 milioi euro) eta Jaurlaritzan % 44,7 (10,7 milioi euro). Bestelako kirolek herena hartzen dute udaletan (91,5 milioi euro), baina % 10 baino gutxiago diputazioetan eta Jaurlaritzan.

Multikirolerako jartzen dute erakunde guztiek diru gehien biztanleko: udalek 62,5 euro, foru aldundiek 13,8 euro, eta Jaurlaritzak 4,9 euro. Bestelako kirolek udalek bideratzen dutena ere dezente da: 41,7 euro/biztanle. Aldundiek 0,7 euro biztanleko eta Jaurlaritzak 0,8 euro biztanleko, besterik ez.

Gainontzeko laurdena inguru beste kirol-eremuen artean banatzen da. Euskal Autonomia Erkidego mailan diru gehien jasotzen duten hiru kirol-eremuak ondorengoak dira: pilota kirolak (35,1 milioi euro), ur-kirolak (12,8 milioi euro) eta kirol portuak (9,4 milioi euro).

Hain zuzen, Eusko Jaurlaritzak kirol portuetara bideratu du 2023ko kirol-gastu kontsolidatuaren zatirik handiena: % 32,2 (7,7 milioi euro eta 3,5 euro biztanleko). Eta foru aldundiek eta udalek, aldiz, pilota kirolei: haien gastuaren % 20,6 lehenengoei (9,6 milioi euro 4,4 euro biztanleko), eta % 9, bigarrenen (24,6 milioi euro eta 11,2 euro biztanleko).

26. grafikoa.
 Administrazio-mailako gastu kontsolidatua, kirol-eremuen arabera (%)




Iturria: Siadeco, 2025.

49. taula.
 Administrazio-mailako gastu kontsolidatua kirolean, kirol-eremuen arabera.

Erakunde-mota	€	%
Atletismo kirolak	2.069.953	0,6
Borroka-kirolak	536.334	0,2
Herri kirolak	824.448	0,2
Irristaketa kirolak	3.033.332	0,9
Kirol portuak	9.364.192	2,7
Mendiko kirolak	1.144.589	0,3
Motor kirolak	197.109	0,1
Multikirola	178.265.310	52,0
Nabigazio-kirolak	998.821	0,3
Pilota kirolak	35.060.893	10,2
Txirrindularitza	3.505.298	1,0
Ur-kirolak	12.758.860	3,7
Bestelako kirolak	94.989.407	27,7
Guztira	342.748.546	100,0

Iturria: Siadeco, 2025.

27. grafikoa.
 Administrazio-mailako gastu kontsolidatu handieneko hiru kirol-eremuak, entitate-motaren arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2025.

50. taula.
 Administrazio-mailako gastu kontsolidatua kirolean, gastuaren helburuaren eta entitate-motaren arabera.

Izaera ekonomikoa	Eusko Jaurlaritza		Foru aldundiak		Udalak	
	€	%	€	%	€	%
Atletismo kirolak	214.215	0,9	704.547	1,5	1.151.190	0,4
Borroka-kirolak	45.884	0,2	276.019	0,6	214.431	0,1
Herri kirolak	383.310	1,6	180.435	0,4	260.704	0,1
Irristaketa kirolak	907.551	3,8	298.344	0,6	1.827.436	0,7
Kirol portuak	7.718.662	32,3	0	0,0	1.645.530	0,6
Mendiko kirolak	6.118	0,0	454.206	1,0	684.265	0,3
Motor kirolak	0	0,0	89.468	0,2	107.641	0,0
Multikirola	10.659.878	44,7	30.318.822	65,4	137.286.610	50,4
Nabigazio-kirolak	15.332	0,1	134.971	0,3	848.518	0,3
Pilota kirolak	919.777	3,9	9.570.994	20,6	24.570.123	9,0
Txirrindularitza	522.547	2,2	821.884	1,8	2.160.866	0,8
Ur-kirolak	614.486	2,6	1.954.457	4,2	10.189.917	3,7
Bestelako kirolak	1.861.884	7,8	1.590.152	3,4	91.537.371	33,6
Guztira	23.869.645	100,0	46.394.299	100,0	272.484.602	100,0

Iturria: Siadeco, 2025.

51. taula.

Administrazio-mailako gastu kontsolidatua kirolean, kirol-eremuaren eta entitate-motaren arabera (€/biztanle).

Izaera ekonomikoa	Eusko Jaurlaritza	Foru Aldundiak	Udalak
Atletismo kirolak	0,1	0,3	0,5
Borroka-kirolak	0,0	0,1	0,1
Herri kirolak	0,2	0,1	0,1
Irristaketa kirolak	0,4	0,1	0,8
Kirol portuak	3,5	0,0	0,7
Mendiko kirolak	0,0	0,2	0,3
Motor kirolak	0,0	0,0	0,0
Multikirola	4,9	13,8	62,5
Nabigazio-kirolak	0,0	0,1	0,4
Pilota kirolak	0,4	4,4	11,2
Txirrindularitza	0,2	0,4	1,0
Ur-kirolak	0,3	0,9	4,6
Bestelako kirolak	0,8	0,7	41,7
Guztira	10,9	21,1	124,0

Iturria: Siadeco, 2025.

C.4.2. Udalerrien lurraldearen arabera


Udaletako gastua lurraldearen arabera banatuz gero, hiru lurraldeetan bestelako kirolek eta multikirolera bideratzen da 2023ko kirol-gastu kontsolidatuaren zatirik handiena. Gipuzkoako eta Bizkaiko udaletan gastuaren zati handiagoa hartzen du multikirolak (% 52,2 eta % 61,4, hurrenez hurren), eta Arabako udaletan, aldiz, bestelako jarduerak hartzen duten ehunekoa handiagoa da (% 64,8). Kopuru absolututan, Bizkaiko udalek egiten dute gasturik handiena multikirolean, 83,2 milioi euro; Gipuzkoakoek 45,5 milioi euro gastatzen dituzte; eta Arabakoek 7,6 milioi euro (haien gastuaren % 15,9 besterik ez). Bestelako kirolek antzeko kopuruak jarri dituzte hiru lurraldeetan: Araban eta Gipuzkoan 31,1 milioi euro, eta Bizkaian 29,3 milioi euro.

Gainontzeko kirol-eremuei dagokienez, hiru lurraldeetan pilota kirola dago lehen postuan: Bizkaiko gastuaren % 10,5 hartu du (14,1 milioi euro), Arabakoaren % 8,6 (4,1 milioi euro) eta Gipuzkoakoaren % 7,1 (6,3 milioi euro). Gastu kontsolidaturik handieneko bigarren kirol-eremurik handiena ur-kirolak dira: Araban gastuaren % 6,4 da (3,1 milioi euro); Bizkaian % 3,3 (4,5 milioi euro); eta Gipuzkoan % 2,9 (2,6 milioi euro). Hirugarren kirol-eremuan dago aldea: Araban irristaketa kirolak daude % 2,8ekin (1,4 milioi euro); Gipuzkoan txirrindularitza % 1,5ekin (1,4 milioi euro); eta Bizkaian kirol portuak % 1,2ekin (1,6 milioi) –kirol-eremu horretara dirua bideratzen duen lurralde bakarra da–.

Biztanleko diru-kopururik handiena Arabako udalek bideratzen dute bestelako kirol jardueretarako: 93,5 euro biztanleko. Bigarren kopururik handiena Bizkaiko udalek bideratzen dute multikirolerako (72,7 euro biztanleko); Gipuzkoak zertxobait gutxiago jartzen du (64,6 euro biztanleko).

28. grafikoa.

Administrazio-mailako gastu kontsolidatu handieneko hiru kirol-eremuak, lurraldearen arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2025.

52. taula.

Udaletako kirol-gastu kontsolidatua, gastuaren helburuaren eta lurraldearen arabera.

Izaera ekonomikoa	Araba		Gipuzkoa		Bizkaia		Guztira	
	€	%	€	%	€	%	€	%
Atletismo kirolak	158.835	0,3	254.048	0,3	738.307	0,5	1.151.190	0,4
Borroka-kirolak	77.386	0,2	75.815	0,1	61.230	0,0	214.431	0,1
Herri kirolak	62.891	0,1	38.887	0,0	158.925	0,1	260.704	0,1
Irristaketa kirolak	1.365.083	2,8	363.650	0,4	98.703	0,1	1.827.436	0,7
Kirol portuak	0	0,0	0	0,0	1.645.530	1,2	1.645.530	0,6
Mendiko kirolak	157.499	0,3	147.132	0,2	379.634	0,3	684.265	0,3
Motor kirolak	19.098	0,0	28.041	0,0	60.501	0,0	107.641	0,0
Multikirola	7.646.166	15,9	46.478.825	52,2	83.161.619	61,4	137.286.610	50,4
Nabigazio-kirolak	0	0,0	349.139	0,4	499.379	0,4	848.518	0,3
Pilota kirolak	4.139.990	8,6	6.283.192	7,1	14.146.941	10,5	24.570.123	9,0
Txirrindularitza	231.731	0,5	1.373.237	1,5	555.899	0,4	2.160.866	0,8
Ur-kirolak	3.077.054	6,4	2.598.680	2,9	4.514.182	3,3	10.189.917	3,7
Bestelako kirolak	31.111.022	64,8	31.099.807	34,9	29.326.542	21,7	91.537.371	33,6
Guztira	48.046.755	100,0	89.090.454	100,0	135.347.393	100,0	272.484.602	100,0

Iturria: Siadeco, 2025.

53. taula.

Administrazio-mailako gastu kontsolidatua kirolean, kirol-eremuaren eta entitate-motaren arabera (€/biztanle)

Izaera ekonomikoa	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Guztira
Atletismo kirolak	0,5	0,4	0,6	0,5
Borroka-kirolak	0,2	0,1	0,1	0,1
Herri kirolak	0,2	0,1	0,1	0,1
Irristaketa kirolak	4,1	0,5	0,1	0,8
Kirol portuak	0,0	0,0	1,4	0,7
Mendiko kirolak	0,5	0,2	0,3	0,3
Motor kirolak	0,1	0,0	0,1	0,0
Multikirola	23,0	64,6	72,7	62,5
Nabigazio-kirolak	0,0	0,5	0,4	0,4
Pilota kirolak	12,4	8,7	12,4	11,2
Txirrindularitza	0,7	1,9	0,5	1,0
Ur-kirolak	9,2	3,6	3,9	4,6
Bestelako kirolak	93,5	43,2	25,6	41,7
Guztira	144,3	123,8	118,3	124,0

Iturria: Siadeco, 2025.

C.4.3. Udalerrri-tamainaren arabera

Hiriburuak ez diren udalerriek 2023 kirol-gastu kontsolidatuaren erdia baino gehiago multikirolera bideratu dute: 20.000 biztanletik gorakoek % 61,0 (46,5 milioi euro), 5.000tik beherakoek % 59,3 (14,8 milioi euro) eta 5.000 eta 20.000 artekoek % 45,7 (46,1 milioi euro). Hiriburuek, aldiz, bestelako kiroletan egin dute gastuaren erdia baino gehiago: % 56,7 (49,4 milioi euro). Ildo horretatik, horiek dira biztanleko kopuru handienak hartzen dituztenak: multikirolerako 82 euro jartzen dituzte biztanleko 5.000 eta 20.000 biztanle arteko udalek; 72,6 euro 20.000tik gorakoek; eta 67,5 euro 5.000tik beherakoek. Hiriburuek 63,8 euro/biztanle jartzen dituzte bestelako kirol jardueretarako.

Gainontzeko kirolei erreparatuta, kasu honetan ere pilota kirolak dira gastuaren zati handiena jaso dutenak. Hain zuzen herri txikienetan dute pisu gehien (% 16,9), eta hiriburuetan, aldiz, gutxien (% 3,6). Kopuru absolututan, aldiz, 5.000 eta 20.000 biztanle arteko udalek bideratzen dute zenbatekorik altuena (10,9 milioi euro) eta 20.000tik gorakoetan, gero (6,3 milioi euro); eta biztanleko 20.000 biztanlez azpiko udalerriek jartzen dute diru-kopuru handiagoa –19,2 euro biztanleko 5.000tik beherako udalek, eta 19,4 euro biztanleko 5.000 eta 20.000 artekoek–.

Ur-kirolak daude bigarren lekuan: gastuaren % 6,7 hartzen dute 5.000 eta 20.000 biztanle arteko udaletan (5,6 milioi euro); % 2,7 5.000tik beherakoetan (665 mila euro); % 2,5 hiriburuetan (2,1 milioi euro); eta % 2,3 20.000tik gorakoetan (2,1 milioi euro).

Hirugarren kirol-eremuan daude aldeak: herri txikienetan eta hiriburuak ez diren handienetan kirol-portuak daude (% 1,8 eta % 1,6, hurrenez hurren), 5.000 eta 20.000 biztanle artekoetan atletismo-kirolak (% 0,6) eta hiriburuetan irristaketa-kirolak (% 1,5).

29. grafikoa.

Udalerrri-tamaina bakoitzean administrazio-mailako gastu kontsolidatu handiena duten 5 kirol-eremuak (%)



Iturria: Siadeco, 2025.

54. taula.

Administrazio-mailako gastu kontsolidatua kirolean, gastuaren helburuaren eta udalerrri-tamainaren arabera.

Izaera ekonomikoa	< 5.000 biztanle		5.000 - 20.000 biztanle		> 20.000 biztanle		Hiriburuak		Guztira	
	€	%	€	%	€	%	€	%	€	%
Atletismo kirolak	112.772	0,5	475.540	0,6	330.439	0,4	232.440	0,3	1.151.190	0,4
Borroka-kirolak	83.215	0,3	75.088	0,1	56.128	0,1	0	0,0	214.431	0,1
Herri kirolak	117.500	0,5	88.022	0,1	41.401	0,1	13.780	0,0	260.704	0,1
Irristaketa kirolak	39.422	0,2	405.483	0,5	40.727	0,1	1.341.804	1,5	1.827.436	0,7
Kirol portuak	455.000	1,8	0	0,0	1.190.530	1,6	0	0,0	1.645.530	0,6
Mendiko kirolak	222.853	0,9	311.883	0,4	113.633	0,1	35.896	0,0	684.265	0,3
Motor kirolak	32.332	0,1	71.279	0,1	4.030	0,0	0	0,0	107.641	0,0
Multikirola	14.811.756	59,3	46.076.760	54,7	46.474.826	61,0	29.923.268	34,3	137.286.610	50,4
Nabigazio-kirolak	322.570	1,3	349.139	0,4	176.808	0,2	0	0,0	848.518	0,3
Pilota kirolak	4.209.209	16,9	10.916.426	13,0	6.317.224	8,3	3.127.263	3,6	24.570.123	9,0
Txirrindularitza	314.688	1,3	402.424	0,5	531.754	0,7	912.000	1,0	2.160.866	0,8
Ur-kirolak	665.202	2,7	5.648.889	6,7	1.724.013	2,3	2.151.813	2,5	10.189.917	3,7
Bestelako kirolak	3.580.409	14,3	19.382.999	23,0	19.126.392	25,1	49.447.571	56,7	91.537.371	33,6
Guztira	24.966.927	100,0	84.203.933	100,0	76.127.906	100,0	87.185.836	100,0	272.484.602	100,0

Iturria: Siadeco, 2025.

55. taula.


Administrazio-mailako gastu kontsolidatua kirolean, kirol-eremuaren eta udalerri-tamainaren arabera (€/biztanle)

Izaera ekonomikoa	< 5.000 biztanle	5.000 - 20.000 biztanle	> 20.000 biztanle	Hiriburuak	Guztira
Atletismo kirolak	0,5	0,8	0,5	0,3	0,5
Borroka-kirolak	0,4	0,1	0,1	0,0	0,1
Herri kirolak	0,5	0,2	0,1	0,0	0,1
Irristaketa kirolak	0,2	0,7	0,1	1,7	0,8
Kirol portuak	2,1	0,0	1,9	0,0	0,7
Mendiko kirolak	1,0	0,6	0,2	0,0	0,3
Motor kirolak	0,1	0,1	0,0	0,0	0,0
Multikirola	67,5	82,0	72,6	38,6	62,5
Nabigazio-kirolak	1,5	0,6	0,3	0,0	0,4
Pilota kirolak	19,2	19,4	9,9	4,0	11,2
Txirrindularitza	1,4	0,7	0,8	1,2	1,0
Ur-kirolak	3,0	10,1	2,7	2,8	4,6
Bestelako kirolak	16,3	34,5	29,9	63,8	41,7
Guztira	113,8	149,8	118,9	112,5	124,0

Iturria: Siadeco, 2025.

D

ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN MULTZOAREN KIROL-GASTUA



Atal honetan EAEko administrazio arteko kontsolidazioa egingo da, Eusko Jaurlaritzaren, foru aldundien eta udalen arteko transferentziak identifikatu ondoren. Bigarren prozesu horren emaitzak EAEko administrazio publiko guztien kirol-gastu kontsolidatua ezagutzea ahalbidetzen du; jatorrian eta helmugan kontsolidatutako gastua, zehazki.

Jatorrian kontsolidatutako gastua

Kontsolidazio-mota honek diru-partiden jatorria zein den erakusten du. Transferentzia entitate finantzatzaileari lotuta mantentzen da eta bikoiztutako kopurua erakunde hartzaileari kentzen zaio.



Helmugan kontsolidatutako gastua

Kontsolidazio-mota honek transferentzien helmuga zein den erakusten du. Transferentzia entitate hartzaileari lotuta mantentzen da eta bikoiztutako kopurua erakunde finantzatzaileari kentzen zaio.



D.1 Transferentzien fluxuak administrazio-mailen artean


Administrazio-mailen arteko transferentzien multzorik handiena udalaz gaindiko administrazioek (Eusko Jaurlaritza eta foru aldundiak) udaletara egiten dituztena da: guztira ia 11 milioi euro. Txikiagoa da, ordea, Eusko Jaurlaritzatik eta foru aldundietatik udalen menpeko organismo autonomoetara, sozietate publikoetara eta fundazioetara egiten dituzten transferentzien multzoa: 179 mila euro.

Emailea kontuan izanda, Eusko Jaurlaritzak milioi 1 euro inguruko transferentziak egin ditu: ia 985 mila euro udalei eta 59 mila euro udalen menpeko organismo autonomoei, sozietate publikoei eta fundazioei. Foru aldundien kasuan, 10,1 milioi euro banatu ditu: ia 10 milioi euro udalei egindako transferentzia bidez, eta 120 mila euro udalen menpeko erakundeei.

Udalen artean eta beste udalen menpeko erakundeetara transferentzia gutxi batzuk ere egin dituzte 2023an: 41 mila euro beste udalei eta 9 mila euro beste udalen menpeko erakunde autonomoei.

30. grafikoa.

EAEko administrazio-mailen arteko transferentzia-fluxuak (€).



Iturria: Siadeco, 2025.

56. taula.

Administrazio-mailen arteko transferentzia-fluxuak (€)

Erakunde- finantzatzailea	Eusko Jaurlaritza	Foru aldundiak	Udalak	Udalen menpeko organismo autonomo, sozietate publiko eta fundazioak	Guztira
Eusko Jaurlaritza	0	0	984.706	59.060	1.043.766
Foru aldundiak	0	0	9.988.240	120.336	10.108.576
Udalak	0	0	41.469	9.374	50.844
Guztira	0	0	11.014.415	188.770	11.203.186

Iturria: Siadeco, 2025.


D.2 Jatorrian kontsolidatutako kirol-gastua

Datuak jatorrian kontsolidatzen direnean, transferentzia entitate finantzatzaileari lotuta mantentzen da, eta beraz, administrazio-maila bakoitzak EAEko gastu garbian duen pisua ezagutzeko aukera ematen du.

2023ko EAEko kirol-gastu kontsolidatua 331,5 milioi eurokoa da; zenbateko hori lortzeko 11,2 milioi euroko transferentziak kendu zaizkio udalaren kirol-gastuari, transferentzia horiek jatorrian kontsolidatuz (hau da, Eusko Jaurlaritzaren edo foru aldundien gastuan). Kirol-gastu kontsolidatu horretatik hiru laurden baino gehiago udalei dagokie (261,3 milioi euro), % 14,0 foru aldundiei (46,4 milioi euro) eta % 7,2 Eusko Jaurlaritzari (23,9 milioi euro).

31. grafikoa.

Administrazio-maila bakoitzaren pisu erlatiboa EAEko kirol-gastu kontsolidatuan (%)



Iturria: Siadeco, 2025.

57. taula.


Administrazio-maila bakoitzaren pisu erlatiboa EAEko kirol-gastu kontsolidatuan.

Erakunde-mota	Kirol-gastua		Transferentzia bidezko diru-sarrerak (€)		Kirol-gastu kontsolidatua (€)	
	€	%	€	%	€	%
Eusko Jaurlaritza	23.869.645	7,0	0	0,0	23.869.645	7,2
Foru aldundiak	46.394.299	13,5	0	0,0	46.394.299	14,0
Udalak	272.484.602	79,5	11.203.186	100,0	261.281.416	78,8
EAE guztira	342.748.546	100,0	11.203.186	100,0	331.545.360	100,0

Iturria: Siadeco, 2025.

EAEko kirol-gastu kontsolidatuaren bost eurotik lau baino gehiago gastu arruntera bideratu da 2023an (% 82,4). Zertxobait gehiago udaletan (% 86,4), Eusko Jaurlaritzan (% 72,1) eta foru aldundietan (% 65,0) baino. Gainontzeko % 17,3 kapital gastuari dagokio, ehuneko horren gainera dago foru aldundiena (% 35,0) eta Eusko Jaurlaritzarena (% 22,5) eta azpitik, aldiz, udalena (% 13,6). Finantza aktiboei eta pasiboei dagokie Eusko Jaurlaritzaren gastuaren % 5,4.

32. grafikoa.
EAEko kirol-gastu kontsolidatua, administrazio-maila eta izaera ekonomikoaren arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2025.

58. taula.
EAEko kirol-gastu kontsolidatua, administrazio-maila eta izaera ekonomikoaren arabera.

Izaera ekonomikoa	Eusko Jaurlaritza		Foru Aldundiak		Udalak		Guztira	
	€	%	€	%	€	%	€	%
Gastu arrunta	17.219.111	72,1	30.170.649	65,0	225.639.701	86,4	273.029.461	82,4
Kapital gastua	5.362.409	22,5	16.223.650	35,0	35.636.306	13,6	57.222.365	17,3
Finantza-aktiboak eta pasiboak	1.288.125	5,4	0	0,0	5.409	0,0	1.293.534	0,4
Guztira	23.869.645	100,0	46.394.299	100,0	261.281.417	100,0	331.545.360	100,0

Iturria: Siadeco, 2025.

59. taula.
EAEko kirol-gastu kontsolidatua, administrazio-maila eta izaera ekonomikoaren arabera.

Izaera ekonomikoa	Eusko Jaurlaritza		Foru Aldundiak		Udalak		Guztira	
	€	%	€	%	€	%	€	%
I. Pertsonal gastuak	2.590.502	10,9	3.185.546	6,9	48.560.295	18,6	54.336.342	16,4
II. Ondasun arruntak eta zerbitzuak	6.818.169	28,6	6.818.571	14,7	155.200.491	59,4	168.837.231	50,9
III. Finantza gastuak	6.049	0,0	32	0,0	74.589	0,0	80.670	0,0
IV. Transferentzia arruntak	7.804.392	32,7	20.166.500	43,5	21.804.325	8,3	49.775.217	15,0
VI. Inbertsio errealak	4.796.802	20,1	435.556	0,9	34.616.906	13,2	39.849.265	12,0
VII. Kapital transferentziak	565.607	2,4	15.788.094	34,0	1.019.400	0,4	17.373.101	5,2
VIII. Finantza aktiboak	1.288.125	5,4	0	0,0	5.409	0,0	1.293.534	0,4
Guztira	23.869.645	100,0	46.394.299	100,0	261.281.417	100,0	331.545.360	100,0

Iturria: Siadeco, 2025.

2023ko EAEko kirol-gastu kontsolidatua kapituluak aztertuta, ondorengoa adierazi daiteke:

- **Gastu arruntaren** zatirik handiena II. kapituluak hartzen du, ondasun arruntek eta zerbitzuek, hain zuzen: EAEko gastu osoaren erdia da (% 50,9), 168,8 milioi euroekin. Pertsonal gastuetara (I. kapitulua) gastu osoaren % 16,4 bideratu da, 54,3 milioi euro. II. kapituluak, batez ere, udalen gastuan du pisurik handiena: udalen gastu osoaren % 59,4. Transferentzia arruntek (IV. kapitulua) EAEko kirol-gastu kontsolidatuaren % 15,0 hartu dute 2023an, 49,8 milioi euro, hain zuzen. Foru aldundiko (% 43,5) eta Eusko Jaurlaritzako (% 32,7) gastuaren zatirik handiena hartzen du IV. kapituluak.
- **Kapital gastuak**, batez ere, inbertsio errealei lotuta daude (VI. kapitulua): 39,8 milioi euro bideratu dira (gastu osoaren % 12,0). Kopuru horren erdia jarri da kapital transferentzietarako (VII. kapitulua): 17,4 milioi euro (gastu osoaren % 5,2). Udalek eta Eusko Jaurlaritzak kapital gastuen zati handiago bat bideratu dute inbertsio errealetara, eta foru aldundiek, berriz, kapital transferentzietara.

D.3 Helmugan kontsolidatutako kirol-gastua


Atal honetan, EAE osorako kontsolidatutako kirol-gastuaren emaitzak aurkezten dira, gastu hori gastua egin duen erakundean mantenduz eta transferentziak eta dirulaguntzak jatorrian ezabatuz. Kontsolidazio-mota honek gastuen helmugari buruzko xehetasunak zehatzago eskaintzen ditu.

D.3.1. Helburuaren arabera

EAE mailako kirol-gastu kontsolidatuaren % 89,8 bestelako kirol jarduerak hartu dute 2023an: 297,5 milioi euro (135,4 euro biztanleko). Gastuaren gainontzeko % 10 beste helburutarako erabiltzen da: % 4,7 goi-mailako lehiaketarako (15,4 milioi euro); % 2,6 kirol ekitaldietarako (8,8 milioi euro); eta % 0,3 kirol egokiturako (1,1 milioi euro).

33. grafikoa.

EAE mailako gastu kontsolidatua kirolean, gastuaren helburuaren arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2025.

60. taula.

EAE mailako gastu kontsolidatua kirolean, gastuaren helburuaren arabera.

Kirol-eremua	€	%	€/ biztanle
Eskola-kirola	8.761.696	2,6	4,0
Kirol egokitua	1.080.912	0,3	0,5
Goi-mailako lehiaketak	15.419.279	4,7	7,0
Kirol ekitaldiak	8.779.020	2,6	4,0
Bestelako kirol jarduerak	297.504.453	89,7	135,4
Guztira	331.545.360	100,0	150,9

Iturria: Siadeco, 2025.


D.3.2. Kirol-eremuen arabera

EAEko kirol-gastu kontsolidatuaren erdia multikirolera bideratzen dute erakundeek (% 50,5); 167,5 milioi euro dira. Bigarren zatirik handiena, laurden bat pasatxo, bestelako kirolak hartzen du: 95 milioi euro (% 28,6). Hain zuzen, 76,3 euro biztanleko multikirolerako eta 43,2 euro biztanleko bestelako kiroletarako.

Gainontzeko kirol-eremuek hartzen dute EAEko kirol-gastu kontsolidatuaren % 20,9, batez ere: pilota kirolek (% 10,5; 34,8 milioi euro), ur-kirolek (% 3,8; 12,6 milioi euro), eta kirol portuek (% 2,8; 9,4 milioi euro). Biztanleko 15,8 euro pilota eskolek; 5,7 euro, ur-kirolek; eta 4,3 euro, kirol portuek.

34. grafikoa.

EAE mailako gastu kontsolidatua kirolean, kirol-eremuen arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2025.

61. taula.

EAE mailako gastu kontsolidatua kirolean, kirol-eremuen arabera.

Kirol-eremua	€	%
Atletismo kirolak	2.069.953	0,6
Borroka-kirolak	536.334	0,2
Herri kirolak	820.774	0,2
Irristaketa kirolak	3.033.332	0,9
Kirol portuak	9.364.192	2,8
Mendiko kirolak	1.144.589	0,3
Motor kirolak	197.109	0,1
Multikirola	167.528.931	50,5
Nabigazio-kirolak	998.821	0,3
Pilota kirolak	34.780.386	10,5
Txirrindularitza	3.505.298	1,1
Ur-kirolak	12.589.648	3,8
Bestelako kirolak	94.975.994	28,6
Guztira	331.545.360	100,0

Iturria: Siadeco, 2025.

62. taula. EAE mailako biztanleko gastu
kontsolidatua kirolean, kirol-eremuen
arabera (€/biztanle)

Kirol-eremua	€/biztanle
Atletismo kirolak	0,9
Borroka-kirolak	0,2
Herri kirolak	0,4
Irristaketa kirolak	1,4
Kirol portuak	4,3
Mendiko kirolak	0,5
Motor kirolak	0,1
Multikirola	76,3
Nabigazio-kirolak	0,5
Pilota kirolak	15,8
Txirrindularitza	1,6
Ur-kirolak	5,7
Bestelako kirolak	43,2
Guztira	150,9

Iturria: Siadeco, 2025.

D.3.3. Kirol-gastuaren izaera ekonomikoa

EAEko kirol-gastu kontsolidatuan gastu arrunta nagusitzen da. Kiroletarako jarritako hamar eurotik zortzi baino gehiago hartzen du (% 82,4); guztira, 273,1 milioi euro. Batez ere, ondasun arruntetara eta zerbitzuetara bideratzen dute diru hori: 170 milioi euro (gastu kontsolidatu osoaren % 51,3).

Kapital gastuetarako % 17,2 jarri du EAEko administrazio publikoak, 57,2 milioi euro, hain zuzen. Horietatik, 48,9 milioi euro inbertsio errealak egiteko (gastu osoaren % 14,7) eta 8,3 milioi euro kapital transferentzietan edo inbertsioak egiteko dirulaguntzak emateko (gastu osoaren % 2,5).

Kirol-eremu bakoitzaren gastua kapitulu ekonomikoen arabera banatuz gero, bi joera dira nagusi: gehienetan transferentzia arruntetara bideratutako gastua da handiena, eta beste batzuetan, aldiz, ondasun arruntan eta zerbitzuen diru-partida da handiena. Bigarren joerakoak gutxi dira, baina kirol-gastu osotik diru-kopururik handienak hartzen dituztenak dira, pilota kirolak salbu: multikirola, bestelako kirolak, ur-kirolak eta kirol-portuak.

63. taula.

EAE mailako gastu kontsolidatua kirolean, kirol-eremuen eta kapitulu ekonomikoen arabera.

Kirol-eremua		I. Pertsonal gastuak	II. Ondasun arruntak eta zerbitzuak	III. Finantza gastuak	IV. Transferentzia arruntak	VI. Inbertsio errealak	VII. Kapital transferentziak	VIII. Finantza aktiboak	Guztira
 Atletismo kirolak	€ %	186.995 9,0	285.956 13,8	59 0,0	1.297.234 62,7	299.708 14,5	0 0,0	0 0,0	2.069.953 100,0
 Borroka- kirolak	€ %	47.932 8,9	36.841 6,9	2 0,0	389.182 72,6	62.377 11,6	0 0,0	0 0,0	536.334 100,0
 Herri kirolak	€ %	77.636 9,5	39.861 4,9	5 0,0	661.473 80,6	41.798 5,1	0 0,0	0 0,0	820.774 100,0
 Irristaketa kirolak	€ %	567.900 18,7	983.793 32,4	3 0,0	1.178.865 38,9	302.572 10,0	200 0,0	0 0,0	3.033.332 100,0
 Kirol portuak	€ %	1.257.284 13,4	4.654.771 49,7	6.470 0,1	0 0,0	2.157.542 23,0	0 0,0	1.288.125 13,8	9.364.192 100,0
 Mendiko kirolak	€ %	122.704 10,7	100.439 8,8	30 0,0	821.758 71,8	74.658 6,5	25.000 2,2	0 0,0	1.144.589 100,0
 Motor kirolak	€ %	8.107 4,1	9.075 4,6	2 0,0	179.926 91,3	0 0,0	0 0,0	0 0,0	197.109 100,0
 Multikirola	€ %	25.237.243 15,1	90.541.655 54,0	34.778 0,0	20.124.382 12,0	24.363.204 14,5	7.223.602 4,3	4.066 0,0	167.528.931 100,0
 Nabigazio- kirolak	€ %	57.194 5,7	9.826 1,0	0 0,0	588.418 58,9	310.083 31,0	33.300 3,3	0 0,0	998.821 100,0
 Pilota kirolak	€ %	4.547.329 13,1	4.493.273 12,9	933 0,0	15.286.887 44,0	10.431.771 30,0	19.016 0,1	1.178 0,0	34.780.386 100,0
 Txirrindularitza	€ %	265.801 7,6	454.404 13,0	238 0,0	1.899.817 54,2	135.037 3,9	750.000 21,4	0 0,0	3.505.298 100,0
 Ur-kirolak	€ %	1.757.711 14,0	6.670.854 53,0	83 0,0	3.148.132 25,0	841.067 6,7	171.800 1,4	0 0,0	12.589.648 100,0
 Bestelako kirolak	€ %	20.538.524 21,6	61.714.958 65,0	38.371 0,0	2.759.449 2,9	9.858.799 10,4	65.728 0,1	165 0,0	94.975.994 100,0
Guztira	€ %	54.672.360 16,5	169.995.705 51,3	80.974 0,0	48.335.523 14,6	48.878.616 14,7	8.288.646 2,5	1.293.534 0,4	331.545.360 100,0

Iturria: Siadeco, 2025.

D.4 Kirol-eremukako emaitza nagusiak



Multikirola

2023an EAEko kirol-gastu kontsolidatuaren zatirik handiena hartzen duen kirol-eremua da multikirola; gastuaren erdia bideratzen da horretara, guztira, 167,5 milioi euro. Biztanleko kirol-gasturako jartzen diren 150,9 eurotik multikirolari 76,3 euro dagozkio.


Kirol-eremu honen gastu osoa aztertuta, erdia baino gehiago ondasun arruntetara eta zerbitzuetara bideratzen dute: 90,5 milioi euro (% 54,0). Kopuru hori EAEko administrazio publikoek II. kapitulura bideratutako diru-kopuru osoaren % 53,6 da.

Pertsonal gastuak dira multikirolaren gastuaren % 15,1; guztira, 25,2 milioi euro. EAE osoan I. kapitulurako jarritako kopuru osoaren % 46,4. Hirugarren tokian inbertsio errealak daude kirol-eremu honen gastuen % 14,5 dira (24,4 milioi euro); EAE osoan kirolaren bueltako inbertsio errealak egiteko jarritako zenbateko osoaren % 61,1 multikirolak eramaten du.

Transferentziei dagokienez, arruntetarako 20,1 milioi euro jarri dira (gastuen % 12,0) eta kapital transferentzietarako beste 7,2 milioi euro (% 4,3). Partida bakoitzerako EAE osoan jarritako bost eurotik bi inguru kasu bakoitzean.

35. grafikoa.


Multikirolak EAEko kirol-gastuan duen pisua (%)



Iturria: Siadeco, 2025.

36. grafikoa.

Multikiroleko eta EAEko kirol-gastua biztanleko (€/biztanle)



Iturria: Siadeco, 2025.

64. taula.

Multikirolean egindako gastua, kapitulu ekonomikoen arabera.

Kapitulu ekonomikoa	€	%	EAEko kirol gastuarekiko %
I. Pertsonal gastuak	25.237.243	15,1	46,4
II. Ondasun arruntak eta zerbitzuak	90.541.655	54,0	53,6
III. Finantza gastuak	34.778	0,0	43,1
IV. Transferentzia arruntak	20.124.382	12,0	40,4
VI. Inbertsio errealak	24.363.204	14,5	61,1
VII. Kapital transferentziak	7.223.602	4,3	41,6
VIII. Finantza aktiboak	4.066	0,0	0,3
Guztira	167.528.931	100,0	50,5

Iturria: Siadeco, 2025.

Bestelako kirolak




EAEko kirol-gastu kontsolidatuaren % 28,6 hartu du bestelako kirolak 2023an: guztira, 95 milioi euro. Biztanleko 43,2 euro dira.

Kirol-eremu honen 2023ko gastu osoaren bi heren ondasun arruntak eta zerbitzuak dira (% 65,0), 61,7 milioi euro jartzen ditu administrazio publikoak horretarako. EAE osoan II. kapitulurako jarritako kopuru osoaren % 36,6. Bestelako kiroltako gastuaren % 21,6 pertsonal gastuak dira (20,5 milioi euro); I. kapitulura bideratutako zenbateko osoaren % 37,8. Hirugarren daude inbertsio errealak: 9,9 milioi euro jarri dituzte, bestelako kiroltako gastuaren % 10,4 eta VI. kapituluko gastuaren % 24,7.

Transferentziei dagokienez, arruntetarako 2,8 milioi euro jarri dira (gastuen % 2,9) eta kapital transferentzietarako oso diru gutxi, ia 66 mila euro (% 0,1).

37. grafikoa.


Bestelako kirolek EAEko kirol-gastuan duen pisua (%)



Iturria: Siadeco, 2025.

38. grafikoa.

Bestelako kirolen eta EAEko kirol-gastua biztanleko (€/biztanle)



Iturria: Siadeco, 2025.

65. taula.

Bestelako kiroltako egindako gastua, kapitulu ekonomikoen arabera.

Kapitulu ekonomikoa	€	%	EAEko kirol gastuarekiko %
I. Pertsonal gastuak	20.538.524	21,6	37,8
II. Ondasun arruntak eta zerbitzuak	61.714.958	65,0	36,6
III. Finantza gastuak	38.371	0,0	47,6
IV. Transferentzia arruntak	2.759.449	2,9	5,5
VI. Inbertsio errealak	9.858.799	10,4	24,7
VII. Kapital transferentziak	65.728	0,1	0,4
VIII. Finantza aktiboak	165	0,0	0,0
Guztira	94.975.994	100,0	28,6

Iturria: Siadeco, 2025.

Pilota kirolak




EAEko 2023ko kirol-gastu kontsolidatuan % 10,5eko pisua dute pilota kirolek; guztira, 34,8 milioi euroko gastua da, hau da, 15,8 euro biztanleko.

Kasu honetan, IV. kapituluak, transferentzia arruntei dagokienak hartzen du zatirik handiena: % 44,0. Pilota kirolekin zerikusia duten jardueretarako 15,3 milioi euro banatu dituzte 2023an transferentzia-mota hauen bidez; EAE osoan IV. kapitulura bideratutako zenbateko osoaren % 30,7. Pilota kirolen inguruan inbertsio errealak egiteko 10,4 milioi euro jarri dituzte (kirol-eremu honen gastuaren % 30,0). EAE mailan inbertsio errealen laurden bat dagokio eremu honi (% 26,2).

Kasu honetan, zati txikiagoa hartzen dute pertsonal gastuek (% 13,1) zein ondasun arruntek eta zerbitzuek (% 12,9): 4,5 milioi euro inguru jarri dira kapitulu bakoitzerako. Pisu txikia dute, baita ere, EAEko kirol gastuarekiko: % 8,4 I. kapituluan; eta % 2,7 II. kapituluan.

39. grafikoa.


Pilota kirolek EAEko kirol-gastuan duen pisua (%)



Iturria: Siadeco, 2025.

40. grafikoa.

Pilota kirolen eta EAEko kirol-gastua biztanleko (€/biztanle)



Iturria: Siadeco, 2025.

66. taula.

Pilota kiroletan egindako gastua, kapitulu ekonomikoen arabera.

Kapitulu ekonomikoa	€	%	EAEko kirol gastuarekiko %
I. Pertsonal gastuak	4.547.329	13,1	8,4
II. Ondasun arruntak eta zerbitzuak	4.493.273	12,9	2,7
III. Finantza gastuak	933	0,0	1,2
IV. Transferentzia arruntak	15.286.887	44,0	30,7
VI. Inbertsio errealak	10.431.771	30,0	26,2
VII. Kapital transferentziak	19.016	0,1	0,1
VIII. Finantza aktiboak	1.178	0,0	0,1
Guztira	34.780.386	100,0	10,5

Iturria: Siadeco, 2025.



Ur-kirolak


2023an, EAEko kirol-gastu kontsolidatuaren % 3,8 besterik ez dagokio ur-kirolei; guztira, 12,6 milioi euro dira, 5,7 euro biztanleko.

Ur-kirolen gastuaren erdia baino gehiago ondasun arruntetara eta zerbitzuetara joan da: 6,7 milioi euro (% 53,0). II. kapituluko EAEko zenbateko osoaren % 4 besterik ez da. Transferentzia arruntek laurden bat hartu dute, guztira, 3,1 milioi euro; EAE mailako transferentzia-mota honen gastuaren % 6,3. Pertsonal gastuak daude hirugarren tokian: 1,8 milioi euro bideratu da horretara 2023an (kirol-eremu honen gastuaren % 14,0 eta pertsonal gastu guztien % 3,2).

Kapital gastuek oso zati txikia hartzen dute, gehiago inbertsio errealek (% 6,7, 841 mila euro), kapital transferentziek baino (% 1,4, 172 mila euro).

41. grafikoa.


Ur-kirolek EAEko kirol-gastuan duen pisua (%)



Iturria: Siadeco, 2025.

42. grafikoa.

Ur-kirolen eta EAEko kirol-gastua biztanleko (€/biztanle)



Iturria: Siadeco, 2025.

67. taula.

Ur-kiroletan egindako gastua, kapitulu ekonomikoen arabera.

Kapitulu ekonomikoa	€	%	EAEko kirol gastuarekiko %
I. Pertsonal gastuak	1.757.711	14,0	3,2
II. Ondasun arruntak eta zerbitzuak	6.670.854	53,0	4,0
III. Finantza gastuak	83	0,0	0,1
IV. Transferentzia arruntak	3.148.132	25,0	6,3
VI. Inbertsio errealek	841.067	6,7	2,1
VII. Kapital transferentziak	171.800	1,4	1,0
VIII. Finantza aktiboak	0	0,0	0,0
Guztira	12.589.648	100,0	3,8

Iturria: Siadeco, 2025.



Kirol portuak


Kirol portuen gastuak % 2,8ko pisua du EAEko kirol-gastu kontsolidatuan; guztira, 9,4 milioi euro jarri dira kirol-eremu horretarako 2023an, 4,3 euro biztanleko.

Kopuru horren ia erdia II. kapituluak hartzen du (% 49,7); hain zuzen, ondasun arrunteko eta zerbitzuetako gastuak 4,6 milioi euro izan dira guztira. Kopuru hori EAE osoan II. kapitulura bideratutako zenbatekoaren % 2,8 besterik ez da. Jarraian, kirol portuen ia laurden bat (% 23,0) inbertsio errealak egiteko jarri dute, 2,2 milioi euro (EAEko gastuaren % 5,4).

Finantza aktiboek pisurik handiena duen kirol-eremua da: % 13,8 (1,3 milioi euro). Eta horrek eragin zuzena du EAE osoan VIII. kapitulura bideratutako diru-kopuruan: ia kopuru osoa kirol portuei dagokie, % 99,6. Pertsonal gastuetan antzeko kopurua gastatzen da: 1,3 milioi euro (% 13,4). Hala ere, EAEko I. kapituluko gastuekiko % 2,3 besterik ez da.

43. grafikoa.


Kirol portuek EAEko kirol-gastuan duen pisua (%)



Iturria: Siadeco, 2025.

44. grafikoa.

Kirol portuen eta EAEko kirol-gastua biztanleko (€/biztanle)



Iturria: Siadeco, 2025.

68. taula.

Kirol portuetan egindako gastua, kapitulu ekonomikoen arabera.

Kapitulu ekonomikoa	€	%	EAEko kirol gastuarekiko %
I. Pertsonal gastuak	1.257.284	13,4	2,3
II. Ondasun arruntak eta zerbitzuak	4.654.771	49,7	2,8
III. Finantza gastuak	6.470	0,1	8,0
IV. Transferentzia arruntak	0	0,0	0,0
VI. Inbertsio errealak	2.157.542	23,0	5,4
VII. Kapital transferentziak	0	0,0	0,0
VIII. Finantza aktiboak	1.288.125	13,8	99,6
Guztira	9.364.192	100,0	2,8

Iturria: Siadeco, 2025.



Txirrindularitza


EAEko 2023ko kirol-gastu kontsolidatuaren % 1,1 txirrindularitzara bideratzen da; guztira, 3,5 milioi euro dira, 1,6 euro biztanleko.

Txirrindularitzarako gastu osoaren % 54,2 transferentzia arruntak egiteko izan da; guztira, 1,9 milioi euro. EAE osoan transferentzia-mota horiek egiteko erabili den diru-kopuru osoaren % 3,8. Kapital transferentziak daude bigarren lekuan: txirrindularitzako gastuaren % 21,4 dira, 750 mila euro, hain zuzen (EAEko VII. kapituluko gastuaren % 4,3).

Ondasun arruntek eta zerbitzuek gastuaren % 13,0 hartzen dute (454 mila euro) eta pertsonal gastuek % 7,6 (266 mila euro). Inbertsio errealetara bideratzen dena oso zati txikia da: % 3,9 (135 mila euro). Hiru kapitulu hauetan EAEko gastu osoarekiko pisua oso txikia da, % 0,5-0,3 artekoa.

45. grafikoa.


Txirrindularitzak EAEko kirol-gastuan duen pisua (%)



Iturria: Siadeco, 2025.

46. grafikoa.

Txirrindularitzako eta EAEko kirol-gastua biztanleko (€/biztante)



Iturria: Siadeco, 2025.

69. taula.

Txirrindularitzan egindako gastua, kapitulu ekonomikoen arabera.

Kapitulu ekonomikoa	€	%	EAEko kirol gastuarekiko %
I. Pertsonal gastuak	265.801	7,6	0,5
II. Ondasun arruntak eta zerbitzuak	454.404	13,0	0,3
III. Finantza gastuak	238	0,0	0,3
IV. Transferentzia arruntak	1.899.817	54,2	3,8
VI. Inbertsio errealak	135.037	3,9	0,3
VII. Kapital transferentziak	750.000	21,4	4,3
VIII. Finantza aktiboak	0	0,0	0,0
Guztira	3.505.298	100,0	1,1

Iturria: Siadeco, 2025.



Irristaketa kirolak


EAEko administrazio publikoak 3 milioi euroko gastua egin du 2023an irristaketa kirolen inguruan, kirol-gastu osoaren % 0,9 da. Biztanleko 1,4 euro jarri dituzte.

Transferentzia arruntek hartzen dute zatirik handiena (% 38,9), baina oso gertu daude ondasun arruntak eta zerbitzuak (% 32,4). IV. kapitulura 1,2 milioi euro bideratu dira (EAE osoko % 2,4) eta II. kapitulura, aldiz, 984 mila euro (EAE osoko % 0,6).

Pertsonal gastuak daude ondoren: irristaketa kirolen gastuaren % 18,7 dira, 568 mila euro eta EAE osoko I. kapituluko kopuruaren % 1. Azken kopururik esanguratsuena inbertsio errealena da: % 10 doa haietara, 303 mila euro, hain zuzen (EAEko gastuarekiko % 0,8).

47. grafikoa.


Irristaketa kirolek EAEko kirol-gastuan duen pisua (%)



Iturria: Siadeco, 2025.

48. grafikoa.

Irristaketa kiroleko eta EAEko kirol-gastua biztanleko (€/biztanle)



Iturria: Siadeco, 2025.

70. taula.

Irristaketa kirolean egindako gastua, kapitulu ekonomikoen arabera.

Kapitulu ekonomikoa	€	%	EAEko kirol gastuarekiko %
I. Pertsonal gastuak	567.900	18,7	1,0
II. Ondasun arruntak eta zerbitzuak	983.793	32,4	0,6
III. Finantza gastuak	3	0,0	0,0
IV. Transferentzia arruntak	1.178.865	38,9	2,4
VI. Inbertsio errealak	302.572	10,0	0,8
VII. Kapital transferentziak	200	0,0	0,0
VIII. Finantza aktiboak	0	0,0	0,0
Guztira	3.033.332	100,0	0,9

Iturria: Siadeco, 2025.



Atletismo kirolak


EAEko 2023ko kirol-gastu kontsolidatua oso zati txikia hartzen du atletismoko kirolek: % 0,6. Guztira 2,1 milioi euro dira, 0,9 euro biztanleko.

Kasu honetan, IV. kapituluak, transferentzia arruntei dagokiena gastuaren ia bi heren da; 1,3 milioi euro jartzen dira dirulaguntzetarako (EAEko helburu horrekin jartzen denaren % 2,6). % 14,5 inbertsio errealek hartu dute: 300 mila euro (EAEko gastuaren % 0,8). Eta nahiko pareko dago ondasun arruntetarako eta zerbitzuetarako jarritakoarekin: 286 mila euro, atletismoko gastuen % 13,8.

Zertxobait gutxiago bideratu da, I. kapitulura, pertsonal gastuetara: % 9, 187 mila euro (EAE osoarekiko % 0,3).

49. grafikoa.


Atletismo kirolek EAEko kirol-gastuan duen pisua (%)



Iturria: Siadeco, 2025.

50. grafikoa.

Atletismo kiroleko eta EAEko kirol-gastua biztanleko (€/biztanle)



Iturria: Siadeco, 2025.

71. taula.

Atletismo kiroleko egindako gastua, kapitulu ekonomikoen arabera.

Kapitulu ekonomikoa	€	%	EAEko kirol gastuarekiko %
I. Pertsonal gastuak	186.995	9,0	0,3
II. Ondasun arruntak eta zerbitzuak	285.956	13,8	0,2
III. Finantza gastuak	59	0,0	0,1
IV. Transferentzia arruntak	1.297.234	62,7	2,6
VI. Inbertsio errealek	299.708	14,5	0,8
VII. Kapital transferentziak	0	0,0	0,0
VIII. Finantza aktiboak	0	0,0	0,0
Guztira	2.069.953	100,0	0,6

Iturria: Siadeco, 2025.



Mendiko kirolak

2023an EAEko kirol-gastu kontsolidatuaren % 0,3 bideratzen da mendiko kirolek; guztira, 1,1 milioi euro. Biztanleko 0,5 euro dira.


Kirol-eremu honen gastu osoa aztertuta, transferentzia arruntek oso pisu handia hartzen dute: mendiko kirolaren gastuaren % 71,8 dira; guztira, 822 mila euro. EAE osoan IV. kapitulura bideratutako zenbatekoaren % 1,7 da.

Pertsonal gastuak dira % 10,7; guztira, 123 mila euro. EAE osoan I. kapitulurako jarritako kopuru osoaren % 0,2. Hirugarren tokian ondasun arruntak eta zerbitzuak daude. kirol-eremu honen gastuen % 8,8 dira; guztira, 100 mila euro (EAEko ondasun arruntak eta zerbitzuen % 0,1).

Kapital gastuetara doa gainontzekoa: inbertsio errealek % 6,5 (75 mila euro) eta kapital transferentzietara % 2,2 (25 mila euro). Kapitulu bakoitzaren EAE osoko zenbatekoetan % 0,2 eta % 0,1eko pisua dute, hurrenez hurren.

51. grafikoa.


Mendiko kirolek EAEko kirol-gastuan duen pisua (%)



Iturria: Siadeco, 2025.

52. grafikoa.

Mendiko kirolek eta EAEko kirol-gastua biztanleko (€/biztanle)



Iturria: Siadeco, 2025.

72. taula.

Mendiko kirolek egindako gastua, kapitulu ekonomikoen arabera.

Kapitulu ekonomikoa	€	%	EAEko kirol gastuarekiko %
I. Pertsonal gastuak	122.704	10,7	0,2
II. Ondasun arruntak eta zerbitzuak	100.439	8,8	0,1
III. Finantza gastuak	30	0,0	0,0
IV. Transferentzia arruntak	821.758	71,8	1,7
VI. Inbertsio errealek	74.658	6,5	0,2
VII. Kapital transferentziak	25.000	2,2	0,1
VIII. Finantza aktiboak		0,0	0,0
Guztira	1.144.589	100,0	0,3

Iturria: Siadeco, 2025.



Nabigazio-kirolak


2023an EAEn kirol-gastuetarako jarritako diru-kopuru osoaren % 0,3 nabigazio-kiroletan gastatu da; hain zuzen, 999 mila euro bideratu dira kirol-eremu horretara. Biztanleko 0,5 euro dira.

Kopuru horren banaketa aztertuta, % 58,9 transferentzia arruntak egiteko erabili dute erakunde publikoek: 588 mila euro banatu dira era horretan (EAE osoan transferentzia bidez erabilitako kopuruaren % 1,2). Beste zati esanguratsu bat inbertsio errealek eraman dute; guztira, 310 mila euro izan dira (nabigazio-kiroletako gastuen % 31,0 eta EAEko kapitulu horren zenbatekoaren % 0,8).

Pertsonal gastuak % 5,7 dira (57 mila euro), kapital transferentziak % 3,3 (33 mila euro) eta ondasun arruntak eta zerbitzuak % 1,0 (ia 10 mila euro). EAE osoko zenbatekoetan % 0-0,2 arteko pisua du bakoitzak.

53. grafikoa.


Nabigazio-kirolek EAEko kirol-gastuan duen pisua (%)



Iturria: Siadeco, 2025.

54. grafikoa.

Nabigazio-kiroletako eta EAEko kirol-gastua biztanleko (€/biztanle)



Iturria: Siadeco, 2025.

73. taula.

Nabigazio-kiroletan egindako gastua, kapitulu ekonomikoen arabera.

Kapitulu ekonomikoa	€	%	EAEko kirol gastuarekiko %
I. Pertsonal gastuak	57.194	5,7	0,1
II. Ondasun arruntak eta zerbitzuak	9.826	1,0	0,0
III. Finantza gastuak	0	0,0	0,0
IV. Transferentzia arruntak	588.418	58,9	1,2
VI. Inbertsio errealek	310.083	31,0	0,8
VII. Kapital transferentziak	33.300	3,3	0,2
VIII. Finantza aktiboak	0	0,0	0,0
Guztira	998.821	100,0	0,3

Iturria: Siadeco, 2025.



Herri kirolak


Herri kiroletako gastuetarako 2023ko kirol-gastu kontsolidatuaren % 0,2 erabili zuten EAEko erakunde publikoek; guztira, 821 mila euro, hau da, 0,4 euro biztanleko.

Herri kiroletako gastuen hamar eurotik zortzi (% 80,6) transferentzia arruntetara bideratu da: 661 mila euro (EAE osoko transferentzia arruntaren % 1,3). Gastu horren % 9,5 pertsonal gastuak dira, 78 mila euro (pertsonal gastuen % 0,1).

Inbertsio errealek % 5,1eko pisua dute (42 mila euro) eta % 4,9koa ondasun arruntek eta zerbitzuek (40 mila euro). EAE mailako kopuruan ia ez dute arrastorik: % 0,1 eta % 0,0 dira, hurrenez hurren.

55. grafikoa.


Herri-kirolek EAEko kirol-gastuan duen pisua (%)



Iturria: Siadeco, 2025.

56. grafikoa.

Herri-kiroletako eta EAEko kirol-gastua biztanleko (€/biztanle)



Iturria: Siadeco, 2025.

74. taula.

Herri-kiroletan egindako gastua, kapitulu ekonomikoen arabera.

Kapitulu ekonomikoa	€	%	EAEko kirol gastuarekiko %
I. Pertsonal gastuak	77.636	9,5	0,1
II. Ondasun arruntak eta zerbitzuak	39.861	4,9	0,0
III. Finantza gastuak	5	0,0	0,0
IV. Transferentzia arruntak	661.473	80,6	1,3
VI. Inbertsio errealek	41.798	5,1	0,1
VII. Kapital transferentziak	0	0,0	0,0
VIII. Finantza aktiboak	0	0,0	0,0
Guztira	820.774	100,0	0,2

Iturria: Siadeco, 2025.



Borroka-kirolak


2023an EAEko kirol-gastuaren % 0,2 hartu dute, baita ere, borroka-kirolek; guztira, 536 mila euro eta 0,2 euro biztanleko.

Kopuru horren ia hiru laurden IV. kapituluak hartzen du (% 72,6): 389 mila euro banatu dira transferentzia arrunten bidez. EAEko zenbateko osoaren % 0,8 hartu dute borroka-kirolek.

Borroka-kirolen inguruko inbertsio errealetarako jarri dute gastuaren % 11,6, hau da, 62 mila euro inguru (EAE osoko inbertsio errealen % 0,2). Eta neurri txikiagoan finantziatu dituzte pertsonal gastuak (% 8,9, 48 mila euro) eta ondasun arruntak eta zerbitzuak (% 6,9, 37 mila euro). Azkeneko bi kopuru hauek EAE mailako gastuan % 0,1 eta % 0,0 artean daude.

57. grafikoa.


Borroka-kirolek EAEko kirol-gastuan duen pisua (%)



Iturria: Siadeco, 2025.

58. grafikoa.

Borroka-kirolek eta EAEko kirol-gastua biztanleko (€/biztanle)



Iturria: Siadeco, 2025.

75. taula.

Borroka-kirolek egindako gastua, kapitulu ekonomikoen arabera.

Kapitulu ekonomikoa	€	%	EAEko kirol gastuarekiko %
I. Pertsonal gastuak	47.932	8,9	0,1
II. Ondasun arruntak eta zerbitzuak	36.841	6,9	0,0
III. Finantza gastuak	2	0,0	0,0
IV. Transferentzia arruntak	389.182	72,6	0,8
VI. Inbertsio errealak	62.377	11,6	0,2
VII. Kapital transferentziak	0	0,0	0,0
VIII. Finantza aktiboak	0	0,0	0,0
Guztira	536.334	100,0	0,2

Iturria: Siadeco, 2025.




Motor-kirolak

2023an EAEko kirol-gastu kontsolidatuaren zatirik txikiena jaso dute motor-kirolek: % 0,1, kopuru absolututan, 197 mila euro. 0,1 euro biztanleko.

IV. kapituluak hartzen du hamar eurotik bederatzi pasatxo (% 91,3); guztira, 180 mila euro dira. Gainontzekoa ondasun arruntan eta zerbitzuen eta pertsonal gastuen artean banatzen da: II. kapitulura doa % 4,6 (9 mila euro) eta I. kapitulura % 4,1 (8 mila euro). EAEko gastu osoarekiko kapitulu hauetan duten pisua % 0,0 eta % 0,4 artekoa da.

59. grafikoa.


Motor-kirolek EAEko kirol-gastuan duen pisua (%)



Iturria: Siadeco, 2025.

60. grafikoa.

Motor-kirolek eta EAEko kirol-gastua biztanleko (€/biztanle)



Iturria: Siadeco, 2025.

76. taula.


Motor-kirolek eta EAEko kirol-gastua, kapitulu ekonomikoen arabera.

Kapitulu ekonomikoa	€	%	EAEko kirol gastuarekiko %
I. Pertsonal gastuak	8.107	4,1	0,0
II. Ondasun arruntak eta zerbitzuak	9.075	4,6	0,0
III. Finantza gastuak	2	0,0	0,0
IV. Transferentzia arruntak	179.926	91,3	0,4
VI. Inbertsio errealak	0	0,0	0,0
VII. Kapital transferentziak	0	0,0	0,0
VIII. Finantza aktiboak	0	0,0	0,0
Guztira	197.109	100,0	0,1

Iturria: Siadeco, 2025.

E

KIROL ARLOKO DIRU-SARRERAK



Txostenaren atal honetan EAEko erakunde publikoek 2023an kirol arloan izandako diru-sarrerak eta erakundeen autofinantzaketa-maila aztertuko dira.

Foru aldundien kirol-arloko diru-sarrerak 259 mila eurokoak izan dira 2023an, kirol-gastuaren % 0,6, eta diru-sarrera horiek propioak dira bere osotasunean, hau da, beren jardueraren finantzaketarako erakundeek lortzen dituzten baliabideak dira, beste erakunde publiko batzuetatik jasotzen dituzten dirulaguntzak edo transferentziak ez direnak.

EAEko udalek 38,3 milioi euroko diru-sarrerak izan dituzte kirol-arloan, kirol-gastu osoaren % 16,2. Diru-sarreraren ia bi heren (% 64,9 eta 24,9 milioi euro) diru-sarrera propioak izan dira, eta III. kapitulu ekonomikoko tasa eta prezio publikoen bitartez eskuratutakoak dira neurri handi batean (24,5 milioi euro jaso dituzte EAEko udalek tasa eta prezio publikoetatik, nagusiki kiroldegien erabilerari loturikoak), eta 143 mila euro ondasunen gaineko diru-sarrerak izan dira. Hori horrela, udalen kirol-arloko autofinantzaketa-maila (kirol-gastu osoarekiko diru-sarrera propioek duten pisua) % 10,5koa izan da 2023an.

Organismo autonomoek, sozietate publikoek eta fundazioek kirol arloan duten finantzaketa altuagatik eta autofinantzaketa-mailagatik nabarmentzen dira. Erakunde horien autofinantzaketa-maila % 37,9koa da: kirol-arloko diru-sarrerak 107,6 milioi eurokoak dira, eta kirol arloko diru-sarrera propioak, 41,4 milioi eurokoak. Diru-sarrera propioen zati handiena, kasu honetan ere, III. kapituluko tasa eta prezio publikoei dagokie (39,3 milioi euro). Transferentzia arrunten bidez 56,1 milioi euro jaso dituzte erakunde hauek 2023an (diru-sarrera guztien % 36,5) eta kapital-transferentzien bidez 11,3 milioi euro (diru-sarrera guztien % 10,5).

77. taula.


Kirol arloko diru-sarrerak eta diru-sarrera propioak, entitate-motaren arabera.

	Kirol-gastu likidatua	Kirol arloko diru-sarrerak guztira		Kirol arloko diru-sarrera propioak		
	€	€	Kirol-gastu osoarekiko %	€	Diru-sarrera guztiekiko %	Kirol-gastu osoarekiko %
Eusko Jaurlaritza	17.042.942	0	0,0	0	-	0,0
Foru aldundiak	45.777.854	259.291	0,6	259.291	100,0	0,6
Udalak	236.718.222	38.270.106	16,2	24.852.177	64,9	10,5
Organismo autonomoak, sozietate publikoak eta fundazioak	109.270.371	107.647.041	98,5	41.376.772	38,4	37,9
Guztira	408.809.389	146.176.438	35,8	66.488.241	45,5	16,3

Iturria: Siadeco, 2025.

61. grafikoa.

Autofinantziazio-maila, erakunde-motaren arabera.



Iturria: Siadeco, 2025.

EAEko administrazio publikoaren diru-sarrera guztiak kontuan hartuta, tasak eta prezio publikoak nagusitzen dira: diru-sarrera guztien % 43,7 dira (63,8 milioi euro); jarraian, transferentzia arruntak daude (diru-sarreraren %

39,8 eta 58,1 milioi euro); eta hirugarren tokian, kapital-transferentziak (diru-sarreraren % 15,8 eta 23,1 milioi euro).

Ondasunen gaineko diru-sarreraren zenbatekoa ia milioi bat eurokoa izan da 2023an (% 0,7), finantza aktibo eta pasiboen bitartez, 99 mila euro eskuratu dituzte erakundeek (% 0,1), eta azkenik, zuzeneko zergen bitartez ia 7 mila euro.

78. taula.


Kirol arloto diru-sarrerak, erakunde-motaren eta kapitulu ekonomikoaren arabera.

Kapitulu ekonomikoa	Eusko Jurlaritzak		Foru aldundiak		Udalak		Organismo autonomoak, Sozietate Publikoak eta Fundazioak		Guztira	
	€	%	€	%	€	%	€	%	€	%
I. Zuzeneko zergak	0	-	0	0,0	6.561	0,0	0	0,0	6.561	0,0
III. Tasak eta prezio publikoak	0	-	11.281	4,4	24.527.147	64,1	39.272.289	36,5	63.810.717	43,7
IV. Transferentzia arruntak	0	-	248.010	95,6	1.779.496	4,6	56.094.807	52,1	58.122.313	39,8
V. Ondasun gaineko diru-sarrerak	0	-	0	0,0	146.273	0,4	843.991	0,8	990.265	0,7
VII. Kapital transferentziak	0	-	0	0,0	11.810.629	30,9	11.337.118	10,5	23.147.747	15,8
VIII-IX. Finantza aktiboak eta pasiboak	0	-	0	0,0	0	0,0	98.836	0,1	98.836	0,1
Guztira	0	-	259.291	100,0	38.270.106	100,0	107.647.041	100,0	146.176.438	100,0

Iturria: Siadeco, 2025.

F

KIROL ARLOKO ENPLEGUA



Atal honetan administrazio publikoaren kirol arloko enplegua aztertuko da. Kirol arloko enplegua enplegu-motaren eta profilaren edo funtzio profesionalaren arabera aztertu da. Enplegu-motaren arabera ondorengo sailkapena erabili da:

- **PROPIOA:** I. kapituluaren bidez finantzatutako enplegua da.
- **AZPIKONTRATATUA:** erakundearen funtzionamendurako gainontzeko kapituluetatik finantzatutako azpikontratutako pertsona da (II. eta IV. kapituluetatik)


Perfilaren edo funtzio profesionalaren arabera ondorengo kategoriak bereiztu dira:

- **KIROL KUDEAKETA ETA JARDUERAKO PERTSONALA:** kirol arloko pertsona: zuzendariak, teknikariak eta kudeaketa eta administrazioarako pertsona.
- **PERTSONAL LAGUNTZAILEA ETA ZEHARKAKO PERTSONALA:** kirol arlotik kudeatutako aurrekontu partidetatik finantzatutako personal laguntzailea eta zeharkakoa: garbiketa, mantentze-lanetarako teknikariak, segurtasuna...

2023an EAEko administrazio-publikoan 3.062 kirol lanpostu kontabilizatu dira: horietatik 927 lanpostu propioak dira, hau da, administrazioaren egituraren parte diren lanpostuak dira (% 30,3), eta 2.135 lanpostu, azpikontratatuak dira (% 69,7).

62. grafikoa.

Kirol arloan enplegatutako pertsona-kopurua, enplegu-motaren arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2025.

79. taula.

Kirol arloan enplegatutako pertsona-kopurua, enplegu-motaren arabera.


Enplegu-mota	Pertsona kopurua	%
Propioa	927	30,3
Azpikontratatua	2.135	69,7
Guztira	3.062	100,0

Iturria: Siadeco, 2025.

Lanpostu horiek erakundeen arabera nola banatzen diren aztertuta, ikus daiteke lanpostuen erdia baino gehiago udalei dagozkiela: zehazki, 1.682 pertsona ari dira lanean EAEko udaletan kirol arloko zereginetan (lanpostu guztien % 54,9). Beste multzo handi bat, % 42,7, organismo autonomoetan, sozietate publikoetan eta fundazioetan ari da lanean (1.308 lanpostu, zehazki). Foru aldundietan 43 kirol lanpostu daude (% 1,4), eta Eusko Jaurlaritzan, 29 (% 0,9).

63. grafikoa.

Kirol arloan enplegatutako pertsona-kopurua, entitate-motaren arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2025.

80. taula.

Kirol arloan enplegatutako pertsona-kopurua, entitate-motaren arabera.


Entitate-mota	Pertsona kopurua	%
Eusko Jaurlaritza	29	0,9
Foru aldundiak	43	1,4
Udalak	1.682	54,9
Organismo autonomoak, Sozietate Publikoak eta Fundazioak	1.308	42,7
Guztira	3.062	100,0

Iturria: Siadeco, 2025.

Lanpostuen generoaren araberako banaketa nahiko parekoa den arren, gizonetzkoak nagusitzen dira kirol arloko lanpostuetan: lanpostuen % 51,4 gizonetzaenak dira, eta % 48,6, emakumetzaenak. Foru aldundietako lanpostuetan dute emakumetzaenak pisurik altuena (% 55,8 dira emakumetzaenak), eta batezbestekoa baino zertxobait altuagoa da Eusko Jaurlaritzan (% 51,7) eta udaletan (% 49,9).

64. grafikoa.

Kirol arloan enplegatutako pertsona-kopurua, generoaren arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2025.

81. taula.

Kirol arloan enplegatutako pertsona-kopurua, entitate-motaren eta generoaren arabera.

Entitate-mota		Emakumetza	Gizonetza	Besterik	Guztira
Eusko Jaurlaritza	Pertsona kop.	15	14	0	29
	%	51,7	48,3	0,0	100,0
Foru aldundiak	Pertsona kop.	24	19	0	43
	%	55,8	44,2	0,0	100,0
Udalak	Pertsona kop.	839	842	1	1.682
	%	49,9	50,1	0,1	100,0
Organismo autonomoak, Sozietate Publikoak eta Fundazioak	Pertsona kop.	610	698	0	1.308
	%	46,6	53,4	0,0	100,0
Guztira	Pertsona kop.	1.488	1.573	1	3.062
	%	48,6	51,4	0,0	100,0


Iturria: Siadeco, 2025.

Funtzio profesionalaren arabera, kirol kudeaketarekin eta jarduerarekin lotura duten lanpostuak nagusitzen dira 2023an EAEko administrazio publikoan: zehazki, 1.776 lanpostu dira kirol-kudeaketari loturiko funtzioak betetzen dituztenak (kirol zuzendariak, teknikariak, administrazioko pertsonala...), lanpostu guztien % 58,0. Horien artean kirol-teknikariak dira gehiengoa (1.170 kirol-teknikari daude guztira); ondoren, kudeaketa eta administrazio funtzioetako lanpostuak dira gehien, 519 lanpostu; eta azkenik, kirol-zuzendariak daude, 87 lanposturekin.

Zeharkako pertsonaleko eta pertsonal laguntzaileko zereginetarako 1.285 lanpostu daude administrazio publikoko kirol arloan (lanpostuen % 42,0). Garbiketarekin lotura duten lanpostuak 556 dira, mantentze-lanetakoak 268, eta segurtasunekoak 47; aurreko kategoriatan sailkatu ez diren bestelako lanpostuak 414 dira.

65. grafikoa.

Kirol arloan enplegatutako pertsona-kopurua, funtzio profesionalaren arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2025.

82. taula.

Kirol arloan enplegatutako pertsona-kopurua, funtzio profesionalaren arabera.

Enplegu-mota	Pertsona kopurua	%
Kirol kudeaketa eta jarduera	1.776	58,0
Pertsonal laguntzailea eta zeharkako pertsonala	1.285	42,0
Guztira	3.062	100,0


Iturria: Siadeco, 2025.

Lanpostuen funtzio profesionala generoaren arabera aztertuta, ikusten da emakumezkoen presentzia altuagoa dela pertsonal laguntzaileen eta zeharkako pertsonalaren artean kirolaren kudeaketarako lanpostuetan baino. Gainera, kategoria horren baitan ere aldeak daude funtzio ezberdinen artean; horrela, garbiketa lanpostuetan da altuena emakumezkoen proportzioa eta kopurua: % 70,8 eta 394 lanpostu, emakumezkoenak dira. Mantentze-lanetan, aldiz, nabarmen jaisten da proportzio hori: lanpostuen % 21,4 dira emakumezkoenak (57 lanpostu).

Kirol-kudeaketako lanpostuetan, funtzio profesional ezberdinen arteko aldeak hainbestekoak ez diren arren, ikus daiteke emakumezkoen presentzia altuagoa dela kudeaketa eta administraziorako pertsonalean: % 51 dira emakumezkoak lanpostu horietan (265 lanpostu); aldiz, teknikarien % 42,7 dira emakumezkoak (500 lanpostu), eta zuzendarien % 40,7 (35 lanpostu).

66. grafikoa.


Kirol arloan enplegatutako pertsona-kopurua, funtzio profesionalaren eta generoaren arabera (%).



Iturria: Siadeco, 2025.

67. grafikoa.

Kirol arloan enplegatutako emakumezkoak, funtzio profesionalaren arabera (%).



Iturria: Siadeco, 2025.

83. taula.

Kirol arloan enplegatutako pertsona-kopurua, funtzio profesionalaren eta generoaren arabera

Funtzio profesionala			Emakumezkoa	Gizonezkoa	Besterik	Guztira
Kirol kudeaketa eta jarduera	Zuzendaria	Pertsona kop.	35	52	0	87
		%	40,7	59,3	0,0	100,0
	Teknikaria	Pertsona kop.	500	670	0	1.170
		%	42,7	57,3	0,0	100,0
	Kudeaketa	Pertsona kop.	265	254	1	519
		%	51,0	48,9	0,2	100,0
	Guztira	Pertsona kop.	800	975	1	1.776
		%	45,0	54,9	0,1	100,0
Pertsonal laguntzailea eta zeharkako pertsonala	Garbiketa	Pertsona kop.	394	162	0	556
		%	70,8	29,2	0,0	100,0
	Mantentze-lanak	Pertsona kop.	57	211	0	268
		%	21,4	78,6	0,0	100,0
	Segurtasuna	Pertsona kop.	23	25	0	47
		%	47,9	52,1	0,0	100,0
	Besterik	Pertsona kop.	214	200	0	414
		%	51,7	48,3	0,0	100,0
Guztira	Pertsona kop.	688	598	0	1.285	
	%	53,5	46,5	0,0	100,0	
Guztira		Pertsona kop.	1.488	1.573	1	3.062
		%	48,6	51,4	0,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2025.


Erakunde bakoitzeko kirol arloko lanpostuak enplegu-motaren eta funtzio profesionalaren arabera nola banatzen diren aztertuta, joera ezberdinak antzematen dira erakunde-mota bakoitzean.

Eusko Jaurlaritzan eta foru aldundietan kirolaren kudeaketaz eta jardueraz arduratzen diren lanpostu propioak nagusitzen dira (lanpostuen % 79,3 eta % 100, hurrenez hurren).

Eusko Jaurlaritzan eta foru aldundietan ez bezala, udaletan eta menpeko organismo autonomo, sozietate publiko eta fundazioetan azpikontrataturako pertsonala nagusitzen da kirol esparruan, bai kirol-kudeaketari dagokion enpleguan, zein pertsonal laguntzaile eta zeharkakoan. Udaletan azpikontrataturako kirol kudeaketarako pertsonalari dagokio lanpostuen % 39,3, eta azpikontrataturako pertsonal laguntzaileari % 30,2; menpeko erakundeetan, berriz, lanpostuen % 41,5 eta % 32,1 dira kirol-kudeaketakoak eta pertsonal laguntzaileei dagozkienak, hurrenez hurren.

68. grafikoa.

Kirol arloko lanpostuak, enplegu-motaren, funtzio profesionalaren eta entitate-motaren arabera (%).



Iturria: Siadeco, 2025.

84. taula.


Kirol arloan enplegatutako pertsona-kopurua, enplegu-motaren, funtzio profesionalaren eta entitate-motaren arabera

Funtzio profesionala		Eusko Jaurlaritza		Foru aldundiak		Udalak		Organismo autonomoak, Sozietate Publikoak eta Fundazioak		Guztira	
		Pertsona kop.	%	Pertsona kop.	%	Pertsona kop.	%	Pertsona kop.	%	Pertsona kop.	%
Propioa	Kirol kudeaketa eta jarduera	23	79,3	43	100,0	235	14,0	272	20,8	573	18,7
	Pertsonal laguntzailea eta zeharkako pertsonala	3	10,3	0	0,0	278	16,5	73	5,6	354	11,6
	Guztira	26	89,7	43	100,0	513	30,5	345	26,4	927	30,3
Azpikontratatua	Kirol kudeaketa eta jarduera	0	0,0	0	0,0	661	39,3	543	41,5	1.204	39,3
	Pertsonal laguntzailea eta zeharkako pertsonala	3	10,3	0	0,0	508	30,2	420	32,1	931	30,4
	Guztira	3	10,3	0	0,0	1.169	69,5	963	73,6	2.135	69,7
Guztira	Kirol kudeaketa eta jarduera	23	79,3	43	100,0	895	53,2	815	62,3	1.776	58,0
	Pertsonal laguntzailea eta zeharkako pertsonala	6	20,7	0	0,0	786	46,8	493	37,7	1.285	42,0
	Guztira	29	100,0	43	100,0	1.682	100,0	1.308	100,0	3.062	100,0

Iturria: Siadeco, 2025.

G


KIROLDEGIEN KUDEAKETA



Ikerketaren unibertsoa izan diren bost erakundetik bik kiroldegia dute (% 60,0). Hain zuzen, kiroldegirik ez duten udalerri guztiak 5.000 biztanlez azpikoak dira; eta aldiz, 5.000 biztanlez gorako EAEko udalerri guztietan dago, gutxienez, kiroldegì bat.

69. grafikoa.

Kiroldegia duten erakunde publikoak (%)



Iturria: Siadeco, 2025.

85. taula.

Kiroldegia duten erakunde publikoak, erakunde-motaren arabera (lagina)

Erakunde-mota	Kiroldegia dute		Ez dute kiroldegirik		Guztira	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Eusko Jurlaritza	0	0,0	1	100,0	1	100,0
Foru Aldundiak	0	0,0	3	100,0	3	100,0
Udalak	106	61,3	67	38,7	173	100,0
< 5.000 biztanle	33	33,0	67	67,0	100	100,0
5.000-20.000 biztanle	54	100,0	0	0,0	54	100,0
> 20.000 biztanle	16	100,0	0	0,0	16	100,0
Hiriburuak	3	100,0	0	0,0	3	100,0
Organismo autonomoak, sozietate publikoak eta fundazioak	14	60,9	9	39,1	23	100,0
Guztira	120	60,0	80	40,0	200	100,0


Iturria: Siadeco, 2025.

Kiroldegia duten erakundeei horien kudeaketa-moduaz galdetuta, zuzeneko kudeaketa egiten dutela adierazi du gehiengoak (% 42,5), udal baliabide propioen bidez kudeatzen dela kiroldegia, alegia. Zeharkako kudeaketa-modua da bigarren kudeaketa-modu ohikoena (% 35,8), eta % 10,8k kudeaketa mistoa egiten du, hau da, administrazio publikoaz gain kanpoko enpresa baten kontratazioa ere egiten da kirol-jarduera edo -zerbitzu batzuk aurrera eramateko.

Udalerriaren tamainak eragina du kiroldegien kudeaketa-ereduan: udalerri txikienetan, 5.000 biztanlez azpikoetan, ohikoagoa da kiroldegia zuzenean udalek gestionatzea, azpikontrataziorik gabe (horrela egiten du kiroldegia duten tamaina horretako udalen % 69,7k); aldiz, 5.000 biztanletik gorako udaletan zeharkako kudeaketa nagusitzen da (kiroldegien % 53,7 modu horretara kudeatzen da 5.000 eta 20.000 biztanle arteko udaletan, eta % 31,3, 20.000 biztanlez gorakoetan).

70. grafikoa.

Kiroldegien kudeaketa-mota, erakunde-motaren arabera (lagina) (%).



Iturria: Siadeco, 2025.

86. taula.

Kiroldegien kudeaketa-mota, erakunde-motaren arabera (lagina)

Erakunde-mota	Zuzena		Zeharkakoa		Mistoa		Ed/Ee		Guztira	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Udalak	38	37,3	40	39,2	11	10,8	13	12,7	102	100,0
< 5.000 biztanle	23	69,7	6	18,2	4	12,1	0	0,0	33	100,0
5.000-20.000 biztanle	15	27,8	29	53,7	6	11,1	4	7,4	54	100,0
> 20.000 biztanle	4	25,0	5	31,3	1	6,3	6	37,5	16	100,0
Hiriburuak	0	0,0	0	0,0	0	0,0	3	100,0	3	100,0
Organismo autonomoak, sozietate publikoak eta fundazioak	9	64,3	3	21,4	2	14,3	0	0,0	14	100,0
Guztira	51	42,5	43	35,8	13	10,8	13	10,8	120	100,0

Iturria: Siadeco, 2025.

Kiroldegien kudeaketa zeharkakoa edo mistoa den kasuetan, zerbitzu-enpresen kontratazioa egoten da tarteko. Kiroldegiairen kudeaketaren ardura zein enpresek duten galdetuta, ikusin da EAE mailan 20 enpresa inguruk parte hartzen dutela kudeaketa horretan. Gainera, lurraldearen arabera zerbitzu-enpresa ezberdinen nagusitasuna ikus daiteke: Gipuzkoan BPXport Kirol Zerbitzuak SL eta BPXport XXI SLU nagusitzen diren bitartean, Bizkaian Guedan Servicios Deportivos SA eta Emtesport SL enpresak nabarmentzen dira, kudeatzen dituzten kiroldegi kopuruagatik.


87. taula.

Kiroldegien kudeaketaz arduratzen diren enpresa nagusiak, kiroldegiak kokatzen diren lurraldearen arabera

Enpresaren izena	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
ABILION		1	
ASTIGARRAGAKO MUNDARRO FKE		1	
ATHLON KOOP. E		1	1
ATHLON SINTAGMIA, S.L.			1
BI SPORT 2011, S.L.			2
BIZKORTZEN S.L		1	
BPXPORT KIROL ZERBITZUAK, S.L.		6	1
BPXPORT XXI, S.L.U.		5	
BPXPORT, HEMEN, IHEKI		1	
DISPORT EKI SL	1		
EMTESPORT SL			5
GUEDAN SERVICIOS DEPORTIVOS, S.A.			6
ISTEDOA, E-GOITEK, ANTIO KIROL JARDUERAK		1	
JASO KIROL ZERBITZUAK, S.L		1	1
KIROLGUNE		1	
KIROLZER S.L		2	
MASQUATRO SL		3	
SERVICIO, S.L.		1	
SPORT STUDIO SERVICIOS DEPORTIVOS SL			2
TALDESPORT SERVICIOS DEPORTIVOS	1		
TERESA FERNANDEZ Y OTROS S.C.			1
UTE ABADIÑO KIROLAK			1
UTE GÜENES KIROLA ETA KULTURA			1

H

GENERO IKUSPEGIA



H.1 Genero-berdintasuna sustatzera bideratutako gastua

II. kapitulu ekonomikotik (ondasun arruntak eta zerbitzuak) eta IV. kapitulutik (transferentzia arruntak) genero-berdintasuna sustatzera bideratzen den kirol-gastua ere aztertu da.

EAEko administrazio publikoak 615 mila euro bideratu ditu II. kapitulutik genero-berdintasuna sustatzera (II. kapitulutik egindako gastu guztiaren % 0,36), eta 224 mila euroko transferitu dira bestelako elkarte eta erakundeetara kirolean genero-berdintasuna sustatu dezaten (transferentzia arrunten % 0,21).

Foru aldundiak izan dira helburu hori duen gastu handiena egin duen erakunde-mota: 281 mila euroko gastua egin dute II. kapitulutik, eta 60 mila eurokoa IV. kapitulutik (kapitulu horietan egindako gastuaren % 4,5 eta % 0,30, hurrenez hurren). Jarraian EAEko udalak daude, 231 mila euroko gastuarekin II. kapitulutik (kapituluko gastuaren % 0,23) eta 24 mila euro IV. kapituluko transferentzietan (kapituluko gastuaren % 0,04). Eusko Jaurlaritzak 68 mila euro bideratu ditu genero-berdintasuna sustatzeko ondasun arrunten eta zerbitzuen kontratazioarako partidetara (kapituluko gastuaren % 3,9), eta 140 mila euro, transferentzietara (kapituluko gastuaren % 1,7).

88. taula.

Genero-berdintasun sustatzera bideratutako gastu arrunta, kapitulu ekonomikoaren arabera eta gastua

Erakunde-mota	II. Ondasun arruntak eta zerbitzuak			IV. Transferentzia arruntak		
	Kop.	%	Kapituluko gastuarekiko %	Kop.	%	Kapituluko gastuarekiko %
Eusko Jaurlaritza	68.304	11,1	3,9	140.000	62,6	1,65
Foru Aldundiak	280.886	45,7	4,5	60.000	26,8	0,30
Udalak	231.151	37,6	0,23	23.589	10,6	0,04
Organismo autonomoak, Sozietate Publikoak eta Fundazioak	34.923	5,7	0,57	0	0,0	0,0
Guztira	615.264	100,0	0,36	223.589	100,0	0,21

Iturria: Siadeco, 2025.

H.2 Genero-ikuspegiari buruzko prestakuntza

Guztira 22 erakundek adierazi dute erakundeko kirol arloko langileek genero-ikuspegiari buruzko prestakuntzaren bat jaso dutela. 22 erakunde horietan, guztira, 31 ikastaro eskaini dira: 18 udaletan, 7 organismo autonomoetan, sozietate publikoetan eta fundazioetan, eta 6 Eusko Jaurlaritzan. Eta guztira 426 prestakuntza-ordu jaso dituzte langileek: 292 prestakuntza-ordu udaletako langileek, 113 Eusko Jaurlaritzakoek eta 21 ordu organismo autonomoetakoek, sozietate publikoetakoek eta fundazioetakoek.

89. taula.

Jasotako ikastaro kopurua eta prestakuntza-ordu kopurua, erakunde-motaren arabera.

Erakunde-mota	Ikastaro kopurua		Prestakuntza orduak	
	Kop.	%	Kop.	%
Eusko Jaurlaritza	6	19,4	113	26,5
Udalak	18	58,1	292	68,5
Organismo autonomoak, Sozietate Publikoak eta Fundazioak	7	22,6	21	4,9
Guztira	31	100,0	426	100,0


Iturria: Siadeco, 2025.

Ikastaro horietan guztira 140 langilek hartu du parte: organismo autonomo, sozietate publiko eta fundazioetako 81 langilek, udaletako 53k eta Eusko Jaurlaritzako 6k.

Parte-hartzaileen erdia baino gehixeago emakumezkoak izan dira (% 52,1): emakumeen presentzia nabarmenagoa izan da Eusko Jaurlaritzan (% 83,3) eta organismo autonomo, sozietate publiko eta fundazioetan (% 54,3).

71. grafikoa.

Ikastaroetako parte-hartzaileak, generoaren arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2025.

90. taula.

Ikastaroetako parte-hartzaileak generoaren eta erakunde-motaren arabera.

Erakunde-mota	Emakumezkoa		Gizonezkoa		Besterik		Guztira	
	Kop.	% hor.	Kop.	% hor.	Kop.	% hor.	Kop.	% hor.
Eusko Jaurlaritza	5	83,3	1	16,7	0	0,0	6	100
Udalak	24	45,3	28	52,8	1	1,9	53	100
Organismo autonomoak, Sozietate Publikoak eta Fundazioak	44	54,3	37	45,7	0	0,0	81	100
Guztira	73	52,1	66	47,1	1	0,7	140	100

Iturria: Siadeco, 2025.

Jarraian, EAEko administrazio publikoak genero-ikuspegiari buruz 2023an antolatutako prestakuntza-saioen zerrenda jasotzen da:

- *International Conference on Gender Equality* (Eusko Jaurlaritza)
- *Lan-kultura berdintasunerantz eta aniztasunerantz eraldatzen* (Eusko Jaurlaritza)
- *Mujeres y deporte: la igualdad en juego* (Eusko Jaurlaritza)
- *Mujeres y liderazgo en la administración pública. Piloto.* (Eusko Jaurlaritza)
- *Lenguaje no sexista* (Alegria-Dulantzi)
- *Curso de lenguaje inclusivo* (Agurain/Salvatierra)
- *Protokoloa: Genero ikuspegiaren kontu hartzea kirol plangintza, ekintza,... arlo guztietan* (Asteasu)
- *Berdintasunaren inguruko kontzeptuak* (Lezo)
- *Genero ikuspegiari buruzko ikastaroa* (Mutriku)
- *Sentsibilizazio-ikastaroa* (Orio)
- *Haurren eta nerabeen aurkako sexu-erasoak (UPV/EHU)* (Oiartzun)
- *Maskulinitateak (udal langileak)* (Oiartzun)
- *Maskulinitateak, berdintasuna eta kirola (Emakunde)* (Oiartzun)
- *On line formakuntza: BPXport berdintasuna plana* (Pasaia)
- *Berdintasunaren legea: identifikazio tresnak eta dokumentazioaren moldaketa* (Tolosa)
- *Udalak bere langileei eskainitako formazioa* (Urnieta)
- *Tailerrak eta hitzaldiak* (Elorrio)
- *Formación igualdad personas trabajadoras administración pública* (Lemoa)
- *Buenas prácticas en lenguaje y comunicación* (Zalla)
- *Buenas prácticas para la gobernanza y la igualdad* (Zalla)
- *Curso presupuestos perspectiva de género* (Zalla)
- *La prevención y actuación del acoso sexual y el acoso por razón de sexo en el ámbito laboral de las administraciones públicas, desde la perspectiva de género* (Basauri Kirolak)
- *Igualdad de mujeres y hombres en una instalación deportiva* (Bilbao Kirolak)
- *Intervención deportiva con perspectiva de género* (Bilbao Kirolak)
- *La igualdad de género como motor para el cambio social* (Bilbao Kirolak)
- *Metodologías para introducir la perspectiva de género en la edificación* (Bilbao Kirolak)
- *Formación diversa* (Kirolgi Fundazioa)
- *La empresa contratada colabora con Emakunde y Bai Sarea* (Kirolgi Fundazioa)

H.3 Genero-klausulak enpresen kontratazioan eta diru-laguntzetan

EAEko administrazio publikoa osatzen duten erakundeek kudeatzen dituzten zerbitzu-enpresen kontratazioan (ondasun arruntan eta zerbitzuen kontratazioaren II. kapitulu ekonomikoari dagozkionak) edo ematen dituzten dirulaguntzetan (transferentzien IV. kapitulu ekonomikoari dagozkionak), gastu-partida bakoitzerako genero-klausularik txertatzen den edo ez galdetu da.


Guztira 84 erakundek eman dute zerbitzu-enpresen kontratazioetan edo hitzarmenetan genero-klausulak txertatzeari buruzko informazioa (laginean parte hartu duten erakundeen % 42,0k), eta guztira, 784 gastu-partidatan jaso da informazio hori. Partida horien % 29,3an txertatu ditu administrazio publikoak genero-klausulak 2023an; % 43,6an ez da genero-klausularik txertatu, eta partiden % 27,1ean, estatistikaren erantzuleak ez daki klausula horiek txertatzen diren edo ez.

Genero-klausulak txertatzen diren partiden nolakotasuna aztertuta, ikus daiteke klausulen txertaketa ohikoagoa dela kirol-zerbitzu estrukturaletarako giza-baliabideen kontratazioari dagozkion partidetan (mota honetako partiden % 65,6an txertatu dira genero-klausulak). Bigarren postuan pertsonal laguntzailearen azpikontratazioa dago (partiden % 35,1), eta hirugarren, bestelako gastuak (% 30,1). Genero-klausulen txertaketa ez da hain ohikoa kirol-zerbitzu eta -jardueren kontratazioan (% 26,8), eta hornidura- eta mantentze-gastuetan (% 19,1).

Dirulaguntzei dagokienean, 59 erakundetan jaso da genero-klausulen txertaketari buruzko informazioa (laginean parte hartu duten erakundeen % 30), eta guztira, 958 gastu-partidatan jaso da informazio hori. Dirulaguntzen kasuan genero-klausulen txertaketari buruzko ezagutza handiagoa da (partiden % 4,6an besterik ez dute adierazi ez dakitela genero-klausulak txertatu diren edo ez): klausulak txertatu dira partiden % 58,1an eta ez dira txertatu % 37,3an.

72. grafikoa.

Genero-klausulen txertaketa zerbitzu-enpresen kontratazioan eta diru-laguntzetan (%)



Iturria: Siadeco, 2025.

91. taula.


Genero-klausulen txertaketa zerbitzu-enpresen kontratazioan eta diru-laguntzetan .

Genero-klausulak txertatzen dira	Zerbitzu-enpresen kontratazioan (II. kap.)		Diru-laguntzetan (IV. Kap.)	
	Kop.	%	Kop.	%
Bai	230	29,3	557	58,1
Ez	343	43,6	357	37,3
Ed/Ee	213	27,1	44	4,6
Guztira	786	100,0	958	100,0

Iturria: Siadeco, 2025.

73. grafikoa.

Genero-klausulen txertaketa zerbitzu-enpresen kontratazioan, zerbitzuaren gastu-motaren arabera (%).



Iturria: Siadeco, 2025.

92. taula.

Genero-klausulen txertaketa zerbitzu-enpresen kontratazioan, zerbitzuaren gastu-motaren arabera.

Genero-klausulak txertatzen dira	II.1. Kirol zerbitzu estrukturaletarako giza baliabideak		II.2. Pertsonal laguntzailearen azpikontratazioa		II.3. Kirol zerbitzu eta jarduerak		II.4. Hornidura eta mantentze gastuak		II.5. Bestelako gastuak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Bai	59	65,6	26	35,1	55	26,8	62	19,1	28	30,1
Ez	19	21,1	26	35,1	126	61,5	132	40,7	40	43,0
Ed/Ee	12	13,3	22	29,7	24	11,7	130	40,1	25	26,9
Guztira	90	100,0	74	100,0	205	100,0	324	100,0	93	100,0

Iturria: Siadeco, 2025.

H.4 Berdintasun-planak erakunde publikoek kontratatutako edo diruz lagundutako enpresetan

Berdintasun-klausulez gain kontratatzen diren edo diruz laguntzen diren enpresek berdintasun-planik duten edo ez ere galdetu da. Kasu honetan ere II. kapitulutik kontratatutako enpresei buruz eta IV. kapitulutik diruz lagundutako enpresei buruz galdetu zaie erakundeei.


Kirol arloan kontratatzen diren zerbitzu-enpresei buruzko informazioari dagokionez, 75 erakundetan jaso da informazioa (laginean parte hartu duen erakundeen % 38an), eta 737 partidari buruzko informazioa jaso da. Jasotako informazioaren arabera, aztertutako partiden bidez kontratatutako zerbitzu-enpresen % 23,3k du berdintasun-plana ezarrita enpresan, eta berdintasun-planik ez dutenak % 10,9 dira. Adierazgarria da partiden % 65,8an erakundeek ez dakitela enpresek planik duten edo ez.

Berdintasun-planak ohikoagoak dira kirol-zerbitzu estrukturaletarako giza baliabideak kontratatzeko enpresetan (% 64,6), eta ondoren, pertsonal laguntzailea azpikontratatzeko enpresetan (% 40,0). Jarraian daude bestelako gastuetarako kontratatzen diren enpresak (% 20,2), kirol-zerbitzu eta -jarduerak aurrera eramateko kontratatzen diren enpresak (% 19,8), eta azkenik, hornidura- eta mantentze-gastuen enpresak (% 11,5). Azken hiru horietan berdintasun-plana edukitzeari buruzko ezezagutza altua da (% 67,4, % 72,9 eta % 74,0, hurrenez hurren).

Erakundeek ez dute erantzun edo ez dakite dirulaguntza jaso duten erakundeen, enpresen edo elkarteen % 75ak berdintasun-planik duen. % 8,1ak baduela adierazi dute, eta % 16,7k ez duela.

74. grafikoa.

Erakundeek kirol arloan kontratatzen dituzten zerbitzu-enpresek eta kirol arloko diru-laguntzetan hartzaileak diren enpresek berdintasun-planik duten edo ez (%)



Iturria: Siadeco, 2025.

93. taula.


Erakundeek kirol arloan kontratatzen dituzte zerbitzu-enpresek eta kirol arloko dirulaguntzetan hartzaileak diren enpresek berdintasun-planik duten edo ez.

Berdintasun-plana dute	Kontratatzen diren zerbitzu-enpresek (II. kap.)		Dirulaguntzen hartzaileak diren enpresek (IV. Kap.)	
	Kop.	%	Kop.	%
Bai	172	23,3	75	8,1
Ez	80	10,9	154	16,7
Ed/Ee	485	65,8	692	75,1
Guztira	737	100,0	921	100,0

Iturria: Siadeco, 2025.

75. grafikoa.

Berdintasun-plana duten kontratatutako enpresek, kontratazioaren gastu-motaren arabera (%).



Iturria: Siadeco, 2025.


94. taula.

Berdintasun-plana duten kontratatutako enpresek, kontratazioaren gastu-motaren arabera.

Berdintasun-plana dute	II.1. Kirol zerbitzu estrukturaletarako giza baliabideak		II.2. Pertsonal laguntzailearen azpikontratazioa		II.3. Kirol zerbitzu eta jarduerak		II.4. Hornidura eta mantentze gastuak		II.5. Bestelako gastuak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Bai	53	64,6	28	40,0	38	19,8	35	11,5	18	20,2
Ez	1	1,2	10	14,3	14	7,3	44	14,5	11	12,4
Ed/Ee	28	34,1	32	45,7	140	72,9	225	74,0	60	67,4
Guztira	82	100,0	70	100,0	192	100,0	304	100,0	89	100,0

Iturria: Siadeco, 2025.

I HIZKUNTZA IRIZPIDEAK




Estatistikan parte hartu duten administrazioei galdetu zaie ea ondasun arruntan eta zerbitzuen kontratazioan (II. kapitulutik egiten direnak) edo dirulaguntzetan hizkuntza-klausulak sartzen diren. Hizkuntza-klausulei buruzko erantzun-maila genero-klausulez eta berdintasun-planaz galdetutakoan lortutako erantzun-mailaren antzekoa izan da: 85 erakundek eman dute klausula horiei buruzko informazioa II. kapituluko kontratazioetan (lagineko erakundeen % 43k 792 partidari buruzko informazioa eman dute), eta 58 erakundek dirulaguntzei buruzkoa (lagineko erakundeen % 29k, 958 partidari buruzko informazioa eman dute).

Zerbitzu-enpresen kontratazioen herenetan sartzen dira hizkuntza-klausulak (% 33,3); % 40,2tan ez da mota horretako klausularik sartzen, eta laurden bat pasatxotan erakundeek ez dakite sartzen diren edo ez. Badirudi hizkuntza-klausulak sartzeari buruzko ezagutza handiagoa da (partiden % 4tan besterik ez dute adierazi ez daukatela hizkuntza-klausulen txertaketaren berri). Dirulaguntzen ia herenean sartzen dira hizkuntza-klausulak (% 32,4).

Dirulaguntzetan hizkuntza-klausulak sartzeari buruzko ezagutza handiagoa da (partiden % 4tan besterik ez dute adierazi ez daukatela hizkuntza-klausulen txertaketaren berri). Dirulaguntzen ia herenean sartzen dira hizkuntza-klausulak (% 32,4).

76. grafikoa.

Hizkuntza-klausulen txertaketa zerbitzu-enpresen kontratazioan eta diru-laguntzetan (%)



Iturria: Siadeco, 2025.

95. taula.


Hizkuntza-klausulen txertaketa zerbitzu-enpresen kontratazioan eta dirulaguntzetan.

Berdintasun-plana dute	Kontratatzaren diren zerbitzu-enpresak (II. kap.)		Dirulaguntzen hartzaileak diren enpresak (IV. Kap.)	
	Kop.	%	Kop.	%
Bai	264	33,3	310	32,4
Ez	318	40,2	610	63,7
Ed/Ee	210	26,5	38	4,0
Guztira	792	100,0	958	100,0

Iturria: Siadeco, 2025.

77. grafikoa.

Hizkuntza-klausulen txertaketa zerbitzu-enpresen kontratazioan, zerbitzuaren gastu-motaren arabera (%).



Iturria: Siadeco, 2025.

96. taula.


Hizkuntza-klausulen txertaketa zerbitzu-enpresen kontratazioan, zerbitzuaren gastu-motaren arabera.

Berdintasun-plana dute	II.1. Kirol zerbitzu estrukturaletarako giza baliabideak		II.2. Pertsonal laguntzailearen azpikontratazioa		II.3. Kirol zerbitzu eta jarduerak		II.4. Hornidura eta mantentze gastuak		II.5. Bestelako gastuak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Bai	70	79,5	30	39,0	68	32,7	69	21,2	27	28,7
Ed/Ee	12	13,6	26	33,8	120	57,7	122	37,5	38	40,4
Ez	6	6,8	21	27,3	20	9,6	134	41,2	29	30,9
Guztira	88	100,0	77	100,0	208	100,0	325	100,0	94	100,0

Iturria: Siadeco, 2025.

J

EMAITZA NAGUSIAK



- **EAEko administrazio publikoaren 2023ko kirol-gastu likidatua guztira 408.809.389 eurokoa izan da** –2018an 280.985.328 eurokoa izan zela estimatu zen–. Gastu horretatik % 57,9 udalei dagokie (236,7 milioi euro); % 26,7 organismo autonomoei, sozietate publikoei eta fundazioei (109,3 milioi euro); % 11,2 foru aldundiei (45,8 milioi euro); eta % 4,2 Eusko Jaurlaritzari (17 milioi euro). Erakunde-mota hauen gastu osoarekiko, udalen kasuan du pisurik handiena kirolera bideratutakoak: % 6,26 hartzen du, gehiena 5 eta 20 mila biztanle arteko udalerrietan (% 8,54) eta gutxiena, aldiz, hiriburuetan (% 4,44). Foru aldundien kasuan gastu osoaren % 0,24 bideratzen dute kirolera, eta Eusko Jaurlaritzan, % 0,12. Era berean, biztanleko udalek gastatzen dute gehien: 107,8 euro; 141 euro 5 eta 20 mila biztanle artekoek eta 84,7 euro hiriburuak. Foru aldundiek 20,8 euro jartzen dituzte biztanleko, eta Eusko Jaurlaritzak 7,8 euro biztanleko.

- **Kirol-gastu likidatuaren zatirik handiena gastu arruntera bideratzen dute EAEko erakunde publikoek, hamarretik 6 eta 8 euro artean.** Gastu arruntean gehien gastatzen duen erakunde-mota organismo autonomoena, sozietate publikoena eta fundazioena da (kirol-gastu osoaren % 86,4), eta gutxien foru aldundiek gastatzen dute (gastu osoaren % 64,6).

I.eta II. Kapituluetako gastuak nabarmentzen dira, bereziki: gastu osoaren % 13,4 bideratzen da pertsonal gastuetara (54,7 milioi euro), eta % 41,6, ondasun arruntetara eta zerbitzuetara (170 milioi euro). Pertsonal gastuaren kasuan, hiru laurden baino gehiago kirol jardueretarako pertsonal propiorako da (% 79,7): Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien kasuan % 100, organismo autonomoen, sozietate publikoen eta fundazioen kasuan % 99,9, eta udaletan, aldiz, asko jaisten da, % 60,7ra.

Ondasun arruntetarako eta zerbitzuetarako jartzen den zenbatekoaren zatirik handiena hornidura- eta mantentze-gastuetara bideratzen da (% 37,7). Gastu-mota hau udaletan eta erakunde autonomoetan nabarmentzen da –erakunde bakoitzaren gastuaren % 40,4 eta % 36,1 hartzen dute, hurrenez hurren–. Eusko Jaurlaritzan eta foru aldundietan, aldiz, gehiago jartzen da kirol zerbitzuen eta jardueren kontratazioarako (% 44,6 eta % 43,7).

- **Gastuaren helburuari erreparatuta, hamar eurotik bederatzi baino gehiago bestelako kirol jardueretara bideratu dute EAEko erakundeek 2023an: 408,8 milioi eurotik ia 371,5 milioi euro (% 90,9).** Erakunde-moten arabera, udalen kirol-gastuan du helburu honek pisurik handiena, ia gastu osoa hartzen baitu (% 95,6) –helburu honen barruan daude eguneroko funtzionamenduari loturiko pertsonal gastuak, hornidura gastuak, etab.–; aldiz, Eusko Jaurlaritzan gastuaren erdia besterik ez da (% 54,6). Kasu honetan, kirol gastuaren % 43,3 goi-mailako lehiaketetara doa. Foru aldundietan eskola-kirola dago bigarren (% 11,5), erakunde autonomoetan goi-mailako lehiaketak (% 6,9), eta udaletan, kirol ekitaldiak (% 1,9).

- **Kirol-eremuen arabera, 2023ko kirol-gastu osoaren % 82,6 bi eremuk hartzen dute (ia 337,6 milioi euro): multikirolak (% 58,7) eta bestelako kirolek (% 23,9).** Gainontzeko kirol-eremuei dagokienez, 2023an, batez ere, pilota kirolek jarri dute dirua EAEko erakundeek: ia 35,1 milioi euro (gastu osoaren % 8,6). Ur-kirolek ia 12,8 milioi euro (% 3,1) eta kirol portuetarako beste 10,7 milioi euro (% 2,6). Gainontzeko kirolak ez dira gastu osoaren % 1era ere iristen. Finantzaizaileari dagokionez, pilota kirolak eta ur-kirolak udalek finantziazten dituzte neurri handi batean: kirol horren % 62,1 eta % 74,5 jartzen dute, hurrenez hurren. Kirol portuen gastuaren % 86,2 erakunde autonomoek jarritakoa da.

- ☐ **EAEko erakundeek 66,1 milioi euroko balioa duten transferentziak egin dituzte haien menpeko erakundeetara:** Eusko Jaurlaritzak 3,3 milioi euro haren menpeko erakundeetara; foru aldundiek 5,9 milioi euro; eta udalek, 56,9 milioi euro. Horren guztiaren ondorioz, 2023ko administrazio-mailako gastu kontsolidatua 342.748.546 eurokoa da, hau da, 156 euro gastatzen da biztanleko. Kopuru horretatik % 79,5 udalei dagokie, guztira 727,5 milioi euro: Bizkaiko udalek gasturik handiena egin dute, 135,3 milioi euroekin, baina Arabak egin du jartzen du zenbatekorik handiena biztanleko, 144,3 euro. Bestela, gastu kontsolidatu osoaren % 13,5 dagokie foru aldundiei (46,4 milioi euro); eta % 7 Eusko Jaurlaritzari (23,9 milioi euro).

- ☐ **EAEko erakundeek 11,1 milioi transferitu dituzte haien menpekoak ez diren beste erakundeetara kirol gaietarako.** Ia 10 milioi euro foru aldundietatik udaletara bideratu dira, eta beste 984,7 mila euro Eusko Jaurlaritzaren bidez jaso dute udalek. Gainontzeko kopuruak nabarmen txikiagoak dira: udalen menpeko erakundeei 120,3 mila euro transferitu dizkiete foru aldundiek eta 59,1 mila euro Jaurlaritzak; udalen artean 41,5 mila euro transferitu dira, eta 9 mila euro eman dizkiete udal batzuek beste batzuen menpeko erakundeei. Hori horrela, EAEko administrazio publikoaren 2023ko gastu kontsolidatua 331.545.360 eurokoa izan da.

- ☐ **Jatorrian kontsolidatutako gastuari dagokionez, eta beraz, finantzatzailea kontuan hartzen bada, kirol-gastu kontsolidatuaren hiru laurden pasatxo udalak berak finantziatu du (% 78,8).** % 14,0 finantziatu dute foru aldundiek, eta % 7,2, Eusko Jaurlaritzak. Gastu kontsolidatuaren % 82,4 gastu arruntera bideratu da; eta gastu-mota horren erdia baino gehiago (% 51, 169 milioi euro) ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak dira (II. Kapituluak). Kapital gastuak, batez ere, inbertsioei lotuta daude (gastu osoaren % 12, 40 milioi euro); foru aldundietan nabarmentzen da, batez ere.

- ☐ **Helmugan kontsolidatutako gastuari dagokionez, eta beraz, hartzailea kontuan hartzen bada, kirolek jarritako hamar eurotik bederatziren helburua da bestelako kirol jarduerak finantzatzea (% 89,7, 257,5 milioi euro).** Kirol-gastu kontsolidatuaren % 4,7 goi-mailako lehiaketetara bideratzen da (15,4 milioi euro), % 2,6 kirol ekitaldietara (8,8 milioi euro), beste % 2,6 eskola-kirolera (8,8 milioi euro), eta % 0,8 besterik ez kirol egokitura (1,1 milioi euro). Era berean, multikirolera bideratzen da kirol-gastuaren erdia (% 50,5, 167,5 milioi euro), eta bestelako kirolek hiru laurden bat pasatxo (% 28,6, 95 milioi euro). Pilota kirolak daude hirugarren, nahiz eta kopuru txikiagoa jaso (% 15,8, 34,8 milioi euro); eta ur-kirolak (% 3,8, 12,6 milioi euro) eta kirol portuak (% 2,8, 9,4 milioi euro), gero. Gainontzeko kirol-eremuetara kopuru txikiagoak bideratzen dira.

- ☐ **EAEko erakunde publikoek 2023an guztira 146.176.438 euroko diru-sarrerak izan zituzten kirol arloan, hau da, kirol-gastu osoaren % 36.** Kirol arloko diru-sarreraren % 43,7 tasen eta prezio publikoen bidez jaso dute erakunde publikoek (63,8 milioi euro); % 39,8 transferentzia arrunten bidez (58,1 milioi euro); eta % 15,8 kapital transferentzien bidez (23,1 milioi euro). Diru-sarreraren % 45,5 propioak dira, hau da, erakundeak lortutako baliabideak, beste erakundeetatik jasotako transferentziak eta dirulaguntzak ez direnak. Eta autofinantzaketa-maila edo kirol-gastu osoarekiko diru-sarrera propioek duten pisua, guztira, % 16,3koa da.

- ☐ **2023an EAEko administrazio-publikoan guztira 3.062 lanpostu sortzen ditu kirol arloak.** Horietatik % 54,9 udalei dagokie (1.682 lanpostu) eta % 42,7 organismo autonomoei, sozietate publikoei eta fundazioei (1.308 lanpostu); eta oso gutxi dira foru aldundietan (43 lanpostu, % 1,4) eta Eusko Jaurlaritzan (29 lanpostu, % 0,9). Enplegu-motaren arabera, azpikontratatua da langileen % 69,7 (2.135 lanpostu) eta propioa % 30,3 (927 lanpostu). Funtzio profesionalari dagokionez, kirol kudeaketan eta jardueran dabil % 58 (1.776 lanpostu) eta pertsonal laguntzailea eta zeharkakoa da % 42 (1.285 lanpostu). Generoaren arabera, gizonezkoak zertxobait gehiago dira (% 51,4) emakumezkoak baino (% 48,6). Garbiketako langilegoa da feminizatuena (% 70,8 da emakumezkoa), eta mantentze-lanetakoa, aldiz, maskulinizatuena (% 78,6 da gizonezkoa).

- ☐ **Ikerketaren unibertsoko bost erakundetik bik du kiroldegia (% 60); 5.000 biztanlez gorako udalerri guztiek dute kiroldegia.** Kiroldegi horiek zuzenean kudeatzen dira, nagusiki; % 42,5ek udal baliabide propioen bidez kudeatzen du zerbitzu hori, batez ere, udalerri txikienetan da ohikoagoa kudeaketa zuzena (% 69,7). 5.000 eta 20.000 biztanle arteko udalerrien erdiek zeharkako kudeaketa-eredua dute (% 53,7).

- ☐ **Aurrekontuetan genero ikuspegiaren gaiak badu bere lekua, hain zuzen, EAEko administrazio publikoak genero-berdintasuna sustatzeko 615 mila euro bideratu ditu II. kapitulutik, eta 224 mila euro IV. kapitulutik.** Ondasun arrunten eta zerbitzuetan genero ikuspegia txertatzeko gastuaren % 45,7 foru aldundiei dagokie (281 mila euro), eta transferentzia arrunten kasuan, % 62,6 Eusko Jaurlaritzak bideratu du (140 mila euro). Ildo horretatik, enpresen kontratazioan eta dirulaguntzetan genero-klausulak txertatzen dien ala ez eta enpresa horiek berdintasun-planik ba ote duten erantzun dute erakundeek (% 30-40aren informazioa jaso da): zerbitzu-enpresen kontratazioan % 29,3k esan du genero-klausulak txertatzen direla –% 65,6 kirol zerbitzu estrukturaletako giza baliabideen kontratazioan–, eta dirulaguntzetan % 58,1ek; berdintasun-planei dagokienez, kontratatutako enpresen % 23,3k du –% 64,6 kirol zerbitzu estrukturaletako giza baliabideen kontratazioan–, eta diruz lagundutakoen % 8,1ek.

- ☐ **Guztira 22 erakundek adierazi dute erakundeko kirol arloko langileek genero-ikuspegiari buruzko prestakuntzaren bat jaso dutela.** Horietan, orotara 31 ikastaro eskaini dira eta guztira 426 prestakuntza-ordu jaso dituzte: ikastaroen % 58,1 eta prestakuntza-orduen % 68,5 udaletan eskaini dituzte. Erakunde guztiak kontuan izanda, 140 langilek hartu dute parte horietan, erdia baino gehiago emakumezkoak (% 52,1).

- ☐ **Hizkuntza-klausulen inguruko informazioa eman dutenen (erakundeen %30-40) herena inguruk adierazi dute klausula horiek txertatu dituztela zerbitzu-enpresen kontratazioan (% 33,3) zein dirulaguntzetan (% 32,4).** Klausula horiek nabarmen gehiago txertatu dira kirol zerbitzu estrukturaletako giza baliabideen kontratazioan (% 79,5).